



Bazen behin...

Badakizue...

aspaldi-aspaldian...

Duela urte asko...

ITX. IDAZLAN

KOADERNOA

Behin batean...

Herririk bategan...

**DBH /
BATXILERGOA
2020**

Argitaratzailea

**Gernika-Lumoko Euskara Zerbitzua
eta Hezkuntza Saila**

Laguntzaileak

**Barrutialde Institutua
Gernika-Lumoko Institutua
Mertzedeko Ikastetxea
San Fidel Ikastola
Seber Altube Ikastola**

Postadaren egilea

Itziar Ainhoa Cotrina (DBH4. mailako ikaslea)

Babeslea

Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saila
(Euskara Zuzendaritza)



Maketazioa

11barri (Markina-Xemein)

Inprimaketa

Lizaso Grafikak (Zornotza)

2020ko edizioa.

AURKI BIDEA

egilea	maila	idazlana	ORR.
Aratz Leziaga	DBH 1.	<i>“Arrain familia bat itsasoan zehar”</i>	1
Uxue Hormaetxea Arrien	DBH 1.	<i>“Peioren amets ikusgarria”</i>	4
Almike Argarate Zabala	DBH 1.	<i>“Catalin eta bere ametsak”</i>	6
Sara Egurrola Garai	DBH 2.	<i>“Neska nerabe baten egunerokoa”</i>	9
Alluitz de Bilbao	DBH 2.	<i>“Hodeiak”</i>	12
Ager Lopez Mingo	DBH 2.	<i>“Bizitzaren jabe”</i>	15
Maite Fernandez Larruzea	DBH 2.	<i>“Aitonaren irrati zaharra”</i>	17
Garoa Oleaga Goikolea	DBH 2.	<i>“Begiak umel”</i>	21
Narora Robledo	DBH 2.	<i>“Aita”</i>	24
Amale Lavin Elgezabal	DBH 2.	<i>“Bat ere ez gehiago!”</i>	28
Denis Gurei	DBH 3.	<i>“Downhill: beste dimentsio bat”</i>	32
Estibaliz Basterretxea Alvarez	DBH 3.	<i>“Geratuko naiz ala ez?”</i>	36
Paule Lauzirika	DBH 3.	<i>“Mugak bai?”</i>	40
Unai Lejarzegi Ajubita	DBH 3.	<i>“Mendekua”</i>	43
June Zameza Azurmendi	DBH 4.	<i>“Izan ginenak eta gaur egun garenak”</i>	47
Ane Mei Aspiazu Etxeandia	DBH 4.	<i>“Azken malkoa”</i>	51
Naia Azumendi	DBH 4.	<i>“Ziurgabetasunen ur nahasietan”</i>	56
Oihane Zabala	DBH 4.	<i>“Oihaneko iluntzeak”</i>	58
Elena Aranbarri Bediala	DBH 4.	<i>“Ametsa”</i>	63
Malen Aretxaga Aldamizetxebarria	DBH 4.	<i>“Abesti bakoitzean”</i>	67
Irati Perez Urbina	DBH 4.	<i>“Ikusi arte”</i>	72
Itsaso Olea Urionabarrenetxea	BATX 1.	<i>“Ni neu, zu zeu”</i>	77
Janire Arrizabalaga Munduate	BATX 1.	<i>“Nor naiz”</i>	81
Maria Basterretxea	BATX 1.	<i>“Ene kuttuna”</i>	87
Zuberoa Egurrola	BATX 1.	<i>“Ezkatuko puzzlea”</i>	92
Ander Azkarai Calderon	BATX 2.	<i>“Argi izpi bat iluntasunean”</i>	94
Asier Foruria Naveran	BATX 2.	<i>“Sustrai barik ez dago bizitzarik”</i>	98
Eneko Orue Basterretxea	BATX 2.	<i>“Etorkizunaren mende bizi den gudaria”</i>	102
Beñat Albizbeaskoetxea Sanchez	BATX 2.	<i>“23 Sunset Drive”</i>	107
Eneko Arandia Alberdi	BATX 2.	<i>“Haizearen itzala”</i>	112
Julen Arrien Urzaa	BATX 2.	<i>“Soberan”</i>	116
Olaia Mujika Anduiza	BATX 2.	<i>“Aberri soinuak”</i>	123
Sara Iturriarte Basterretxea	BATX 2.	<i>“Krabelinak”</i>	131
David Domínguez Sevillano	HHI/EPA	<i>“Denborako bidaiariak”</i>	139
Melissa Segada	HHI/EPA	<i>“Institutuko hiltzailea”</i>	141



Aratz Leziaga

DBH 1. maila

“Ez esan ez dakizuna”

ARRAIN FAMILIA BAT ITSASOAN ZEHAR

Bazen behin, Islandiako herri txiki batean arrain familia bat. Arrain aita, Bakalontzio zen, bakailao familiakoa; ama Salmoneta deitzen zen eta izokinen familiakoa zen. Bi seme-alaba zituzten: Dora, alai eta argia zena eta Merluzo, lagunek Merlu deitzen zioten.

Hotzaren ondorioz, bere herritik migratzea erabaki zuten eta Erresuma Batuko hego kostaldera joan ziren, ur epelen bila. Baina ez ziren bertan geratu denbora luzean, kostaldea zikinkeriaz beteta baitzegoen. Plastikoak, olioak, poteak... denetarik aurkitu zuten itsasoan.

- Ah!!! Hau nazka- ezan zuen Salmonetak. - Dena zikinkeriaz beteta dago, ezin da ezta igeri egin.

Handik gutxira txilio batzuk entzun zituzten, zeinak esaten zuten:”Laguntza!!! Laguntzaaaaaa!!!! Hemen!! Hemen nago!! Hemen nago!!!!”.

Merlu urrundu egin zen, eta ahots hori jarraitu zuen. Metro batzuetara olagarro batekin egin zuen topo. Olagarroa plastikozko hezi batean atrapatuta zegoen. Merluk ez zuen bi aldiz pentsatu eta olagarroa askatzera joan zen. Olagarroa oso handia zen eta Merlu, berriz, oso txikia. Orduan, bere gurasoei deitu zien laguntza eske. Denen artean lortu egin zuten olagarroa askatzea.

- Eskerrik asko familia, zuoi esker bizirik nago.- Esan zien olagarroak.
- Zein da zure izena? - Galdetu zion Bakalontziok.
- Jaxinto, baina denek Zortzi esaten didate. Zortzi, nire hankak bezala.

Zortzik azaldu zien itsaso alde horretan kutsadura geroz eta handiagoa zela, eta bertatik hondartza tropikal batera bidaiatzea zela bere asmoa, eta Bakalontzioren familia guztiari gonbidatu zion berarekin joatera.

Bakalontziok, itsasoaren egoera ikusita ez zuen bi aldiz pentsatu eta baietz esan zuen. Orduan, maletak egin eta hondartza tropikalen bila joan ziren denak.

Asteetan igeri egin eta gero, Hawaii irletara heldu ziren, bertako hondartzak oso garbiak ematen zuten, harea zuri-zuria eta ura esmeralda kolorekoa. Lekua aproposa zen bertan bizitzeko.

Hasieran oso pozik ibili ziren, etxe bat prestatu, lagun berri asko egin zituzten, baina uda heltzen joan zen heinean konturatu ziren ura beroegia zegoela. Uraren tenperaturak altuegiak ziren bertan bakailao eta izokinen familiako arrainak bizi ahal izateko.

- Baina zergatik horrenbeste bero, ama?- Galdetu zion Merluk Salmonetari.

- Hau klima tropikala da maitea, eta horregatik ura Islandiakoa baino beroagoa izaten da. Baina kasu honetan beroa handiegia da, eta arazo hau gizonaren bizimoduak sortu du, uretara zikinkeria botaz eta bere fabrikek hainbeste kutsadura isuriz, lortu dutena itsaso guztiak gaixotzea izan da.

Beroa jasanezina bilakatu zen eta kosta hotzetara joatea erabaki zuten. Orduan, Ipar Poloko uretara joan ziren. Han tenperatura egokiagoa zen beraiantzat. Hasieran ondo ibili ziren, baina egun batzuetara konturatu ziren animalia asko hilik agertu zirela uretan.



- Zer gertatu da aita, animaliak hilik egoteko? Galdetu zion Merluk Bakalontziori.

- Iceberg bat urtu egin da eta hor zeuden animalia guztiak jausi egin dira uretara. - Esan zion aitak. - Gizonaren bizimoduak, itsasoaren zikinkeria, kutsadura eta klima-aldaketa eragin ditu. Horregatik poloak urtzen ari dira.

Merluzo oso triste jarri zen, gizonaren jarrera oso egoista iruditu zitzaion.

Azkenean, familia osoak beste itsaso batera bidaiatzea erabaki zuen. Ipar Polotik bajatu, Groenlandiatik igaro, Islandiatik jaitsi eta Erresuma Batuko kosta ikusi zuten. Azkenean Kantauri itsasora heldu ziren.

Kantauri itsasoan itsasontzi batzuk ikusi zituzten sare handi batzuekin. Sare horiekin itsasoan zegoen zikinkeria kostaldera eramaten zuten, eta bertan, jendea zikinkeria zabortegira eramateko zain zegoen.

- Begira ama!. Gizonak zikinkeria garbitzen ari da.- Esan zuen Merluzok.
- Bai. Horrela jarraitzen badute, lortuko dute itsasoa lehen zegoen bezain garbi uzten. Erantzun zion amak.

Arrain familia oso pozik jarri zen. Kantauri itsasoan ura garbia zegoen eta temperatura egokia zen, horregatik bertan bizitzea erabaki zuten. Eta urte askotan oso zoriontsu bizi izan ziren Bizkaiko Kostaldean.





Uxue Hormaetxea Arrien
DBH 1. maila

“Zaldian ibiltzea eta lagunekin irtetea gustatzen zait”

PEIOREN AMETS IKUSGARRIA

Udako egun eguzkitsu batean, Peiok eta bere familiak hondartzara joateko asmoa zuten. Goizean esnatu, pijama erantzi, arin-arin jantzi eta gosaltzera joan ziren. Gosaltzeko, esnea kolakaoarekin eta galleta batzuk hartu zituzten umeek, eta amak eta aitak kafesnea. Gero, kotxeko giltzak hartu zituen aitak, kotxez hondartzara joateko. Peio eta bere arreba Libe, oso pozik zeuden, aspaldi ez ziren hondartzara joan eta. Peiok bere kotxe gorria hartu zuen eta Libek bere panpina morea. Biok etxetik ziztu bizian irten ziren. Kotxean, abesten joan ziren: sardina bat, bi sardina, elkartu ziren ... Hondartzara iristeko minutu bat falta zen. Denak irrikitan zeuden bertara iristeko eta esan zuen amak:

- Heltzen garenean, kotxea aparkatu eta astiro-astiro hondartzarantz joango gara.

Hondartzara heldu eta hareara sartu zirenean, txankletak kendu zituzten. Harea oso bero zegoen eta arrapaladan berriro jantzi zituzten . Eta amak esan zuen:

- Orain eguzkitako krema bota eta nirekin uretara joango zarete.

Peiok eta Libek esan zuten:

- Baiiii!!! Uretara goaz!!!!

Umeak oso pozik jarri ziren eta saltoka hasi ziren. Arropak kendu eta eguzkitako krema bota zien amak. Hamar minutu egon ziren harean jolasten, gorputzak krema xurgatu arte. Gero uretara joan ziren. Itsasertzean egon ziren jolasten Peioren kotxearekin eta Liberen panpinarekin. Ordu erdi baino gehiago egon ziren uretan eta gero jatera joan ziren. Hondartzatik bost minutura zegoen jatetxe batera joan ziren jaten. Makarroi platerkada bat, solomoa edo oilasko-bularki zati bat, eta azkenik, izozki handi-handi bat jan zituen bakoitzak. Lau eta erdira arte egon ziren jatetxean eta gero, oinez bueltatu ziren hondartzarantz.

Hondartzara helduta, berriro ere krema bota eta uretara joan ziren. Ordu erdi pasatu eta gero, trumoi bat entzun zuen amak. Eta galdetu zion aitari:

- Entzun duzu hori?

Aitak erantzun zion:

- Bai. Trumoi bat izan da!!!

Baina ez zioten kasurik egin trumoiari eta bertan geratu ziren uretan saltoka, plisti-plasta... Orduan, zerua ilun-ilun jarri zen eta zeruan txori asko hegaka zeuden. Bat-batean, amak urrunean egundoko olatu bat zetorrela ikusi zuen. Urduri, oihukatu zuen:

- Tsunami bat! Tsunami bat! Tsunami bat dator!!!

Eta hondartzakoak dena batzen eta korrika hasi ziren. Sorosleek bozgorailuetatik errepikatzen zuten:

- Denok hondartzatik kanpora!!! Tsunami bat dator!!! Arin!!!

Hondartzan zegoen jende guztia zarataka eta oihuka hasi zen. Peioren gurasoek ez zekiten zer egin. Kotxea hartu eta aireporturantz joan ziren arin-arin. Aireportuan jende asko zegoen, denak iheska. Ia ez zegoen lekurik mugitzeko; jendetza, Peio eta bere familiaren moduan, noraezean. Oso urduri zeuden denak. Gero eta ur gehiago zetorren. Azkenean, amak ideia bat izan zuen: hegazkin batean sartuko ziren baimen barik.



Aireportuko pistara irten ziren, eta hurbilen zegoen hegazkinera sartzea lortu zuten. Jendez beteta zegoen, baina eserleku batean jesarri ziren eta hegazkina hegan hasi zen. Sortea izan zuten. Gero, pertsona bati amak ea nora zihoan hegazkina galdetu zion. Frantziara zihoala erantzun zion! Hori entzundakoan, Peio eta Libe poztu ziren, beraiek bertara joan nahi zutelako. Hegazkinak lurreratu zenean, jaitsi eta hotel batera joan ziren etxe bat aurkitu arte. Hotelean, gauza asko zeuden: igerileku handi bat, eguzkia hartzeko hamaka batzuk, masajeak hartzeko leku bat... Hurrengo astean, amak

ordenagailu batean alokatzeko zegoen etxe bizitza baten iragarkia aurkitu zuen. Eiffel dorrearen aurrean zegoen gainera! Oso pozik jarri ziren. Etxea zaharra zen baina familia oso pozik zegoen. Azkenean, familia osoa bertan bizitzen geratu zen betirako. Bat-batean, Peio esnatu zen eta dena amets ikusgarri bat izan zela konturatu zen.



Almike Argarate Zabala
DBH 1. maila

*“Klarinetea jotzea eta
saski-baloira jokatzera gustuko ditut”*

CATALIN ETA BERE AMETSAK

Bazen behin Catalin izeneko neska eder bat. 12 urte zituen eta Londreseko “Big-beng” erlojuaren inguruko etxe erraldoietan bizi zen. Bere gurasoak oso aberatsak ziren, horregatik etxe horretaz aparte, beste bost zituen munduan zehar.

Lehenengoa Kariben zeukan eta bakar-bakarrik egoten ziren izugarritzko eremua beraiantzat bakarrik zelako. Bigarren etxea, Australian zeukaten eta etxetik izugarritzko korallak ikusten ziren. Hirugarrena, Madrilen zeukaten. Laugarrena, Moskun eta azkena Tokion.

Catalin oso neska ederra zen, begi urdinak, sudur txikia, aho txikia eta ilehoria zen. Oso neska alaia, langilea, argia eta bihotz onekoa zen. Beti zegoen laguntzeko prest. Lehen esan dudan bezala gurasoak oso aberatsak ziren. Ama Ingalaterran jaioa zen eta aita, berriz, Australiako Adelaidan. Negua zen, eta abenduak 31, Australian pasatzeko asmoa zuten; urtarrilak 1, Kariben eta urtarrilak 2, Madrilen. Hainbeste etxe edukita... Hegaldi asko ziren eta denbora gutxi, baina hala ere, prestatuta zeukaten dena egiteko denbora izango zuten.

Goizeko 7:00ak jota zeuden jada eta Londresetik Australiara joateko bidean zeuden. 8:00etan zuten hegaldi pribatuan joateko. Aireportuan Catalin, lurrean etzanda, lo... zeuden guztiak gurasoek arrastaka eramaten zuten bitartean. Bere artean pentsatzen zuen... “Beraien modura egongo banintz”. Hegazkinean sartu eta Australiara ailegatu ziren. Neskatilak berdin jarraitzen zuen, pentsatu eta pentsatu. Izugarritzko bazkaria eta afaria izan zuten, baina Catalinek ez zuen ezer jan. Ederto pasatu zuten Urte Berri eguna, kantatzen, dantzatzen... Urtarrilak leku 12:00etan Karibeko txalet erraldoian zeuden, eguzkia hartzen eta deskantsatzen, gau osoa hegazkinean pasatu zutelako. Bidaia amaitzeko Madril falta zen. Iritsi zirenean Catalin oso nekatuta zegoen.

Londresera iritsi zirenean Catalinek ondorio bat atera zuen. Joan zen leku guztiak ikusita, ez zegoen erdi biderik, denak zirelako aberatsak edo kalean bizi ziren pobreak. Zerbait egin behar zuten. Proiektu asko pentsatu zituen, nahiz eta beraren gurasoek ez lagundu. Lehenengo ideia hiritar bakoitzak txanpon bat ipintzea zen, baina hiritar guztiak ikusita, konturatu zen erdiak ere ez zuela txanponik ipini, porrot egin zuen.

Orduan bigarren planera pasatu zen. Bigarren plana, beraren gurasoek dirua ipintzea izan zen, horrela hiritarrek aberatsek zer egiten zuten ikusita, beraiek ere ipiniko zutenaren ustean. Baina hiritarrei bost axola zien aberatsek egiten zutena.



Catalin amore ematera zegoela, gizon txikitxo bat etorri zitzaion. Gizon hark, ia ez zuen ilerik, begi handi urdinak zituen, sudur erraldoi eta zabala eta aho txikia. Potolotxoa zen eta pajarita gorri-gorri bat zeraman. Eta hauxe esan zion:

- Kaixo, Jonatan naiz, zure gurasoen laguna. Zure ekintza guztiak ikusita, suma dezaket zein asmorekin zabiltzan.

- Ah!! Zeu zara... Zertan etorri zara bada?- galdetu zion neskak.
- Laguntzera nator. Niretzat ere injustizia izugarria da gizarte honetan gertatzen ari dena.
- Benetan!? Eskerrik asko!!- erantzun zion Catalinek harrituta.
- Oraindik ezin duzu hiritarren iritzia aldatu. Baina nagusitan urrunera heltzen bazara, politikari izanda adibidez, denek egingo dizute kasu.

Catalinek hori entzutean, buruko linterna piztu zitzaion eta bere bizitzan zehar lan izugarria egin zuten. Jonatanek eta berak politikari bihurtzeko. Lehenik eta behin ikasketak guztiak bukatu zituen. Bitartean politikan apur bat sartuta egon zen, prentsaurreko batzuk ematen, lanak egiten...

Oso gogorak izan ziren urte horiek, alde batetik ikasketak zituelako, eta beste alde batetik, politikan sartuta ere bazebilelako. Ikasketetan bi titulu lortu zituen, bat zientzietako eta bestea ingeniarietako. Lehen esan dudan moduan oso neska langilea eta argia zen. Eta azkenean...

Hamabost urte ondoren...



© Can Stock Photo - csp35223921

Catalinek 27 urte zituen eta hauteskundeak ziren. Neska oso urduri zegoen. Urte horietan zehar, Jonatanek eta berak egin zuten lan guztia eta gero... Emaitzak entzun zituenean...

Catalin Ingalaterra osoko lehendakaria zen!!!

Mikrofonoa hartu zuenean, izugarrizko prentsaurrekoa eman zuen. Denak aho zabalik utzi zituen, politikari guztiak ere bai. Egun horretatik aurrera Catalin beti zegoen lanpetuta, entrebistak, prentsaurrekoak etab. egiten. Baina lan guzti horrek emaitza izugarriak izan zituen. Lehenengo Ingalaterrako biztanle guztiak erdi mailakoak bilakatu ziren, hau da, ez zegoen pobrerik ezta aberatsik. Bigarren gauza lortu zuena, kutsatzen zuten fabrika guztiak kentzea eta ibilgailu guztiak elektrikoak izatea izan zen. Hirugarren gauza egin zuena, etxe guztietan zein kalean birziklatzea lortu zuten. Eta hainbat gauza gehiago. Baina Catalinek beste gauza bat gehiago nahi zuen, Ingalaterraz gain, munduko beste leku guztietan arau hauek ezartzea.



Sara Egurrola Garai
DBH 2. maila
"Kontatzeko bizi"

NESKA NERABE BATEN EGUNEROKOA

2019 ko ekainaren 5a

Kaixo, Maialen naiz, 14 urteko donostiarra. Eguneroko batean idazten dudan lehen aldia da. Ez dakit oso ondo nola hasten den eguneroko bat idazten, orduan nire burua aurkeztuz hasiko naiz. Neska alaia naiz baina oso lotsatia ez dudan ezagutzen jendearekin, baina ezagutzen dudanarekin guztiz alderantzizkoa naiz, ez naiz isiltzen. Oso perfekzionista naiz, batzuetan gehiegi, eta hori ez da ona beti. Itxuraz oso formala naizela ematen du, nire altuera egokia da nire adinarentzat; begi marroi eta distiratsuak ditut eta barre egiterakoan txikitu egiten zaizkit. Nire ilea besteen ileen oso antzerakoa da, kolore marroia du baina udan ia hori jartzen zait, hainbat kiribil ditu baina bakarrik dutxatu eta gero, hurrengo egunetan ondulatuta edukitzen dut.

Hau izan da nire buruaren aurkezpena, gaurtik aurrera nire gauzak kontatuko ditut hemen, bihar arte.

2019 ko ekainaren 7a

Atzo ezin izan nuen ezer idatzi, etxeko lan asko izan nituelako, baina gaur ez dut askorik izan, Bilbora joan garelako txangoan institutuarekin batera. Museo aspergarri batera joan gara, hain zen aspergarria ez dudala bere izena ere gogoratzen. Baina horretaz aparte egun zoragarria izan da hasieran, batez ere gustuko dudan mutilarekin hitz egin dudalako. Gorka du izena, mutil aparta da, begi izugarri politak ditu eta bere irribarrea telebistan agertzen diren horietakoa da. Hitz

egiten duen bakoitzean nire burua ilargira joaten da, baina niri hitz egin didanean airerik gabe moduan geratu naiz. Eskerrak Ane egon den hor ni salbatzeko. Ane nire lagunik onenetakoa da. Ikasturte honetan ezagutu dut, gela berdinean tokatu zaigulako.

Nire momentu txarrenetan barre bat ateratzen didan pertsona horietakoa da. Museoa eta gero parke batera joan gara, landa berde polit batzuk zituen parke batera. Bertan nire lagun batzuekin batera jesarri naiz lurrean, lagun haien artean Gorka zegoen eta galderetara jolastu dugu, hau da, norbaitek galdera bat egiten zion beste bati eta erantzun egin behar zuen zintzotasun osoaz. Partida hasi dugu eta Junek esan du berak nahi zuela hasi galdera egiten norbaiti. June nire alboko gelako ikasle bat da, pixka bat harroputza da eta ez zait oso ondo jausten, pentsatzen du bera dela munduaren zilborra, baina hori ez da horrela. Eta nola ez, niri egin dit galdera. Ez zitzaidan axola norbaitek niri galdera bat egitea, baina esan dudanez, pixka bat harroputza da, eta badakienez Gorka dudala gustuko eta bera bertan zegoela aprobetxatuz, ea nor dudan gustuko galdetu dit. June madarikatua! Ez nuen nahi Gorkak jakitea bera gustuko dudala, orduan guztiz lotsatuta alde egin dut bertatik galdera erantzun gabe. Uste dut ni joan eta gero ez dutela partidarekin jarraitu eta hizketan hasi direla.

Parkean zeuden komunetan sartu naiz lasaitzeko, behin lasaituta besteekin itzuli naiz eta hurrengo astean izango ditugun azterketei buruz hitz egin dugu.

2019 ko ekainaren 9a.

Gaur igandea da, ez dut gauza askorik egin. Etxean geratu behar izan naiz bihar azterketekin hasten garelako eta ondo prestatuta egon nahi dut. Ia ia udan gaude eta itzelezko gogoak ditut oporrak hartzeko. Neguan, etxean geratzen naizen egunetan, asko gustatzen zait nire aitarekin pelikula zaharrak ikustea, batez ere igandeetan, igande hotz eta euritsuetan. Egun horietan ez dut gogorik izaten ezer egiteko, baina beti uzten ditut azken egunerako asteburuan egiteko bidaltzen dizkiguten lanak, hau da, iganderako. Orduan goiz esnatzen naiz, bederatziak inguruan, lanak egiteko baina beti hasten naiz berandu eta bazkaldu ondoren jarraitu behar izaten dut. Bukatu eta gero egongelara noa eta aitak eta biok pelikula bat ikusten dugu, batzuetan krispetak ere jaten ditugu. Igandeak ez zaizkit gustatzen, baina egun amaierako unetxo horrek poztasuna eta lasaitasuna sentiarazten dizkit. Baina orain udaberrian gaudenez, goizean ikasten egon naiz eta arratsaldean lagunekin joan naiz kalera buelta bat ematera.

Maitasunari buruz hitz egin dugu, eta gehienetan gure adinean mutilei bakarrik gustatzen zaizkiela gorputz ona eta aurpegi polita dituzten neskak, eta barrukoa ez zaiela asko axola.

2019 ko ekainaren 10a.

Gaueko hamaikak dira eta ezin dut lorik egin. Gaur izan dudana egunaz ari naiz pentsatzen. Matematikako azterketa batekin hasi dut goiza, eta ez da guztiz gaizki joan, gaingitu ahal dudala uste dut. Egun hauetan denbora asko pasatu dut Anerekin, eta gero eta gehiago gustatzen zait berarekin egotea. Berari eskatu nion aholkua, galdetu nion ea nire lekuan egongo bazen esango bazion Gorkari zer sentitzen zuen. Denbora asko neraman bere atzetik, eta esan nahi nion sentitzen nuena. Anek esan zidan hainbeste gustatzen bazitzaidan esateko, baina bere aurpegiak ez zuen hori esaten.

Patio orduan Gorkarengana joan naiz eta dena esan diot. Ez naiz arraro sentitu, ezta urduri ere ez, zerbait gertatzen ote zitzaidan? Horrelako gauzetan ezinegonean aritzen naiz, baina oraingoan ez. Agian sentitzen dudana faltsua da? Mutilak esan dit berari beste bat gustatzen zaiola, eta ez zait inportatu; lagunak ahal garela izan ere esan dit. Pentsatzen jarraitzen dut, uste dut nire buruak eztanda egingo duela.

2019 ko ekainaren 10a.

Oraingoan ere gauez nago idazten. Gaurkoa egun arraro xamarra izan da. Ez dakit zergatik baina orain Gorkarekin inoiz baino gehiago hitz egiten dut. Tutoretzan egon gara eta gure irakasleak lekuak aldatzea erabaki du, gure jarrera desegokiagatik, eta Gorkarekin suertatu zait, ziur aski horregatik izango da hitz egiten dugula. Gauza ikaragarri bat gertatu zait patio orduan. Hirugarren klasearen amaiera markatzen duen txirrinak jo du eta berehala Ane etorri zait niregana. Kanpora eramanez dit, frontoira hain zuzen ere. Hor geundela nire aurrean jarri eta gauza garrantzitsu bat esan behar zidala esan dit. Oso urduri jarri dela nabaritu dut. Eta azkenean esan egin dit. Nitaz zerbait sentitzen duela, eta ez lagun arteko maitasuna soilik. Bi aldiz pentsatu gabe, musu eman diot ezpainenetan. Nire lehen musua. Tximeletak sentitu ditut nire sabelean, begiak ireki eta irribarre egin diogu elkarri. Orain badakit gertatzen zitzaidana, ez ditut mutilak gustuko, neskak baizik.



Alluitz de Bilbao
DBH 2. maila

“Irakurtzea, marraztea eta filmak ikustea gustatzen zait”

HODEIAK

Kaixo ni Emily naiz eta 17 urte ditut, Arratzun bizi naiz, baina Ingalaterran jaio nintzen, nire gurasoak bertakoak direlako, horregatik daukat izen hau. Kontatuko dizuedan istorioa, orain dela hiru urte gertatu zen, eta nire lagunik onenari eta niri gertatu zitzaigun.

Nire lagunik onena Unai deitzen zen, eta jada bi urte pasatu dira hil zenetik. Unai beste Eskola batera joaten zen, horregatik ez nuen ezagutzen. Ospitalean ezagutu nuen, minbizia zuen, horregatik ia denbora guztia ematen zuen ospitalean, odoleko frogak eta horrelakoak egin behar zituelako. Nire amak ahizpa izan berri zuen, horregatik nengoen ni ospitalean.

Egun batean nire amarekin nengoela, paseotxo bat ematera irten nintzen ospitaleko gelatik. Itxarongelatik igaro nintzenean, oso bitxia iruditu zitzaidan, izkina batean bakarrik zegoen mutil bat. Negarrez ikusi nuenean berarengana hurbildu nintzen, laguntza eskaintzera. Harrituta geratu zen hurbildu nintzenean, eta mesedez ez joteko eskatu zidan. Arraroa iruditu zitzaidan, eta begietara begiratu zidanean, barkamena eskatzen hasi zitzaidan, ni beste pertsona bat nintzela pentsatu zuelako.

Ia nirekin etorri nahi bazuen galdetu nion, horrela, elkar hobeto ezagutu ahal izango genuen. Baiezko keinua egin eta umeen gelara eramán ninduen. Bertan bi ordu eman genituen solasean, berak kontatu zidan ospitaleko mutil eta neska talde bat beti ari zela bera zirikatzen. Oso interesgarria iruditu zitzaidan Unai deitzen zen mutiko hori.

Amarekin bueltatu beharra izan nuen, baina joan aurretik, ea hurrengo egunean leku eta ordu berean gelditu gitezkeen galdetu nion, eta baiezeko keinu batez erantzun zidan berriro. Unai oso berbatia ez zela konturatu nintzen, aurreko bi orduetan nik bakarrik egin nuelako berba, berak arretaz entzuten zidan eta inoiz komentarioren bat ere gehitzen zuen.

Oraingoan Unai pozik zegoen eta berbati zegoen. Ni ere pozik nengoen, bera horrela ikuteaz. Hurrengo aste osoa horrela eman genuen. Nire ama etxera joateko eguna heldu zitzaigun, baita ni joateko eguna noski. Gure sakeleko telefono zenbakiak elkar trukatu genizkion.

Harremanetan jarraitu genuen arren, nik Unai faltan botatzen nuen. Egun batean nire ahizpa txikia gaixotu egin zen, orduan, ospitalera eramane behar izan genuen. Ospitalera bidaiara aprobetxatu nuen. Unairi bisita egiteko. Umeen gelara hurbildu nintzen ea topatzen nuen, eta bertan zegoen, lurrean etzanda puzzle bat egiten. Bere izena esan nuen ea entzuten nunduenan, ni nengoen lekura begiratu zuen, eta ikusi zidanen, korrika etorri zitzaidan eta besarkada handia eman zidan.

Bi hile pasatu ziren, eta ni batzuetan ospitalera joaten nintzen Unai bisitatzerara. Batzuetan sukaldatu egiten genuen, Unairi asko gustatzen zitzaiolako, eta beste batzuetan margotu edo video bat grabatu. Ez genuen elkar ikusten ia-ia.

Unairen urtebetetzea heldu zen, eta bere amari paseo bat ematera ospitaletik irten gitezkeen galdetu nion, baietz esan zidan. Hori izan zen nire oparia. Hiriko kanpoaldera joan ginen, zelai batera. Bertan etzan eta gure gauzak kontatzen hasi ginen. Unai haxe esan zidan:

- Nik horrela sentitu nahi dut beti, libre, hodei baten moduan. Ez dut horrela jarraitu nahi nire bizitza osoa, ospitalean sartuta eta sonda batekin hemendik hara eta handik hona.

Hori entzun nuenean besarkada bat eman, eta ni beti laguntzeko prest egongo nintzela esan nion.

Ni azterketekin nenbilen, orduan, etxera goiz bueltatu behar izan nuen.

Ostirala heldu zen, azterketak amaituak nituen eta denak gaindituta. Etxera heldu eta Unairen amak deitu zidan. Unairen heriotzeren berri emateko. Hitz horiek entzundakoan, negarrez hasi eta ezin izan nintzen gelditu.

Aste bat eman nuen nire logelan sartuta, gutxi gorabera. Bakarrik sentitzen nintzen, ez neukan inor eta ez nuen gogorik beste inorekin hitz egiteko, ezta ere nire amarekin. Unairen barrea gogoratzen nuenean, negarrez hasi eta ezin nintzen gelditu, eta ezagutu ginen egunaz pentsatzean ere gauza bera gertatzen zitzaidan.

Denboraren poderioz Unairen heriotza gainditzea lortu dut, eta zorte handia izan dudala uzte dut Unai ezagutu dudalako. Beti egongo da hor niri laguntzeko, niri entzuteko. Unai nire bizitzan egon den pertsonarik garrantzitsuenetarikoa izan eta izango da, bera gogorarazten nauen hitza beti izango da “Hodeiak” berak beti esaten baitzuen hodeia izan nahi zuela, eta lortu izana espero dut.



Ager Lopez Mingo
DBH 2. maila

“Futbolera jolastea eta filmak ikustea gustatzen zait”

BIZITZAREN JABE

Koldo 13 urteko mutil arrunt bat zen. Ez zen inoiz borrokatzen, oso azkarra zen eta eskolan oso ondo aritzen zen. Dena ondo zihoan berarentzat, baina bizitzan gauza asko gerta daitezke.

Egun arrunt batean, Koldo ohetik altxatu, jantzi, gosaldu eta hortzak garbitu zituen. Eskolara joateko prest zegoen. Eskolarako bidean zihoala liburu bat ahaztu zuela konturatu zen. Momentu hartan, buelta eman eta lasterka joan zen etxerantz. Etxeko giltzak hartu, atea ireki eta liburua hartu zuen. Eskola hasteko bost minutu geratzen ziren eta Koldo oraindik bidean zegoen. Koldo, eskolara ordurako ez zela heltzen ikustean, semaforoa gorri zegoela pasatu zen. Momentu hartan Koldok auto bat ikusi zuen eta...

Dena beltz zegoen. Begiak ireki eta bere hankak ikusitakoan, harritu egin zen: bere hankak igeltsuz estalita zituen. Bat-batean atea ireki zen eta bere gurasoak agertu ziren. Medikuek gertatutakoa azaldu zion Koldori. Koldok auto batekin talka egin zuen eta konorterik gabe geratu zen. Medikua gelatik irten zen eta Koldo bakar-bakarrik geratu zen bere gurasoekin.


Koldoren gurasoak triste itxura zuten eta Koldo hartaz konturatu zen. Koldoren gurasoak berarengana hurbildu eta hauxe esan zioten: "Koldo, ezin izango duzu berriro ibili". Hitz horiek Koldoren buruan geratu ziren eta ez denbora gutxirako.

Denbora pasatu zen, Koldo gurgil aulkian zihoan eta ez zuen oso itxura onik. Ezin zuen kirolik egin eta beti joan behar zen norbaiten laguntzarekin. Koldo ez zen betikoa; hankak galdu zituenetik txarto portatzen zen, umore txarra zeukan egunero eta eskolako notak larregi jaitsi ziren.

Larunbata zen eta Koldo nazkatuta itxartu zen. "Zergatik?" galdetzen zion bere buruari. Orduan ideia bat izan zuen, kalera irtetea. Horrek asko lasaitzen zuen Koldo, baina oraingoa ez zen bestelakoetan bezala izango. Koldok giltzak hartu, atea ireki eta inoren laguntzarik gabe, joan egin zen.

Irtendakoan, aire freskagarriak jo zuen aurpegian. Horrek asko poztu zuen. Inoren menpe ez egoteak segurtasun handia ematen zion. Oso arin zihoala, harri batekin talka egin eta lurrera erori zen. Koldo zarataka laguntza eskatzen hasi zen baina ez zen inor agertzen. Hain pozik egonda, ez zen konturatu herritik irten zela. Koldo mugikorra topatzeari ekin zion. Denbora askoren ondoren, mugikorra topatu zuen, baina ez zegoen hain hurbil. Lurrean zegoen, kaleko beste aldean. Koldo mugikorrerantz arrastaka hasi zen, baina horrek min asko egiten zion. Pixkanaka-pixkanaka, mugikorrera heldu zen.

Mugikorra hartu eta puskatuta zegoela konturatu zen. Galduta zegoen eta gainera ezin zuen inor deitu. A zer nolako arazoa! Momentu hartan, Koldok txori mindu bat ikusi zuen. Txoriak hanka puskatua zuen eta ezin zen mugitu. Bat-batean txoriak hanka batekin salto egin eta hegan egiten hasi zen. Horrek ideia bat piztu zuen Koldoren buruan. Koldok ezin zituen hankak erabili, baina bai eskuak. Koldo eskuekin altxatzen saiatu zen baina ezin zuen, orduan txoriak bezala egin zuen. Eskuekin salto egin eta aulkira igo zen.



O-BIZITZA

X-KOLDO

Egun hartatik aurrera, Koldo bere bizitza berak bizi behar zuela konturatu zen eta gauzak dena bakarrik egiten hasi zen. Bera zen bere bizitzaren jabe. Orain Koldo kirolari famatua bat da eta tenisera jokutzen du. Bizitza bakarra da eta zurea da. Zuk erabakitzen duzu, bizitzak zuri irabaztea edo zuk bizitzari. Koldok bizitzari irabazi zion eta zuk, ze egingo duzu?



Maite Fernandez Larruzea

DBH 2. maila

“Amestea bizitzea da”

AITONAREN IRRATI ZAHARRA

Arratsalde aspergarri bat zen. Iker eta biok Gernikako gazte-lekuan geunden, nire aiton-amonen etxera joateko proposatu nuen arte. Ganbarara igo eta jolasen baten bila hasi ginen. Kaxa asko mugitu eta gero bat-batean irrati kasete bat aurkitu genuen. Hautsez beterik zegoen, oso zaharra zen eta. Piztu egin genuen eta botoi biribil beltz horiek jotzen hasi ginen; baliteke horrela frekuentziaren bat hartuko genuela. Horrela izan zen. Frekuentzia bat hartu genuen, baina frekuentzia misteriotso bat. Hizkuntza Txinoa edo Japoniarra zen. Ikerrek irratiak esaten zuena grabatu zuen.

Hurrengo eguna heldu zen eta eskolarako bidean ideia bat bururatu zitzaidan. Behar bada eskolako umeren batek hizkuntza hori ezagutuko zuen. Atsedenaldea hasi zen; Ikerrekin, Iratirekin eta Markelekin nengoen. Gabonetan egindako gauzez hitz egiten hasi ginen. Iker eta biok batera pasatu genituen Gabonak, aldiz, Markelek gurasoekin eta aitona-amonekin. Iratik lehengusuekin pasatu zituen Gabonak. Horretaz hitz egiten geundela Iratik lehengusina txinatar bat zuela konturatu nintzen. Orduan Ikerrek eta biok Iratiri kontatu genion irratiarekin gertatutakoa eta laguntza eskatu genion ere. Eskola amaitu eta gero Iratiren lehengusinaren etxera joan ginen. Lehengusina Xiao deitzen zen, 6 urte zituen bakarrik. Begi marroi handiak zituen eta ile oso iluna. Soineko arrosa ederra zeraman eta eskuan lila koloreko erloju modernoa. Berarekin hitz egiten hasi ginen baina oso lotsatia zen:

- Kaixo, nire izena Luken da - esan nion.
- Eta nirea Iker- esan zion Ikerrek.
- Laguntza eskatzera etorri gara. Lagunduko ahal diguzu?
- Bai- esan zuen lotsaturik Xiaok.
- Bakarrik hitz hauek itzuli behar dituzu -esan zion Ikerrek ahots grabagailua ateratzen zegoen bitartean poltsikotik.

Xiaok oso maila altua zuen txinoa itzultzeko. Eta azkenik itzuli genuen. Hau esaten zuen audioak:

Urtarrilaren 25ean arrakasta izango dugu. Amerikar horiek hilko ditugu eta diruarekin geratuko gara. Banco de la Reserva Federal de San Franciskoko dirua lapurtuko dugu, Los Angeles-en. Eraso gaueko 3:30etan izango da eta jakinarazten dugu denetariko armak eraman beharko direla. 50.300.000\$ lapurtuko ditugu!

Harrituta geratu ginen denok. Txinatar frekuentzia sekretu bat aurkitu genuen! Baina arazo handi bat zegoen, Zer egin ahal genuen? Iratiri ideia bat bururatu zitzaion. Bere osabak frekuentzia hackea zezakeela komentatzen hasi zen eta horrela non grabatu zuten jakin ahalko genuen. Hurrengo eguna iritsi zen eta eskola amaitu eta gero Iratiren osabaren etxera abiatu ginen. Iñaki deitzen zen, oso gizon atsegina zen. Etxearen goiko pisuko gela txiki batean sartuta geunden. Ordenagailu, kable eta aparatu mordo zeuden mahaiaren gainean. Iñakik etxera joatea eskatu zigun, denbora luzea hartuko zion hackeatzea frekuentzia eta. Etxera heldu nintzenez oso pentsakor jarri nintzen; Nondik zetorren frekuentzia hura? Arazo larri eta arriskutsu batean geunden? Hilko gintuzten jakiten badute erasoaren sekretua dakigula? Azkenean lokartu egin nintzen. Goiza zen, janzten nenbilela pertsona misteriotsu bat ikusi nuen leihotik. Txinatarra zen, jaka marroi luzea zeraman eta alkandora zuri bat. Buruan kapela marroi bat zeraman jakearekin konbinatuta eta eskuan maleta beltz bat. Norbaiti itxaroten zebilela zirudien. Denbora bat pasatu eta gero furgoneta beltz bat Txinatarraren aurrean gelditu zen. Txinatarra furgonetara igo zen. Bat batean furgonetan sartzen zebilela hackearen barruko poltsikoan pistola bat ikusi nuen! Harriturik eta beldurturik neure buruari galdera bat egin nion: Erasotzaileak izango ote ziren?

Berandu nenbilen, eta korrika justu-justu heldu nintzen eskolara. Jolastordua heldu zen eta lagunei kontatu nien goizean gertatutakoa. Une berean Iratik esan zigun goizean bere osaba Iñakiri bisita bat egitera joan zela. Iñakik amaitu zuen lanarekin eta Iratiri esan zion nondik datorren frekuentzia. Iratik komentatu egin zigun. Ezinezkoa zen, Hanzhong, Txinatik zetorren! Orduan nik ikusitako gizon misteriotsua nor ote zen?

Egun horretatik aurrera eskola eta gero nire etxean batzen ginen Irati, Iker eta ni. Planak prestatzen hasi ginen Los Angeles salbatzeko erasoarengandik. Egunak eta egunak pasa plana ia prestatuta zegoen.

Azkenik eguna heldu zen, joateko eguna. Bai, Los Angeles-era abiatuko ginen eta Estatu Batuak arriskutik kenduko genuen. Irati Gernikan geratuko zen, gure gurasoei dena azaltzeko eta lasaitzeko. Hau da, Iker, Xiao, Iñaki eta ni bidaiatuko genuen. Iker tamaina txikikoa da eta eraikineko gasbideetatik sartu ahal da.

Xiaok, aldiz, kodigoak itzultzeko lagunduko digu eta Iñakik frekuentziak, gure artean komunikatzeko aparatuak... eraman eta hackeatuko ditu. Nire lana zailena izango da eta arriskutsuena!. Ni diru guztia gordetzen duten lekuan egongo naiz maskara batekin eta pistola batekin txinatarrak heldu arte.

Eguna iritsi zen, goizeko 5:30 ziren eta gurasoei mezu bat utzi nien sukaldean:

Kaixo ama eta aita:

Los Angeles-era noa Ikerrekin eta Iratiren osaba eta lehengusinarekin. Ondo egongo naiz, lasai egon. Iratik kontatuko dizue gertatutakoa. Promes egiten dizuet bueltatzen naizenean nitaz harro egongo zaretela.

Asko maite zaituztet,

Luken



Mezuan esandakoa ez zen dena egia, ez nekien etxera itzuliko nintzen bizirik baina gezurra esan behar nuen. Etxetik irten nintzen eta txinatar berdina ikusi nuen leku berberean.

Erritmoa azkartu nuen beldur nintzelako eta bat-batean ahots bat entzun nuen:

- Kaixo!
- Jo Iker, zelako sustoa!- esan nion.
- Zelako beldur aurpegia!- esan zuen barreka.
- Begiratu atzera eta jakingo duzu zergatik nagoen beldurtuta. -esan nion baxuan.
- Hori ez da zuk komentatu zenuen txinatarra?- galdetu zidan.
- Bai, goazen berandu goaz eta!

Seiak ziren eta Iñaki gure bila etorri zen kotxez. Bilbora abiatu ginen, aireportura. Nire lehen aldia zen hegazkinean bidaiatzen nuena. 14 aspergarri ordu izan ziren baina azkenik heldu ginen. Urtarrilaren 20-a zen eta oraindik erasorako 5 egun falta ziren. Orduan turismoa egin genuen Los Angeles-etik, ederra zen! Hotel batean pasatzen genuen gaua,

Banco de la Reserva Federal de San Francisco-tik hurbil. Oso ondo pasatu genuen baina eguna heldu zen. 23:00-ak ziren eta eraso 3:30 izango zen. Iñakik eraikinaren kamerak hackeatu zituen eta alarmak desaktibatu zituen. Eraikinaren gasbide batetik sartu zen Iker, walkie talkie bat zeraman eta kanpotik berarekin komunikatu ahal ginen. Sartu egin zen eta barrutik eraikinaren kanpoko ate txiki bat zabaldu zigun. Laurok sartu ginen eta segurtasun gizonak lo zeuden. Isilik dirua gordetzen zuten pisura igo ginen. Ate bat zegoen baina sartzeko kodeak behar ziren. Iñakiri bi ordu eraman zitzaion kodeak hackeatzea eta atea desblokeatzea. Azkenik sartu ginen. Pelikula bat ematen zuten. Gela diruz beterik zegoen! Ordu bat eta gutxi faltatzen zen Txinatarrak heltzeko eta ni gelaren barruan nengoen, pistolarekin. Iñaki, Iker eta Xiao ezkutatuta zeuden. Xiaok hitz batzuk itzuli zizkidan gero nik txinatarrekin komunikatzeko. Ahots batzuk entzun nituen. Irratian entzundako hizkuntza berdina zen.

Xiaok itzuli zizkidan esaldi batzuk entzun nituen. Dena zegoela desblokeatuta eta zabaldua esaten ari ziren. Bazekiten ez zaudela bakarrik. Orduan bat-batean atea ireki zuten eta nik etxe aurrean ikusitako txinatarra makurtzeko esaten ari zitzaidan ingelesez eta txinoz. Ni makurtu egin nintzen pistolarekin eskuan. Baina momentu beran «BOOM!» entzun nuen. Iker, Iñaki eta Xiao buruan jo zieten zartaginekin lau txinatar horiei! Lurrera erori ziren eta Ikerrek poliziari deitu zion. Azkenik poliziak eta Bankuan lan egiten zutenek eskerrak eman zizkiguten sari moduan 5.000\$ eman ziguten. Telebistako notizi guztietan agertu ginen eta gurasoak etxetik oso arto ikusi gintuzten.

Baina benetako saria etxera familiarekin salbu bueltatzea izan zen!



Garoa Oleaga Goikolea.

DBH 2.maila

"Izarren hautsa egun batean bilakatu zen bizigai"

(Mikel Laboa)

BEGIAK UMEL

Uda amaierako gau bat da, gau luze bat. Gaueko hamar eta erdiak dira eta izarrez betea dago zerua. Itsasoaren hotsa entzuten dut, olatuen hotsa. Hondarretan etzanda nago, zeruari begira. Denbora aurrera doa, eta izar gehiago ageri dira zeruan, ilargia mugitu egin da eta olatuak hurbilago entzuten ditut. Izarrek txundituta naute.

Haiei begira nagoela, gauza ugari pasatu zaizkit burutik. Pentsatu ahal duzu inoiz, izar bakoitza, galdutako arimen oroitzapena dela? Galdu ditugun denak han daudela, izarretan, guri begira. Galdera hura nire buruan pausatu bezain laster, galdutakoen oroitzapenak heldu zaizkit burura. Nik galdutakoen falta sumatu dut, haien gogoak. Irribarreak gogoratu ditut, beraiekin bizitako momentu zoragarriak, bazkariak eta elkarrekin eginiko barre algarak.



Konturatu gabe, malko bat, nire begitik masailera jaitsi da. Begiak umel nabari ditut, bihotza, txikituta. Izarrei begira jarraitu dut, ehunka izar daude zeruan, milaka. Milaka arimen oroitzapena, ezagunak eta ezezagunak. Gazte hil zirenak, eta nagusitan hildakoak, gerretan hil zirenak eta gaixo hildakoak, gosez hildakoak, eta baita istripuetan hildakoak. Irribarrea eta malkoa elkartu zaizkit aurpegian, beraien oroitzapenek, alaitu egin naute, baina berriz ezin ikusteak, begiak umel jartzen dizkit.

Nik eskailera erraldoi bat eraiki nahiko nuke, edo baita igogailu bat, eskaileretatik igo ezin dutenentzat, noizean behin, beraiek bisitatzera joateko. Izarretara igo, beraien irribarrea ikusi eta beraien ahotsa entzuteko. Beraiekin hizketan egoteko, eta barre algara batzuk botatzeko, hain ozenak, Gernikatik entzuten direnak. Familia berriz ere elkartzeko, arratsalde bat bakarrik bada ere,

Denok batera hitz egiteko. Oraingoan, nire begiek laino ilun bat dirudite, malkoak bata bestearen atzetik erortzen dira. Faltan botatzen ditut. Gaur gauean beraien besarkada bat behar dut, beraien irribarre bat. Errealitatera bueltatu naiz, izarren argitasunera. Hauek, inoiz baino dirdiratsuago nabari ditut. Gaueko hamabiak eta laurden dira, eta itsasoa are hurbilago entzuten dut. Oraingo honetan, ilargiari begira jarri ditut begiak, nor izan zitekeen pentsakor. Izar guztien erregina, edo alegia, beraien gidaria. Neskato bat imajinatu dut, Lira, bere koroa buruan duela, eta soineko zuri bat soinean. Ile zuria du, elurra bezain zuria, eta makila bat eskuetan. Bere atzetik dabilza izar guztiak, munduari bira eta bira. Zerbait esan behar didala sentitzen dut. Begiak itxi ditut eta bera irudikatu dut. Oraingoan, oso hurbil ageri da, eta irribarre batekin agertu nau. Jarraian, zerbait esan dit, eta erantzuteko denborarik utzi gabe, desagertu egin da, betirako, izar bihurtu izan balitz bezala. Bere sekretua kontatu dit, sekretu handiena, inoiz imajinatuko ez nuena: Ez zara konturatu, izar batzuk beste batzuk baino dirdiratsuagoak direla? Berak esandakoaren arabera, bakoitzak desberdin ikusten ditugu.

Nik dirdiratsuen ikusten ditudan izarrak, nik galdutakoenak direla esan dit, nire senideak, nire oroitzapenetakoak, han daude, niri seinale bat bidali nahian. Zuk ordea, nik dirdiratsu ikusten ditudan izarrak, ez dituzu dirdiratsu ikusten, edo agian bai eta urruneko familia gara. Irribarre bat agertu zait, irribarre iraunkor bat. Inoiz ere ez nuen pentsatuko beraiek zirela, ez nuen imajinatu ere egingo, baina orain badakit, badakit han daudela, gauero. Begiak ireki ditut eta dirdiratsuenak bilatzen hasi naiz. Aurkitu ditut, han daude. Beraiei begira nagoela, bihotza arraro sentitu dut, urteetan sentitu izan dudana hutsunea joan egin da. Izarretatik besarkada xamur bat bidali didatela sentitzen dut, besarkada epel bat. Zerura begira jarraitu dut, denbora luzez. Bat-batean, aitite sentitu dut, bere irudia etorri zait burura, bere irribarrea, eta bai, beste malko batzuk erori zaizkit masailetatik behera. Aititeri irribarrez aritu naiz denbora franko, negar batean, baina halako batean, izarretan barrena galdu da. Hurrengo batera arte!

Beste izar batean jarri ditut begiak, izar dirdiratsu batean, eta minutuak igaro ondoren, nire izeko igarri dut. Beti bezain eder dago, irribarre berberarekin. Bere ile zuria, betaurreko beltzak eta laneko amantal zuria soinean daramatza. Musu bat bidali dit eta nik gustura jaso dut, baina bidali bezain laster, desagertu egin da. Zaparrada itzela nabari dut nire begietatik behera, baina malkoak lehortu eta irribarre batekin agertu naiz nire izeko maiteaz. Benetako irribarrez, bihotzetik ateratzen diren irribarreetako batekin.

Azkenik, nire amama sentitu dut, ezagutu ez nuen amama. Liluratuta utzi nau, aho zabalik. Oso alai ikusten dut, argazkietan baino ederrago. Berak, irribarre egin dit eta besarkada bat sentitu dut, berak emandako lehen besarkada. Eskuaz agur esan dit eta izarretan barrena abiatu da, ikusezin bihurtu arte.

Orain badakit, badakit ez ditugula galdu, badakit han daudela, gauero-gauero. Irribarre bat bidali dut zerurantz, beraiantz, ez ditudala ahaztu ohar daitezen.

“Izarrak ari dira ari dira geuri begiratzen
Izarrak ari dira ari dira geuri begiratzen
Zure begien dirdirak hain dira nireak
Zure begien dirdirak neuretzat eginak
Zugan zugar, zeure gogoan, zuri so”

Gontzal Mendibil. *“Dir dir dir (izarren konexioan)”*



Naroa Robledo

DBH 2. Maila

“Kirola maite dut”

AITA

Aizu, etorri ona!— esan zidan dendako gizonak. Nik alde egin nuen ogia nire eskuetan hartuta. Garai hartan txiroak ginen eta nire ama gaizo zegoen eta nire aita lan desegoki bat zeukan. Nik lapurretak egiten nituen. Korrika nenbilen bitartean atzera begiratu nuen, gizon handia desagertu egin zen eta etxerako bidea hartu nuen. Nire etxea txabola zahar bat zen, heldu nintzenean janaria prestatu nuen, mahaia jarri, etxea garbitu eta aita itzuli baino lehen etxeko lan guztiak eginda nituen. Bat batean atean KLAk KLAk KLAk entzun nuen. Atea ireki eta aita ez zela nabarmendu nuen berehala.

Nor zara zu?— galdetu nion. Zure aitaren lagun-mina naiz eta errekadu bat ematen etorri naiz. —esan zidan bere begietatik euri tantak erortzen ziren bitartean. Zure aita... hilda dago.—jakinarazi zidan. Berehala atea zarratu nuen eta amarengana hurbildu nintzen. Ez nion ezer esan oso txarto zegoelako eta aita ez zegoela esango banio txarrago jarriko zen.

Hurrengo egunean, berriz, lapurretara joan nintzen dendara baina ogia eskuetan nuela norbaitek besotik obatu zidan, dendaria zen! Etorri hona, oraingoan ez duzu alde egingo neska! —oihukatu zidan. Ez! — Begiratu nion nik aurpegira eta ogiarekin buruan eman nion. Kolpearen minez eskuak buruan jarri zituen eta korrika ihes egin nuen. Oraingoan dendariak korrika jarraitu zidan, zelaitik korrika nenbilen bitartean atzera begiratu eta KRAS! zulo batera erori nintzen eta buruarekin arroka bat jo nuen.

Itzartu nintzenean erreka alboan nengoen baina nire herrian ez zegoen errekarik. Non kristo nago...-pentsatu nuen. Ingurua begiratu nuen eta zelai handi eta polit bat zegoen. Urrunean gazte batzuk ikusi nituen eta haiengana hurbildu nintzen. Nor zara zu? — galdetu zidaten. Ni, Alicia Hunky naiz.— esan nuen. Benetan? — denak begiratu ziren

elkar. —Hunky? da zure bigarren izena?—. Bai —esan nuen. Gu ere Hunky gara.—esan zuen handienak.

Etxera bueltatzea erabaki zuten eta nik jarraitu egin nien. Liluratuta geratu nintzen haien aita nirea bezalakoa zen! “Alicia!”, esan zuen jainkoari eskerrak eman ez. “Aita!”, esan nuen nik pozaren pozez. Elkar besarkatu ginen, ondo nengoela esan nion eta berak eskutik eutsi zidan. “Etorri nirekin” esan zidan eta buelta bat ematera joan ginen.

Etxe erraldoi batera heldu ginen. Hau nire etxea da.—esan zidan. Harrituta geratu nintzen. Ze polita...—esan nuen. Barrura joan ginen eta mahai erraldoi batean eseri ginen. Nola heldu zara ona? —galdetu nion. Ni lanean nenbilen bitartean meategiko buruak dinamita jartzea agindu zidan. Dinamita jartzen nengoen bitartean piztu egin ziren eta izugarritzko eztanda egon zen. Eztandan harriak erori ziren eta batek buruan jo zidan ondoren erreka bazterrean agertu nintzen. —azaldu zidan eta nik niri gertatutakoa azaldu nion. Gauak harrapatu gintuen eta bihar jarraitzea erabaki genuen.

Egunak igaro ziren, lakura joan ginen eta bat batean BUM! entzun zen. Zer izan da hori? —galdetu nion. BUM! Hori entzuten den bakoitzean erreka aldean pertsona bat agertzen da. —esan zidan aitak. Errekaldera joan ginen baina ez zen inor agertu. Alicia!!! —entzun nuen. Ama? —pentsatu nuen. Buelta eman nion nire buruari poztasuna aurpegian itsatsita nuen bitartean, baina buelta eman eta ama ez zela konturatu nintzen. Aurpegia guztiz aldatu zitzaidan, aitaren lagun mina zen.

Zelan dago ama. —galdetu nion, baina ez zidan kasurik egin. Aitarengana hurbildu zen eta txutxu-mutxuka hasi ziren. Haien alboan arbola handi bat zegoen eta banekien txarto egongo zela arbolara hurbiltzen banintzen eta hizketan zeudena entzutea, baina bost axola. Orduan arbolara hurbildu nintzen, isil isilik. Harrapatu dizu edo oraindik bere aita zarela uzten du? —esan zuen. Ez nau harrapatu baina ez badiogu informazioa ateratzen laster harrapatuko gaitu.— esan zuen aitak. Ez nuen sinesten, ez zen nire aita. Haiengandik urrundu nintzen eta etxera joan nintzen, motxila baten beharrezkoa sartu nuen eta alde egin nuen.

Gaua arbola baten babesean igaro nuen, zerbait jan eta izarrak begiratzen nituen bitartean, “Non dago aita?”, “nor kristo zen gizon hori?”, “ze informazio behar du?” galderak egiten nituen, baina ez nituen erantzunak jasotzen. Negar malkoak erortze ziren nire begietatik, ez nekien zer egin, nora joan... galduta eta bakarrik nengoen mundu arraro batean. “!Non zaude AMA?” galdetu nion izar bati. Negar malkoak eskuarekin sikatu nituen; “zergatik niri! Zer egin dut!” garrasika egin nion aireari. Begiak nekez, zarratu egin ziren eta argiak amatatu nituen.

Txoriak kanta kantari hari ziren, begiak gorrituta nituen, motxila hartu eta bide bat hasi nuen. Halako batean tximeleta bat agertu zen eta nire inguruan bueltak ematen hasi zen. —Kaixo txikitxo.— esan nion eta

eskua luzatu nuen. Nire eskuan jarri zen. Ahhhh! izugarritzko mina egin zidan. Zer demontre? –pentsatu nuen. Jertsearen manga igo nuen, liluratuta geratu nintzen. Besoan tatuaje bat nuen. Alicia etorri. -esan zidan norbaitek. Hankak mugimenduan hasi ziren, ez nekien zergatik, baina norabide zehatz batean zihoazen.

Kobazulo batera heldu nintzen. Barruan txabola zahar bat zegoen. Nire hankak gelditu egin ziren eta txabolako atea ireki egin zen. Ez nekien zer egin. Txabola barrura sartu eta atea berehala itxi zen, barruan emakume bat zegoen, eskua luzatu zuen eta hark ere eskuan nire bezalako tatuajea zuen. “Alicia, ongi etorri Slimara, toki honetan zure fakzioko jendea dago eta hemen babestuta egongo zara”, esan zidan. “Ahhh! eta beste gauza bat, norbaitek ikusi nahi zaitu”, gehitu zuen. Bat batean ama agertu zen itzalen artean eta berarekin batera jende mordoa. “AMA!!!”, oihukatu nuen. “Alicia!”, esan zuen amak eta elkar besarkatu ginen. “Etorri dena azalduko dizut eta”, esan zidan. Ama etxe baten barruan sartu zen eta nik jarraitu egin nion. Bi fakzio daude Slimanak eta Kusaxak, biak gerran daude eta gu Slimak gara. Aita da Slimen nagusia baina Kusaxek koba baten dute preso. “Zoritxarrez aita da gerra hau amaitu ahal duen bakarra baina haien eskuetan badago oso arriskutsua izan daiteke”, azaldu zidan. “Zu zara aita salbatu ahal duen bakarra”, jarraitu zuen. “Baina nola?”, galdetu nion. Hori zuk asmatu behar duzu, nik ezin dizut esan, jbbakinarazi zidan.

Gau hartan, prestatu egin nintzen eta espata eskuan nuela aitaren bila aritu nintzen. Amak esan zidana egin nuen eta Kusaxen kobarantz abiatu nintzen. Hara heldu nintzenean hiruzpalau soldadu zeuden kobazuloaren atea babesten. Denekin bukatu ostean koba barrurantz joan nintzen. “Ene bada! Aita!” esan nion nire buruari. Sakrifizio bat egiten zeuden eta aita sakrifikatu nahi zuten, baina aita zegoen tokiraino iristeko kobazulo barruan zegoen herri guztia pasatu beharko nuen. Herri guztia soldaduz beteta zegoen eta aldarera heltzea ez zen batere erraza izango.

Jendea garrasika hasi zen eta musika gero eta gogorrago jotzen zuten. Etxe batetik aita faltsua irten zen eta espata bat zeraman eskuan. “Gizon ziztrina”, pentsatu nuen. Baina ez nuen denbora askorik eta teilatuen gainetik heldu nintzen aita faltsua irten zen etxeko teilaturaino. Ezpata altxatu zuen nire aitaren aurrean. Hemen dago, gure aurrean, Slimen burua eta bakea jarri ahal duen pertsona bakarra. Kondairak dio gizon hari ezpata bihotzean sartuz gero bakea amaituko dela! esan zuen.

Ezpata eskuan hartuz, “Ez!” oihukatu nuen. Denak begiratu zidaten. “Harrapatu!” esan zuen Kusaxen buruak. Hiru batera etorri ziren nire bila eta batek begi azpian zauri bat egin zidan. Odoletan nengoen baina aurkako gehiago zetozen. Hirurak hil nituen baina beste hiru hurbildu ziren niregana. Zast! Eskuan beste zauri bat egin zidaten. Konturatu nintzenerako inguratuta nengoen. “Ahhh!”, beste Kusax batek lepoa zauritu zidan. Lurra odolez beteta zegoen eta ni ezin nintzen ongi mugitu oso zaurituta nengoelako, baina borrokatzen jarraitu nuen. Denak

hil nituen, baina Kusaxen burua eta aita faltsua falta ziren, herritarrak alde egin zuten. Aita faltsuak aitari ezpata bihotzean sartu zion. “Ez! Aita”, esan nuen. “Harengana hurbildu eta zeu zara, boterea duzu”, esan zidan. Malkoak hartuta zeuden bitartean. “ Aita, lasai hemendik alde egingo dugu, biok batera, ama itxaroten diagu”, esan nion asken esfortzua eginez. “Zaindu Slimar guztiak, orain zeu zara haien burua”, izan ziren bere azken hitzak. Eskutik heldu nion. “Bai Aita”, esan nion. Eskua askatu nion “Ahhhhh!” garrasi egin nion munduari. Aita faltsua nire aurrean nuela, odol gehiegi galdu nuen, ez nituen indarrak zutik mantentzeko eta makurtu egin nintzen. Begiratu egin nion, begietan urre kolorea jarri zitzaidan eta bat batean zutik jarri nintzen, ezpata hartu eta bihotzean sartu nion. Ondoren amarengana eramane ninduten eta amak hurrengo esan zidan. Zu zara bakea ekarri ahal duen pertsona bakarra.



Orain, Slimen burua naiz, lehoiak eta biok herria babesten dugu eta munduan bakea berrezarri dugu aitak esan zidana betetzen.



Amale Lavin Elgezabal

DBH 2. maila

“Betidanik gustatu izan zait idaztea”

BAT ERE EZ GEHIAGO!

Egia esan, nire bizitza ez da izan erraza, baina nire amarena are gutxiago.

Dena hasi zen neska gazte bat bera baino urte batzuk nagusiagoa zen mutil batekin maitemindu zenean. Neska hura Maddi deitzen zen. Bera 23 urteko neska liluragarria zen, ile horia, begi berdeak eta ezpain oso lodiak zituena. Izaeraz jakintsua zen eta beti nota oso onak ateratzen zituen. Bere gurasoekin eta bere bi ahizpekin, 18 eta 15 urtekoekin, bizi zen. Oso ondo eramaten zen beraiekin, nahiz eta batzuetan eztabaidak izan. Hori ez zen arraroa, oso desberdinak ziren eta. Amaiak, hiruretatik gazteenak, ez zuen lotsarik, oso berbatia zen eta oso burugogorra ere bai. Naroa, erdikoa, guztiz kontrakoa zen, oso isila eta lotsatia. Horregatik, Maddi beti zegoen bien eztabaiden erdian eta bera zen aukeratu behar zuena nork zuen arrazoia.



Maddik lagun asko zituen, neska zein mutilak eta denekin oso ondo konpontzen zen. Bakoitza unibertitate desberdin batean zegoen eta lehenengo urteetan zaila egin zitzaien beraien harremana mantentzea. Baina urteekin, eta esperientziekin asko sendotu zuten harremana eta inoiz baino hobeto zeuden.

Emakumeak pasio handi bat zuen: idaztea. Dena idazten zuen, koaderno urdin bat zuen horretarako eta ez zion inori ikusten uzten.

Bertan, egunean zehar gertatzen zitzaizkion gauzak idazten zituen, bere buruan gertatzen ziren gauzak, bere sekretuak...

Gaztea, liluragarria eta jakintsua zen arren, sekula ez zuen izan bikoterik, baina hori aldatzear zegoen unibertsitateko azken ikasturtean.

Berarekin batera kazetaritza ikasketak egiten zegoen Xabat izeneko mutil batekin maitemindu zen, proiektu bat batera egitea suertatu zitzaien eta hizketan denbora luzez egon ondoren, oso lagun egin ziren.

Proiektua amaitzerakoan ere, hitz egiten jarraitu zuten, ia egunero hitz egiten zuten. Denbora librean elkarrekin pasatzen zuten; batean zinemara, bestean ikasten, kafe bat hartzen...Eta azkenean elkar maitemindu ziren. Holako egun batean, Xabatek bere neska-laguna izan nahi bazuen galdetu zion eta Maddik inoiz baino pozago baietz erantzun zion. Hortik aurrera banaezinak egin ziren. Unibertsitatea amaitzerakoan batera bizitzera joan ziren eta beraien etxea ordaintzeko lana bilatzen hasi ziren.

Xabati egunkari batetik eskaintza bat egin zioten eta zalantzarik gabe momentuan onartu zuen. Maddik, berriz, ez zuen inolako lanposturik aurkitzen, nahiz eta Xabaten ikasketa berdina izan. Beraien artean gauzak oso bizkor gertatzen ari ziren, izan ere, Xabatek berarekin ezkontzeko eskatu zion elkarrekin bizitzera joan eta denbora gutxira. Abenduak 10ean ezkondu ziren.

Horren ostean, gauzak aldatzen hasi ziren. Maddi lagunekin gutxiago irteten hasi zen Xabatek beti egiten zituelako planak beraiantzat biantzat bakarrik. Gainera, lagunekin ateratzen zenean, mutilekin ez egoten saiatzen zen, bere senarra jelskor ez jartzeko. Janzkera ere aldatu zuen, jada ez zituen gonak erabiltzen edo janztekotan ere, oso luzeak. Kamiseta laburrak ere ez zituen erabiltzen, tripa ez erakusteko. Hori dena Xabatengatik egiten zuen, bere senarra pozik izateko eta berarekin ez haserretzeko. Maddik hori ondo zegoela pentsatzen zuen, Xabatek hala ziolako, eta bere senarrak zioen guztia betetzen zuelako. Neskak aurretik ez zuenez bikoterik izan, harreman guztiak horrelakoak zirela sinistuta zegoen.

Denborarekin bere lagunak konturatzen hasi ziren eta esan egin zioten, baina Maddik txarrera hartu zuen eta beraiengandik guztiz urrundu zen.

Maddik ordu asko ematen zituen etxean bakarrik, gehienetan denbora idazten pasatzen zuen, baina askotan esaten zion bere senarrari lan bat bilatu nahi zuela. Honek, ezetz esaten zion, hobe zuela etxeaz arduratzea eta laster ume bat izango zutela esanez lana bilatzeko ideia burutik kentzen zion.

Eta horrela izan zen, denbora gutxira ni jaiotzen, June, Xabaten eta Maddiren alaba.

Nire etorrerak amaren bizitzara poztasun izpi bat ekarri bazuen ere urteekin konturatu nintzen nire ama ez zela zoriontsu. Banituen hori pentsatzeko arrazoiak: sarritan entzuten nuen nire aita amari garrasika, amak denbora asko pasatzen zuen etxean bakarrik, ez zuen lagunik, bere ahizpekin edukitako harremana hoztuz joan zen eta ahizpak saiatu arren amak askotan beraien planei ezetz esaten zien....

Nik nire aitarekin nuen harremana txarra izan ez arren, izan ere, ez nuelako askotan ikusten, denbora gehiena lanean pasatzen zuelako, banekien nire ama berarekin ez zegoela ondo.

Askok maite nuen nire aita eta horregatik ez nuen ulertzen zergatik egiten zizkion horrelako gauzak, artean oso gaztea nintzen, baina are gutxiago egun batean gertatu zena.

Aipatu dudak bezala, nire aitak garrasi egiten zion, ez zion lagunekin irteten uzten, baina 15 urte nituela, institutura joateko prestatzen nengoela, garrasi batzuk entzun nituen, inoiz baino ozenago. Oraingoan ez zen entzuten bakarrik nire aitaren ahotsa, nire amarena ere bai, baina bera sufritzen zegoela ematen zuen. Ni, oso beldurtuta, nire gelatik irten eta zer gertatzen zen ikustera joan nintzen. Nire amak aurpegi guztia more zeukan eta ikusi ninduenean, zarataka hasi zitzaidan, alde egiteko esanez. Nire aita ama jotzen zegoen, eta nik hori ezin nuen onartu, berdin zitzaidan amak zer esaten zidan, nire aitari aurre egin nion.

Nire aitak ez zuen espero eta ez zen ausartu ni jotzen. Ikusi nuena ahanzteko esan zidan, txarto zegoela eta ez zela berriro gertatuko. Ondoren, bere poltsa hartu eta lanera joan zen. Nik ez nion sinetsi, behin joteko kapaza izan bazen, jakin nuen gehiagotan egiteko ere bazela.

Lanean zegoela aprobetxatuz, ahalik eta bizkorren bi maleta hartu nituen eta nire eta amaren arropak gorde nituen bertan. Horretan nengoen bitartean, nire amaren gauzen artean koaderno bat topatu nuen pila bat gauza idatzita zituena eta badaezpada maletara sartu nuen. Etxe horretan pasatu genuen azken eguna izan zen. Nire amarekin batera alde egin nuen etxetik. Hasieran ez zuela alde egin nahi esan zidan, berak aita maite zuela eta ez ziola berriro joko baina, nik hori gezurra zela erantzun nion eta konbentzitu egin nuen azkenean alde egiteko.

Amara bere ahizparen etxera joan ginen, hurren bizi den pertsona zelako, eta aita ikusteko aukera gutxiago edukiko genituelako. Dena azaldu genion, oraindik urduritasuna kendu barik geneukan, eta berak nahi genuen denbora gelditu ahal ginela esan zigun.

Hurrengo egunetan, nire amaren gelatik hartu nuen koadernoan irakurtzen egon nintzen, bere egunerokoa zen, eta bertan aitak egunero egiten zizkion gauzak idazten zituen, inork ikusi gabe egiten zizkionak. Dena irakurtzen amaitu nuenean nire amari argitaletxe batera bidaliko nuela esan nion. Hasieran debekatu egin zidan, hori oso pribatua zela esanez baina, nik azaldu nion liburu hori argitaratuko balitz, bere egoera berdinean dauden emakumeentzat oso baliagarria litzatekeela, maitasunaren ideia okerrekin ez itsutzeko.

Amak arrazoiak eman zidan eta segituan bialdu nuen argitaletxera. Sei hilabete barru argitaratu zen eta oso kritika onak izan zituen, emakume askok esan ziguten beraiei ere lagundu zieten liburuak.

Egia esan ez dakit zer gertatu zen nire aitarekin, harreman guztia galdu dut berarekin, baina ez dut faltan botatzen, izan ere, ez nintzelako berarekin egoten. Gainera, orain nire ama zoriontsu dago, barre egiten ikusten dut, eta bere lagunekin harremana berreskuratzen dago.

Orain bizitza berri bat hasi dugu, askoz ere hobea. Denok zoriontsu eta libre izateko eskubidea dugulako!!!



Denis Gurei
DBH 3. maila

“Denis naiz eta saskibaloia dut gustuko”

DOWNHILL: BESTE DIMENTSIO BAT

Bazen behin Neo deituriko mutil bat. Neok, 14 urte zituen eta Downhillen bizi zen, Californiako herri txiki batean. Hark, begi urdinak zituen, itsasoa bezalakoak, eta ilea, zuhaitz baten enborra bezain marroiak. Oso altua zen, eta nahiko argala. Downhilleko Richard Institutuan ikasten zuen eta DBHko 3. mailan zegoen. Izan ere, oso ondo ikasten zuen, bederatziak eta hamarrek soilik jasotzen zituen. Oso adimentsua zen, baina, lagunak egiterakoan edo bere adineko nerabeekin harremanetan jarreitakoan, oso lotsatia. Horregatik, hiru lagun zituen bakarrik: Michael, Sara eta Stuart.

Michael Neoren lagunik onena zen. Txikitatik elkar ezagutzen zuten, haien amek oso lagun onak zirelako; izan ere, egun guztietan haiek biak eskolaren ondoan dagoen parkera joaten ziren, eta orduz jolasten zuten, haien amek Jack O’Collonel tabernan muztio bat hartzen zuten bitartean. Michale, Neo baino apur bat txikiago zen, eta ilehoria zen. Horren ondorioz, institutuan “Urrezko kizkurrak” esaten zioten. Hura ere adimentsua zen, baina ez Neo bezain beste; bederatziak eta zortziak jasotzen baitzituen. Bateria jotzeko zaletasun handia zuen, eta horregatik, Neok gitarra elektrikoa jotzen zuenez, astelehen guztietan geratzen ziren Michaelen etxean bi instrumentuak jotzeko, talde batean zeudela imajinatuz.

Bestalde, Sara zegoen, oso ederra zena. Ilea laranja zuen, hau da, ilegorria zen, eta tonu argiko begi urdinak zituen, berde pixka batekin nahasita. Ez zen hain altua, eta ez zen ez argala ez gizona; oreka “perfektu” bat zuen. Egoera-fisiko hori zeukan ariketa fisiko asko egiten zuelako; izan ere, saskibaloiko eta boleiboleko talde batean jokatu egin zuen (saskibaloiko taldean, bi urtez jokatu zuen, eta boleiboleko taldean, aldiz, urte batez) eta “mini-maratoietan” parte hartu zuen.

Kirola gustuko izateaz gain, pintatzea era gustatzen zitzaion. Horregatik, udaletxearen alboan zegoen pinturako eskolan apuntatu zuten haren guasoek, non, hain zuzen ere, Neo ezagutu zuen. Zenbaitetan Neorekin elkartzekoa zen parkera joateko, han aurkitzen zituzten paisaia natural ederrak marrazteko haien plastikako koadernoetan.

Azkenik, Stuart zegoen. Stuart oso mutil bitxia zen; literatura asko gustatzen zitzaion, eta bere aitak ekartzen zuen marmolarekin eskultura txikiak egiteko zaletasuna zuen (haren aitak mineral horretako kabi batean lan egiten zuen). Izan ere, asteazken guztietan etxeko garajera joaten zen eta hainbat motatako “mini-eskulturak” egiten zituen: animaliak, pertsonak, paisaiak... lagun talde honetako gazteena zen. Ile laburra eta beltza zuen, eta tonu argiko begi marroiak zituen, udazkeneko hostoak bezala. Nahiko nota onak ateratzen zituen eskolan; zortziak, eta zenbaitetan, bederatziak, hain zuzen ere.

Ostiral batean, klase ostean, Neo eta beste hirurak, bakoitzak bere bizikleta hartu eta herriko merkataritza-guneko bolatokira joan ziren. Ailegatu zirenean bakoitzak bere oinaren tamaina zuten jolasteko zapatilak eskatu zituen. Horren ostean lekua eta freskagarri batzuk hartu eta berehala jolasten hasi ziren. Txanda guztiak honela zihoazen: Stuart hazten zen; gero, Sara zihoan; ostean, Neo, eta azkenik, Michael. Logikoki zenez, Sarak irabazi zuen lehenengoko txanda, taldeko lagunik lehiakorrena eta kirolariena zelako. Txanda ura amaitu zenean, Michaellek esan zuen:

- Barkatu lagunak, komunera joan behar dut.
- Itxaron - esan zuen Neok, Michael komunera joaten zen ahala - Ni ere joan behar naiz, pixa egiteko gogoak ditut eta.
- Ez duzu zertan esan behar zertarako joaten zaren komunera - esan zuen Sarak, nazka adierazten zuen aurpegiarekin. - A zelako txerria!

Stuartek eta Sarak jesarri eta edari bat hartu zuten. Beste biek, aldiz, barre egin zuten eta komunera joan ziren. Haien beharrak ase zituztenean soinu berezi bat entzun zuten. Komunikatzen atera ziren, eskuak garbitu barik, eta ezin zuten sinetsi ikusi egin zutena. Portale bat zen! Forma espirala zuen, eta hainbat kolore zituen, segundo batetik bestera posizioz aldatzen zirenak. Bizirik zegoela ematen zuen. Hura ukitzerakoan, plasmaz edo antzeko material batez eginda zegoela ondorioztatu zuten, eta, guzti hori aztertuz, jakingura jakin gura gehiegirekin eta beldurrik gabe portalera sartu ziren inork ikusi gabe.

Portalera sartu zirenean argiaren abiadurara bidaiatzen zeudela sentitu zuten, eta haien gorputzak deformatzen hasi ziren. Baina, segundo bat igaro ondoren, haien gorputzak jatorrizko egoerara itzuli ziren eta lurra zapaldu zuten lehenengo aldiz. Haien begiek ezin zuten sinetsi ikusten ari zinera: hegan egiten zuten autoak, patinete hegalariak, pertsonak hologramen bidez komunikatzen, eraikinen arkitektura futurista... Orduan, bat-batean, Michaellek garrasi egin zuen:

- Etorkizunean gaude!
- Ez egin oihukarik! - esan zion Neok. Ez dut uste etorkizunean gaudenik.
- Zergatik?- galdetu zion Michaelek, tonu triste batean.
- Ikusten al duzu hango kartelean zer jartzen duen?- galdetu zion Neok.
- Downhill. Biztanle kopurua: 15.768. Data: 29/05/2019.- irakurri zuen Michaelek ozenki.
- Zer? Portalera sartu garen data berean gaude. Ez gaude etorkizunean? Zer?- oso nahastuta zegoen Neoren lagunik onena.
- Inoiz entzun al duzu multibertsoen teoria? Beno, ez dakit zertarako galdetzen dizudan, badakit ez duzula inoiz entzun.
- Jarraitu azalpenarekin, andereño- esan zuen Michaelek, tonu irriarri batekin.
- Teoria honek dio ainbat unibertso existitzen direla, eta haiekin batera hainbat errealitate. Unibertso batean, enpresa famatu bateko enpresaburu aberats bat izan ninteke, baina, beste errealitate batean, sua botatzen duen dolar bat izan naiteke.
- Bada, beste unibertso bateko Downhileen gaudela esaten ari zara?- galdetu zuen Michaelek, ilusioz.
- Bai, horixe!
- Orduan joan gaitezen gure bikoitzak bisitatzera, Downhill nola aldatu den ikustera...- proposatu zuen Michaelek.
- Ez. Ezin dugu gure bikoitzak bisitatu, ezta inork ere ezin gaitu ikusi. Aitzitik, norbaitek ikusiko bagintu unibertso honetako errealitatea aldatuko genuke - azaldu zion Neok.
- Goazen portalera eta eman dezagun ez dugula ezer ikusi. Baina buelta ematerakoan ez zegoen portalik.

Biak ikaratu egin ziren eta ez zekiten zer egin. Bat-batean, polizia bat hurbildu zitzairen eta ea ondo zeuden galdetzeko. Haiek ez zuten ezer erantzun, beraz, poliziak polizia-auto hegalarira sartu eta Downhilleko polizia-etxera eramán zituen. Herri osoa ikusi zuten bidaiari, eta ederra zen, deskribaezina. Komisariara ailegatu zirenean gela berezi batera (aulki flotagarriak zituenak) joan ziren, eta detektibe batek galdezka hasi zitzairen:

- Nortzuk zarete? Nondik zatozte?- Ez zuten ezer erantzun, beldurraren ondorioz.
- Ez dugu minik edo kalterik egin nahi; bakarrik jakin nahi dugu nortzuk zareten eta nondik zatozten, arratzak zaretelea konturatu egin baikara - esan zuen detektibeak.

Orduan, Michaelek, egoera ezin zuelako gehiagorik jasan, konpentsatu egin zuen:

- Michael, Stuart eta Neo Wellington gara, eta beste errealitate bateko Downhilletik gatoz.

Detektibeak ez zuen hasieran ezer ulertu, baina gero, Neok astiro-astiro azaldu egin zion portal bat sartu zirela eta unibertso edo errealitate batetik bestera bidaiatu egin zutela. Teoria hori indartzeko Downhilleko erregistroan 14 urte eta izen eta ezaugarri-fisiko berberak zituzten bi

gazte bilatzeko eskatu zion detektibeari, minutu batzuk pasatuz gero, konfirmatu egin zuen errealitate honetan Neo Wellington eta Michael Stark bizi zirela, ezaugarri berberak zituztenak.

Hori ikusi eta berehala detektibeak John Stani, 62 urteko zientzialariari deitu zion, eta gertatu zen guztia kontatu zion. John begien itxi-ireki batean etorri zen eta bi gazteak ikusitakoan honako hau esan zuen:

- Ezin dut sinetsi! Oraindik jendea beste unibertsoetara bidali dugu soilik, eta ezin izan dugu itzuli, baina, orain jendea ekar dezakegu ere gure unibertsoa! Badakizu zenbat gauza aurrera daitezkeen!? Badakizu!? - saltoka hasi zen kontrolik gabe.

- Orduan, zuk izan zara portala ireki duena?- galdetu zuen Neok.

- Bai horixe!

- Baina, ez dugu unibertso honetako errealitatea aldatuko?- galdetu zuen berriro gazteak.

- Ez, teoria hura tontakeria hutsa da; duela pare bat urte ezeztatu zen. Izan ere, 2005ean Denis Barbulescu zientzialari errumaniarrak frogatu egin zuen...

- Bai, bai, zuk esaten duzuna. Ea, egin portalaren gauza arraro hori- esan zion detektibeak gogaikarri.

- Ah, bai. Nire protoietako kanoia; traste honek etxera eramango zaituzte.

- Bai, mesedez- esan zuten bi gazteek etsita.

Horrenbestez, zientzialariek botoia sakatu eta portale bat ireki zuen gelaren horman; bolatokian ikusi zuten portale bera zen. Eskerrak eman eta portalera sartu ziren.

Azkenean, komunean agertu ziren, prozesu arraro osoa esperimentatuz gero, eta bolatokian Stuart eta Sara zeuden lekura bueltatu ziren. Han bankuan jesarri eta freskagarri bat hartu zuten. Sarak, arin etorri zirela esan zien. Biak elkarri begiratu zioten, eta barrezka hasi ziren.



Estibaliz Basterretxea Alvarez
DBH 3. maila

“Adiskide onekin, orduak labur”

GERATUKO NAIZ ALA EZ?

- Eta zaila da orain, gauaren itzaletan... Begiak itxi eta, ondoan esnatzea...- abesten du Maitanek autoaren bolantea eskumarantz jiratzen duen bitartean.

- Maitane, ez abestu gehiago mesedez...- esaten dio Ziharak nekatuta. - Bestela bihar euria egingo du!- Maitaneri besoan kolpe suabea eman ez. Denak hasi gara barrezka.

Asteburuko zubia ustiatzeko asmoz, Maitanek, Ziharak eta nik Donostira joatea erabaki dugu. Negua dela nabari daiteke; elurrak mendiak estaltzen ditu eta zerutik kotoi zuriak erortzen ari dira. Autoaren leihatilaren kontra jarri dut aurpegia. Hotz dago, seguruenik kanpoko tenperatura 3°C-koa da. Autotik irten nahi dut, Maitanek duen aire-freskagarria gozoezia da eta nire sudur-hobietaz jabetzen da. Nire burua biraka ari da, azkenean buruko mina sorrarazteko beste. Begiak zarratuko ditut ia horrela hoherantz egiten dudana, baina ez, ez du funtzionatzen eta pixkanaka-pixkanaka egoera okerragotzen doa.

- Izaro, ondo zaude? Bidaia osoan ez duzu ezer esan eta- galdetzen du Ziharak, arduratsu.

- Ba ez, ez nago ondo. Zorabiatuta nago- erantzuten dio Ziharak, begiratu gabe.

- Nahi duzu autoa gelditzea? Haize hozkirria ondo etorriko zaizu- diotso Maitanek atzeko ispilutik begiratu.

Ezin dut gehiago, bilisa ahora etortzen senti dezaket eta oka egin behar dut. Autotik irten behar dut ahalik eta arinen.

- Bai, mesedez- erantzuten diot Maitaneri.

Autoa bazter batean utzi eta jarraian botaka egin dut. Zihara eta Maitane ere irten dira eta nire ileari eutsi diote, ez kakazteko. Gero zapi batekin ahoa garbitu dut eta berriro sartu gara autora gure bidaiarekin jarraitzeko.

Ordu erdi igaro da geldialdia egin dugunetik. Ziharak Gatibu taldeko abesti guztiak abestu ditu eta ni lo egiten saiatu naiz, baina Zihararekin ezinezkoa izan da. Maitane nekatu egin da; orduan, eskuko telefonoa hartu du abestia aldatzeko, baina bere hanka artera jausi da. Makurtu egin da jasotzeko, errepideari erreparatu gabe.

- Maitane kontuz!- aldarrikatu du Ziharak.

Tupustean dena beltz jarri da. Ezin dut ezer ikusi, bakarrik iluntasuna. Begiak zabaltzen saiatu naiz, baina nire betazalek piloak pisatzen dute, harri handiek bezala. Minutu pare bat pasatu ondoren, berriro saiatu naiz eta oraingoan bai zabaldu dira.

Lurrean etzanda nago, elur hotza nire bizkarra ferekatzen senti dezaket. Anbulantziaren eta ertzainen autoaren sirenak entzun ditzaket. Zerbait gaizki dago. Nire bihotzaren taupadak, gogaikarri eta zaratsutsuak, nire eztarriren euskarrian sentitzen ditut. Eskuekin bekokia ukitu dut min ikaragarria dut-eta. Gero... atzamarrak! Odola daukat, seguruenik zauriren bat dut. Zaharki hartu dut arnasa eta kolpe batean altxatu naiz; bihotzaren taupada irmoak eta buruko palpitazioak sentitzen ditut.

Nire lagunak bila mugitu naiz. Une horretan bakarrik poliziak eta medikuak ikusi ditut. Non ote daude nire lagunak? Zer gertatu da? Hainbeste galdera ... Eta erantzun bat ere ez. Azkenean! Maitane ikusi dut. Bi mediku bere zauriak sendatzen ari dira polizia batekin hizketan dagoen bitartean. Maitanerengana hurbildu naiz galdetzeko ea zer gertatu den.

- Maitane! Ondo zaude?- galdetzen dut baina ez dit erantzuten.

Nire eskuarekin keinu egin diot Maitaneri, baina ez du nabaritu ezer. Ikusezina. naiz? Ez, hori ez da posible. Baina ... zergatik ez dit erantzuten? Zerbait ez dago ondo.

Zihararen bila mugitu naiz baina ez dut ikusi. Bazter batean Maitaneren autoak nire arreta deitu du. Istripua izan dugu. Bere autoak eta kamioi batek talka egin dute. Ez diot garrantzirik eman eta Zihara aurkitzen jarraitu dut. Momentu batean bihotzeko batek joko banindu bezala sentitu naiz. Ikarak nire gorputza zeharkatu du eta arnastea zaila egin zait. Hau ez da posible! Ezin da izan! Zergatik ote dago nire gorputza lurrean? Ni hemen nago, baina han ere bai. Medikuek esku-ohet batean eramane naute. Haiengana hurbildu naiz.

- Itxaron! Ni hemen nago! Zer gertatu da? Nora naramazue?- esan dut aldarrika, baina ez dit inork erantzun, begiratu ere ez naute egin.

Beldurra senti dezaket nire gorputzean. Orain ulertzen dut; nire espiritua naiz, eta esku-ohean dagoena nire gorputza da, horregatik ez didate entzuten ezta ikusten. Anbulantzian sartu eta handik hamar minutura ospitalera heldu naiz. Nire familiari deitu eta dena kontatu diote; lagunek eta nik istripu bat izan dugula kamioi baten kontra eta nire egoera ez dela oso ona, ez naizelako esnatzen.

Nire gorputza erietzeko ohe gainean dago, zirkinik egiten ez duen nire gorputz hotz eta bizigabea. Eskuinaldean monitorea dago konstanteak ikusteko, horrela nire taupadak azter ditzake. Aurpegia kable eta hodiz beterik dut arnasa hartzea errazteko.

Arrapaladan begiak negar-malkoz bete zaizkit, eta konturatu gabe negarrez hasi naiz. Neure burua horrela ikusita lur jota eta zeharo damututa sentitzen naiz. Bakarrik segundo batzuetako kontuagatik, gure bizitza hankaz gora jarri da, eta orain ez dago itzulbiderik. Eginda dagoena, eginda dago eta aurre egin behar diogu.

Bi ordu igaro ondoren, nire ama sartu da korrika, eta bere atzetik aita eta Paul, nire mutil-laguna. Atean gelditu eta ni oihatilan ikustean, negarrez hasi dira, batez ere nire ama. Paul gogortuta dago, shock egoeran egongo balitz bezala. Horrela ikusita, nire atsekabea areagotu egin da. Zergatik gertatu behar zait hau?

Orduan, mediku bat sartu da begirakune serioarekin. Amantal zuri handi batek erdi estalita duen informea atera du. Seguruenik nirea da eta nire familiari kontatuko dio zer gertatzen zaidan.

- Kaixo, Izaroren medikua naiz. Momentu honetan koman dago eta ez dakigu noiz esnatuko den, beste guztia ondo dago.- esaten du espresiorik gabeko aurpegiarekin.- Ezin dugu ezer gehiago egin. Esnatzen den edo ez dago gure esku, berak erabaki behar du.

- Eskerrik asko egin duzuen denagatik- esan du aitak, ama negarrez baitago.

Medikuak buruarekin baietza eman du eta atetik irten da. Paul nire gorputzaren ondoan dagoen besaulkian eseri da, eta bere bizkarra makurtu du, ukalondoak belanuen gainean jarriz eta eskuek kokotsa eutsiz. Minutu bat lurrari begira egon eta gero, niri begira jarri da.


- Barkatu, baina ahal nauzue utzi berarekin bakarrik?- esan die Paulek nire gurasoei.

Aita eta ama korridorera atera dira. Minutu batzuk isilik niri begira eman ditu eta gero hitz egiten hasi da.

- Izaro, badakit zure ardura dela esnatzea, baina entzun iezadazu mesedez. Nire bizitza argitzen duzu eta zu barik infernua izango litzateke. Benetan ez dakit zer egingo nukeen. - Negar-malkoak jaisten hasi zaizkio bere masailetik eta une batez gelditu egin da haiek xukatzeke- Izaro, mesedez, zure familiak, zure lagunak eta nik gure bizitzan behar zaitugu. Geratu mesedez.

Amaitu duenean, abesten hasi da. Nire abesti gogokoena da, ez dit inoiz abesti hori kantatu. Paulek urte asko darama abesten eta abeslari bikaina da. Berarengana hurbildu naiz hobeto entzuteko eta zera dio: "Geratuko naiz." Paulek abesten jarraitzen du baina ni oroitzapenetan barrena sartu naiz. Oroitzapen onak eta txarrak agertu dira erritmo zeharo arinean. Pixkanaka-pixkanaka, argi zuria ikusten hasi naiz baina momentu batean dena zuri bihurtu da, ez dago oroitzapen gehiagorik. Begiak zabaltzen saiatu naiz... eta... hara! Ireki ditut! Paulen ahotsa entzuten ari naiz.

- Esnatu zara!- esan du besaulkitik altxatuz.
- Bai, esnatu naiz- diote nire ezpainen irribarre eginez.





Paule Lauzirika
DBH 3. maila

“Aniztasunak aberastasuna dakar”

MUGAK BAI?

Goizero legez aitak irratia piztuta zeukan esnatu nintzenean: *“Jende horrek ezin du bere herrialdean bizi arrazoi askorengatik: ekonomikoak, politikoak, demografikoak...”* Etoraginez hitz egiten denean, *herrialde pobreetatik datozenez, maila sozioekonomiko baxua dutela ondorioztatzen da...* *“Auzo honetakoak naiz betidanik, auzoa honela, honela eta honela mantendu dugu beti. Arauak ditugu eta ezin dira etorri eta hankaz gora jarri dena...”* Entzundako hitzak buruan buelta- bueltaka nituen; nola hitz egin zezakeen horrela pertsonak batek, gu geu, euskaldunok, urteetan immigranteak izan bagara? Turdiduta geratu nintzen! Zein erraz ahazten zaizkigun komeni ez zaizkigunak.

Nik amari hamaikatxo aldiz entzunda nion gure osaba Sabino Ameriketara urteak eman ostean, aberastuta heldu zela Euskal Herrira; hemen zer jan ez zuenez, ardiak zaintzera joan behar izan zuela Kolonek aurkitutako lurraldera.

- Ez dizut berriro esango! Amaitu armozua eta jantzi! Orain ere zer pentsatzen egongo ote zara?

- Banoa ama, trankil...Ez naiz inoiz berandu heldu ikastolara, eta gaur ere sasoiz helduko naiz, lasai !!!

-Tinbreak jo du, ez duzu entzun ala? Malen itxaroten daukazu, mugi zaitetz, mesedez. Amaren errieta ez entzutearren, motxila hartu eta etxetik atera nintzen.

- Egun on Malen.

- Egun on.

Bidean gindoazela, Maleni kontatu nion irratian entzun nuen elkarrizketa; bera ez zen harritu, normala zela esan zidan; datorrena hartu behar zutela eta asko sentitu arren, mugak jarri ezean, kanpotar asko etorriko zitzaizkigula geurea kentzera. Nik banekien, Malenek esandakoa pertsona askok pentsatzen zutela, baina hala eta guztiz ere, beti erostaka ibili beharrean egoera horri buelta eman behar geniolakoan nengoen. Baina nola?

Gelara heldu ginenean, neska berri bat ikusi nuen lehenengo ilaran eserita. Ilea ikatza baino ilunagoa zeukan eta bere begiek ilargi handi borobilak ematen zuten aurpegiko azal ilunean. Berarengana hurbiltzekotan izan nintzen, baina momentu horretan irakaslea sartu zen eta geure tokietan esertzeko eskatu zigun. Beraz, ez nuen aukerarik izan berarekin hitz egiteko.

Txirrinak jo zuenean, bakoitzak bere hamaiketakoa hartu eta aitaren batean patiora jo genuen, tarte horri probetxua ateratzen baikenion, laranja bati zukua ateratzen zaion bezala.

Gelara bueltatu ginenean, berarengana urreratu nintzen eta neure burua aurkeztu nion:

- Kaixo, ni Uxue naiz. Nola duzu izena?

Irribarre egin zidan, baina ez zuen erantzun. Ez zidan ezer ulertu.

Hurrengo egunean, berriro hurbildu nintzaion, eta gurekin etortzeko gonbitea egin nion. Baina berak, atzera irribarre egin eta zegoen tokian jarraitu zuen... Horrela egunak joan eta egunak etorri... Ikasturte bukaerarako gure hizkuntza ulertzen eta hitz egiten hasi zen eta ahal zuen guztietan egiten genituen jardueretan parte hartzen zuen. Ahaleginak egiten zituen guk taldean onartzeko, baina bere itxura, hizkuntza eta janzkera guretzat arrotzak zirenez, batzuetan alboratuta uzten zuten, nabarmen gutxietsiz.

Fatimak, horrela zuen izena, ez zuen ulertzen zergatik ez zuten onartzen, zergatik alboratu behar zuten azalaren kolorea ilunagoa izateagatik, eta ez zuen beste hainbeste gauza ulertzen... Bera Euskal Herrira etorri baino lehen oso pozik bizi zen bere herrialdean, gurasoekin, aitona-amonekin, lagunekin... Amak eskola batean lan egiten zuen eta aitak bulego batean, baina bere jaioterriko egoera zeharo aldatu zen eta bertan bizitzea infernu bilakatu zen. Oso arriskutsua zen herrialde hartan bizitzea eta gurasoek alabarentzat etorkizun hobea nahi zuten bezala, Euskal Herrira etortzea erabaki zuten. Hori bekatua al zen? Ez zuen ezer ulertzen! Behin eta berriz galdetzen zien gurasoei zein zen arrazoa herrialde honetan baztertuta egoteko. Ea lasai eta duintasunez bizi nahi izatea bekatu mortala al zen. Galdera asko egiten zizkion bere buruari, baina ez zuen zentzuzko erantzunik aurkitzen...

Fatimak urteetan bizitakoa ankerkeria iruditzen zitzaion, ez zegoen eskubiderik jendea toki batean edo bestean jaiotzeagatik baztertzeko, ez zegoen eskubiderik jendeari ateak zarratzeko. Urte askotako sufrimendua zegoen Fatimaren bihotzean. Beraz, nagusitu zenean, erakunde bat sortu zuen eta bertatik Euskal Herrira heltzen ziren guztiei laguntzeko aukera zabaldu zitzaion. Baina, hala eta guztiz ere, ez zegoen gustura bere helburua ez zelako zeharo betetzen, hau da, etorkinak oraindik ez zituzten onartzen gizartean nahiz eta eurak integratzeko ahalegin guztiak egin. Argi zeukan, bertokoak hezi behar zituela eta ulertu behar zutela guztiok izan gaitezkeela etorkinak, eta hemen edo han jaiotzeagatik, edota azalaren kolorea desberdina izateagatik, ez garela ez gehiago ez gutxiago.

Gaur egun, Fatima oso pozik bizi da etorkinen egoera hobetzeko lan handia eta egokia egiten duelako; eskolaz eskola dabil ikasleei hitzaldiak ematen berdintasunaren alde lan egin behar dutela azalduz, bere ustez, nahiz eta urrats asko eman, asko dagoelako egiteko oraindik. Horregatik, berak egunero - egunero ekinean jarraituko du, irratian honako esaldi hau entzun arte:

“Mugarik gabeko gizartea lortu dugu behingoz...”





Unai Lejarzegi Ajubita
DBH 3. maila

“Non eta noiz, euskara ez utzi inoiz”

MENDEKUA



Abraham 9 urteko mutiko bat da. Aitari oso lotuta dago amarik ez duelako.

Goiz eguzkitsu batean, Abraham eta bere aita banketxe batera doaz diru- laguntza eske eta bertan daudela, eguna iluntzen eta iluntzen hasten da, zerutik argiak dauzkaten izarrak bezalakoak jaisten dira pertsonen gainera, eta pertsona horiek maltzur bihurtzen hasten dira. Kaleetan beldurra ikusten da. Abraham, bere aita hitz egiten dagoen denboran, siloi beltz handi

batean dago, eta ez da ikusi ere egiten.

Halako batean, banketxeko ateak parez pare zabaldu eta haize hotz, ilun eta indartsua sartzen da barrura. Iluntasunetik, beldurra ematen duen tipo handi, muskulutsu eta lagun gutxidun aurpegiko gizon bat sartzen da. Jantzita ere pelikuletako maltzurra bezala dago, lurrera arteko kapa beltza, narruzko praka, txaketa eta bota beltzak. Aurpegia ere ez zaio ikusten, begiak eta ezpainak bakarrik, kareta bat baitarama. Denak beldurturik daude baina Abraham umea denez pelikula bat ikusten egongo balitz bezala, zurtz eginda dago. Gizon maltzurak pistola handi bat atera eta denak bihurtzen ditu hauts, baina Abrahamen aitak frente egiten dio eta zertan dabilen esaten dio. Gizon maltzurak hori egin beharra duela erantzuten dio, eta bera ere hil egiten du. Denak hil

dituelakoan dago gizon maltzurra. Abraham txikia denez ez du ikusi, eta geldi-geldi dago bere siloi handian izkina batetik begira. Beldurturik dago ikusitakoarekin baina gauza batekin konturatu da. Aitak gizon maltzurrari aurre egin dionean gizon maltzurraren begietan malkoak zeudela, eta ziur da aitak begietara begiratu diola. Abrahamek ez daki zer egin, baina aitaren hautsak poltsikoan hartu, eta banketxetik korrika batean irteten da noraezean. Kaleak eta hiri guztia gaua izango balitz daude, eta kale estu horietako batean kikilduta geratzen da. Halako batean, bera baino zahartxoagoa den neskatila batek kolkotik oratu eta berarekin eramaten du bere lagunengana. Sina, *iluminatuak* deritzon taldekoa da. Beraiek epikoak harrapatzen dituzte. Abrahamek ez du ezer ulertzen, beraz *maisua* deritzon taldeko buruak dena kontaktzen dio.

“Abraham, gaur goizean mundua aldatzen hasi da, iluntasuna etorri da eta jausi diren argidun izar haiek jendea aldatu eta maltzur bihurtu ditu *Epikoak*. Pertsona normalak dira baina maltzur bihurtzen dira, ez dakigu zergatik, harrapatzen dituzten denak hil egiten dituzte”. Orduan, Abrahamek bera banketxean egon dela esan eta gertatutakoa kontaktzen die. Maisuak gizon maltzur hark Altzairuzko Bihotz izena duela esaten dio, eta bera dela epiko denen buruzagia, botere handiena duena. Beste epikoak bere menpe dituela baina denek dituztela nolako edo halako botereak. Altzairuzko Bihotzengana heltzeko, lehenengo beste epiko guztiak akabatu behar direla ere esaten dio. Urteak aurrera doaz eta Abrahamen buruan mendekua hartzea besterik ez dago; hori dela eta epiko guztiak estudiantzen hasten da. Puntu ahulak non dituzten.

Aita hil zutenetik 15 urte pasatu dira eta urte hauetan guztietan, maisua eta bere *iluminatu* taldea epikoak harrapatzen aritu dira, baina ez dakite nola harrapatu Altzairuzko Bihotz. Abrahamek, orduan, esaten die bere buruan eta bihotzean ezkutaturik zeukana. “Nire aita hil zutenean ni bertan egon nintzen eta dena ikusi nuen”. Orduan, maisuak Abraham heldu eta zer ikusi zuen galdetzen dio.

- Ba...! Nik Altzairuzko Bihotz negar malkotan ikusi nuen.

Maisuak, hori ez dela posible esaten dio. Baina, Abrahamek aitak frente egin ziola begietara begira erantzuten dio. Denak daude Abrahami begira zurtz eginda.

Orduan Sinak erantzuten du:

- Hori, bere puntu ahula izan daiteke, begietara begiratzea beldurgabe.
- Baina nola hurbilduko gara Altzairuzko Bihotzengana?
- Plan bat egin behar dugu, jendea batu behar dugu eta horrela Altzairuzko bihotzek zer gertatzen den ikusi nahiko du eta bertara etorriko da -erantzuten du maisuak.

Plana egiteko egunak pasatzen dira. Herriko plazan jendea batzea dago planifikatuta arratsalderako.

Hitzaldi bat ematen ari dira maisua eta Sina, halako batean haize zurrumbilo bat nabaritzen da plazaren erdi-erdian, Altzairuzko Bihotz da. Denak daude beldurrez; Abrahami bihotza ia gelditu egin zaio, burura etorri zaizkio egun hartako oroitzapenak. Mundu guztia lurrera begira dago, ez da inor Altzairuzko Bihotzi aurpegira begiratzen atrebitzen. Abraham geldi dago, estatua bat bezala, momentu horretan duen beldurrak eta mendekua hartzeko gogoak eraginda. Altzairuzko Bihotz aurreratu, eta zeri begira dagoen esaten dio. Abrahamek ez diola beldurrik erantzuten dio. Orduan, Altzairuzko Bihotzek bere pistola handia atera eta gorputzaren kontra jartzen dio. Abrahamek Altzairuzko Bihotzi begietara begira jarraitzen du, eta orduan maisuak hartzen du parte Abraham hilko duen beldurrez. Berarentzat, semea izango balitz bezalakoa da. Altzairuzko Bihotzek sakakada bat eman eta airean botatzen du maisua. Abrahamek gainera salto eta bere arma kentzen dio, ez dio utziko bigarren aita hiltzen. Abrahamek armarekin berari apuntatzen dion bitartean Altzairuzko Bihotz barrezka hasten da, ez da beldur, oraindik ez daki Abrahamek bere puntu ahula ezagutzen duenik.

Zuk, orain dela 15 urte gure aita hil zenuen hiriko banketxean, eta ni bertan nengoen, ez ninduzun ikusi!

Orduan, Altzairuzko Bihotz da Abrahami begira gelditzen dena. Abrahamek maisua gaizki ikusten duenez, harengana hurbiltzen da. Orduan, Altzairuzko Bihotzek arma kentzeko aprobetxatzen du eta berriro ere Abrahamengana hurreratzen da bere pistola handiarekin, oraingoan hiltzeko asmoz. Abrahamen gorputzera pistola hurbildu eta elkarri begira gelditzen dira. Aurpegiz aurpegi, segundo gutxi batzuk besterik ez. Inork ez daki zergatik baina Altzairuzko Bihotzek buelta hartu eta alde egiten du. Orduan, denek ikusten dute Altzairuzko Bihotzek ere bihotza duela. Zergatik utzi du Abraham bizirik? Zer ikusi du Altzairuzko Bihotzek Abrahamen begietan?

Abraham ere hunkitu egin da, eta maisuari Altzairuzko Bihotzen begietan ez duela gizon maltzurrik ikusi esaten dio. Maisuak ez du sinesten eta Abrahamek Altzairuzko Bihotzen begietan izarrak ikusi dituela esaten dio.

Maisuak, orduan, konturatzen da ez dela nahiko begietara begiratzea Altzairuzko Bihotz hil ahal izateko. Izar haiek zerikusia dutela.

Taldeko guztiak lo daudela Abrahami zerura begiratzea otu zaio, halako batean, bere aitaren aurpegia daukan izar distiratsu bat hurbiltzen zaio, eta hauxe esaten dio. "Seme, ikusi dut mundua aldatzeko egin duzun lan guztia, baina ikusi dut ere Altzairuzko Bihotzi zenion mendeku gogoak joan zaizula. Bihotz onekoa zara seme, horrela nahi zaitut. Berak ez zuen errurrik, izarrek aldatu zuten". Momentu horretan, Abrahamen begietatik laserra bezalako argi distiratsu batek irteten du

zeruko iluntasunerantz, eta bere aitaren aurpegia, Altzairuzko Bihotzena eta bere begietatik irteten den argi distiratsua elkartu, eta denak zeruko iluntasunera joaten dira.

Hurrengo egunean, mundua beti bezala agertzen da: argitasuna dago, egun eguzkitsua, txoriak kantari, jendea kaleetan... Abraham herri horretako buruzagia da.



June Zameza Azurmendi
DBH 4. maila

“Banatu eta batzen gaituzten lurretan”

IZAN GINENAK ETA GAUR EGUN GARENAK

Txikitako argazkiei begira nago, hainbat memoria burura ekartzen dizkidaten argazki haiei, maitaturiko pertsonekin bizitako momentuak markatu zituzten aztarnak dira, betirako izoztuta geldituko diren momentuak; izan ere, hainbat pertsona ditugu alboan gure bizitzan zehar, ez garela konturatzen zenbat maite ditugun, galtzen ditugunera arte; haiek galtzean, ez dakigu norantz jo.

Momentu honetan nahita ere, ezin dut aurrera egin, eta argazki hauek ikusteak txikitan izan nintzenaz oroitzen naute; lehen izan nintzenaz eta gaur egun naizenaz pentsatzen nago.

Izan ere, denbora da benetan maitatutako pertsona batek hemen utzi ninduenetik, eta argazki hauek ikustean berataz oroitzen naiz. Ez nintzen konturatzen zenbat maite nuen pertsona hura, galdu nuen egunera arte. Bizitza gainera erori zitzaidan, ez nekien nola aurrera egin; banekien aurrera jarraitu behar nuela atzera begiratu gabe, nire ametsekin borrokatuz, baina zaila zen, pertsona hura gabe, galduta sentitzen nintzen eta, orduan, konturatu nintzen bizitzako momentu bakoitza maite dugun jendearekin pasatu behar dugula, haiek galtzean ezin baitugu denboran atzera egin, ezin baitugu argazki haietako momentuetara igaro bizipen horiek berriz bizitzeko.

Nahita ere, pertsona hau ez zen berriz nire ondora bueltatuko, baina denbora igaro ahala, bera gabe bizitzen ikasi nuen, pauso txikiz aurrera egin, eta ez dakit nola, baina egun batean, nire bizitzari bira aparta eman zion pertsona agertu zen nire bidean; inoiz ikusigabeko bi

begi nireekin gurutzatu zirenean. Susmo arraroa nuen, ni bere itzalari segika nembilen Garai haietan, eta berak niri kasu handirik egin gabe ere, esperantza neukan egunen batean gure bion arteko istorioa idazteko nahikoa bizipen izango genituela. Gaur egun ere, bera da dena, nire bizitzaren nukleoa; horrela sentitzen dut nik, behintzat. Ahaztezina den pertsona hura, nire buruan biraka dabilena eta egunak pasatu ahala gero eta gehiago gustatzen zaidana. Garai haietan ez nintzen berari hitz egiten ausartzen, baina momentu haietan ez zitzaidan axola, nahikoa nuen egunero nire begien aurrean izatearekin. Orain, bihotzean eta buruan daramat pertsona hori, edozein arrazoi dela eta, bizitzan eramanezina delako momentuz, eta nigandik hainbat kilometrotara dagoelako. Argi daukat nire begietatik urrun dagoela, baina eguneko segundu guztietan dago nire buruan.

Bi urte daramatzat nire sentimenduekin nahasirik; egun batzuetan, ate berria zabaltzeko eta beste pauso berri bat emateko gogoia dut; baina ezin dut, ezin dut nire sentimenduekin borrokatu eta, ezin dut pertsona hau ahaztu eta aurrera egin ezer gerta ez balitz bezala. Izan ere, nire barruko iluntasuneko argi izpi bat da, nire barruko ilargia, egunero aurrera jarraitzeko behar dudana bitamina, nirekin fisikoki ez badago ere, badut beraren berri, eta nire baitan dagoen puntu batek esaten dit bera ere nitaz pentsatzen egongo dela momento honetan. Inoiz bizigabeko sentipena dut barruan, sentimendu deskribaezina, baina ongi nago, momentu hauetan bera ikusi gabe biz naizelako eta horrela jarrai dezakedalako. Bizirik gauden bitartean, ez daukagu mugarik, zerua baita gure muga bakarra; hau dela eta, gogor eta indarrarekin ekin behar diot bizitzak jarri didan borroka latz honi, eta irrikitan nago, istorio honek nola jarraituko duen jakiteko, bere ikuspuntua jakin eta gure istorioari irtenbidea bilatzeko.

Ondorengo testu hau idatzi diot pertsona horri, gure istorioa idazterakoan hasiera gisa, berarengaitik sentitzen dudana nolakoa den adierazteko:

2020ko urtarrilaren 13a

Bi urte inguru dira jadanik lehen aldiz elkar ikusi genuenetik, egun hartatik zerbaitetaz konturatu naiz, egia dela lehen begiratuko maitasuna existitzen dela, zurekin hori frogatu ahal izan dudalako. Hainbat denbora igaro da ezagutu ginenetik, eta nigan duzun jarrera aztertuz, zuk ere nire sentimendu berberak izan ditzakezula konturatu naiz. Izan daiteke nire usteak izatea, azken batean hori delako lortu nahi dudana, zurekin egotea, baina nahiko seguru nago zure niganako sentimenduak nireen berdinak direla.

Hainbeste gauza esan nahi dizkizut denbora gutxian, azkeneko urteetan niretzat gorde ditudanak, ez dakidala nondik hasi, baina gutun honen bidez jasoko duzu nire ikuspuntua. Beharbada, ameslaria naizela diozu, baina ez da horrela, nire sentimenduak dira eta ezin ditut aldatu.

Banatu eta batzen gaituzten lurretan bizi gara, era berean, bide horiek direlako bereizten gaituzten lurrak, baina elkartzen gaituzten lurrak ere badira.

Egun horren zain nago, gure begiak berriz gurutzatuko diren egunaren zain, egun hori ailegatzea behar dut aurrera jarraitzeko, hainbeste denbora bata bestea ikusi Gabe egondakoan, espero ez dugun momentu batean aurkitu eta nola sentitzen naizen frogatu nahi dut.

Nirekin behar zaitut, ez dagoelako inor zure lekua bete ahal duenik, ez dakit zer daukazun, baina nire bizitzan eginiko inpaktua ikaragarria da, eta momentu hauetan hainbat diru jokatuko nuke ez dudala beste inorengandik gauza bera sentituko, nire bizitza goitik behera aldatu duzu eta ez dut nire etorkizuna zu gabe imajinatzen. Ez dit axola adinak ez zer esango duten besteek, axola zaidana sentitzen duzuna da, zure egia. Zure eskutik helduta bidean aurrera egin nahi dut, biok batera bizitzaren gora-beherei aurre egin eta hil arte bizi, gure istorioari amaiera atsegin bat emateko.

Nire ametsek zentzua izango dute esna nagoen bitartean, baina horretarako, nire ondoan behar zaitut, ezin zaitut alde egiten utzi eta ezer baino gehiago behar zaitut momento hauetan.

Jakingo bagenu zer gertatuko zatekeen gauzak gertatu baino segundu bat arinago, zuri begiratzean gure begiradak beti aurkituko balira, bizitza hain erreza izango balitz... orain beharbada, bata bestearen ondoan egongo ginateke.

Amaitzeko, nire bihotzaren zati bat txukundu duzula esan behar dizut, ez nuelako inolaz ere pentsatuko zu bezalako pertsona batekin gurutzatuko nintzatekeenik, baina bidean aurkitu gara, momentu honetan oztopatuta gaude, baina esperantza dut egunen batean berriz topo egin eta gure elkarren arteko maitasuna erakutsiko diogula elkarri. Nik eman dut jada lehen pausoa eta nire ustez, zailena, zuri hizketan hasi natzaizu eta nire iritziz istorio honi bukaera ez emateko nirekin berbetan jarraitu beharko zenuke.

Nire bizitza hankaz-gora utzi arren, maite zaitut eta zerbaitetan sinisten badut, guregan sinisten dut.

Hau idazterakoan, hainbat gauzetaz konturatu naiz; haietako bat bidegurutzak aukera berriak direla da, eta gaizkien gaudenean ere, zulo horretatik irtetzeko bidea edonoiz ager daitekeela konturatu naiz; espero ez duzun momentuan zure bizitza guztiz aldatu daitekela eta ezin zarelako momentu horren zain egon, beraz, aprobetxatu dezagun momentua, eta topera bizi gaitezen gure eguneroko bizimodua

aprobetxatuz, gure bizitzatik joandakoak argazkien bidez gogoratuz eta hemen gurekin daudenekin gogor borrokatuz gure helmugara iristeko.

Hainbeste gauza gal eta irabaziko ditugu bizitzan zehar, non haiekin aurre egiten ikasi behar dugun, maitasunarekin esperantza izan eta denborak dena argituko duela kontuan hartuz, bizitza begi hobeagoekin ikusi eta aurrera egitea litzateke egokiena.

Jaiotean izan ginenetik, gaur garenera arte bide luzea igaroko dugu, eta bide eta bizipen berriak izango ditugu frogatzeko, jakinik bizitza zaila izango dela eta hainbat gauzari aurre egin beharko diegula.

Nire kasuan, bizitzak orain jarritako froga hainbeste maite dudan horrengatik borrokatzea da, eta horretan nabil, gau eta egun berarengan pentsatu eta gogo gehiago ditut berriz pertsona hau ikusteko eta berarekin istorio luze honen korapiloa idazteko.



Ane Mei Aspiazu Etxeandia
DBH 4. maila

“Cos all of the stars are fading away, just try not to worry,
you’ll see them some day”- Oasis

AZKEN MALKOA

2004ko azaroak 11.

23:25

Heldu naiz, utzi dut gaitzesten nuen guzti hura. Hutsez beteriko abagune hau, segundoz eta minutuz osaturiko nire azken unea da. 30m-dun eraikin honetako azken solairutik begietsi ditzaket gau ilun eta goibeltsu hau argitzeko gai diren bakararak, lanbroek ilundu dituzten zeruko izar zurbil bakanak.

Ezkerreko eskumuturrean daramadan erlojuaren orratz luze eta finenak, segundo amaigabeak diruditenen erritmoa jarraitzen du, tikitaka bakoitzean gaua ilunago bihurtuz.

Pausu bat aurreratuz, bukaera gabeko amildegi sakonean barrena barruratzeak ideia adiezina ematen du. Ezker oina airean ikustean, lasturak korapilatzen nau, baina ez dago atzera bueltatzerik.

Hilabeteak dira zerbaiten bila daramatzadanak; barneko bake eta askatasun nahiak asetzeko hurbiltzen diren bidezidorrak.

Otsailak 24ko, goizeko bederatzieta hogeita hamargarren minutuan izan zen gure azken agurra. Hogeita hamar, hiru eta zero, zifra bakoiti hauek epaitu zuten negar malkoz beteriko amaiera hura. Azken malkoa zure aurpegi zimurtsutik isurtzen ikusi nuen une hartan damuak akabatu ninduen.

...

Logela berria nuen, etxeko logela samintasunez oroitzera bultzatzen ninduen. Leiho ñimiño hartatik sartzen zen argi margulak, neke handiz epeltzen zuen giro hits hura. Etxe berri hark, beso eta hankarik gabeko gorputz baten antza zuen, zu falta zinen, ama. Gogogabetasunez pintatuta ziruditenen lau horma haiek segurtasunik eza adierazten zidaten. Azterketa sakona jasan behar izan zuen logela hark, eta hala ere ez nintzen ulertzera ailegatu nolatan nengoen hor sartuta, nor eta ni.

Urteak ziren amarekin bizitzera ohitua nengoela, eta orain berriz, neure burua nire kabuz zaindu beharra neukan bizirik iraun nahi banuen.

Amaren faltaren minak ez dauka parekorik.

...

Kostatu zitzaidan bai, baina lortu nuen indarrez iltzatu zidaten gezi pozoitsu hura, ponpatzea husteari zihoan bihotz ahuldutik ateratzea. Baina saietak neure bularrean utzi zidan orbaina ezinezkoa zen desagerraraztea. Orduantxe konturatu nintzen orbain horrek hil arte nire bular barnean iraungo zuela.

23:37

Eskumako eskua pausatu dut aurrean dudan eskudel zaharkitu honetan, edozeinek esango luke baranda honek urteak daramatzala garbitua izan gabe. Ustekabean, hegazti bat ni nagoen lekuan jarri da. Pare bat segundo txoria aztertzen eman ditut, baina oraindik misteriotsua iruditzen zait, enarak ez baita biltza bakarrik neguko egun hauetan.

Denboratxoa daramat hari begiratzen, (antza denez eskudel zikina dirudien arren, jaki abarren bat geratzen da bertan) eta ezin izan dut ekidin Lorearen alkandora gogoratzea, hegaztiz beteriko alkandora hura. Zeukan zaharrena izan arren, nire gogokoena zen dudarik gabe. Urdin argia zen, eta horrek bere begi kolore xarmanta gogorarazten zidan.

...

Beranduegi da barkamenak eskatzeko, baina barkatu zu maitatzeko gai ez izatearren.

Ezinezkoa da norbait maitatzen jakitea aurretik norbera maitatu gabe.

Ezjakintasun hutsean kaiola batean sartu zintudan, askatasunik gabeko txori baten antzera, nire jabetzakoa bazina bezala. Gure artean zegoen hari gorria gero eta meheagoa bihurtzen ari zen, ikusezin bilakatzeko zorian zegoen.

...

Gure artekoak arrosen ziklo madarikatu baten antza zuen.

Urtero-urtero landatzen zituzten mozteko eta kapazutan bilduta dendetara eramateko, bidean lurra petalo gorritz margotuz. Arrosa sorta oparitu nizun egun hartan, zure aurpegia ikusi nuen, zeinaren zoriona arrosen patu izugarriaren amaiera baitzen. Sorta hartu eta zure ezpainak nireetara hurbildu zenituen, uda-amaierako eguzkipean hosto iheskorrak bailiran.

Patu engainagarriak ez zuen luze iraun. Arrosa-sorta zimeldu egin zen, eta hala egin genuen guk ere. Askatasunerantz egin zenuen hegan, kaiola hutsik utziz.

Ziur nengoen beste edozeinek bete zezakeela utzi zenuen hutsunea, baina ez, zuzen zeunden, inork ez luke nahiko hain pertsona berekoi baten ondoan kaiolatu.

23:49

Hogeita hamar metro, eraikin honen altuera; egia esan goitik ikusita ez zait zenbakiak dirudien bezalako harrigarria iruditzen. Beharbada beldurra galdu diot bizitza deitu omen den errepide honen amaierari.

Ohe ezezagun haren izara aldatu berrien usainak gogora zekarzkidan oporretan joan gineneko aldia. Amak ez zekien anaiak nondik atera zuen diru mordo hori, baina hura aprobetxatuz igerilekua zuen hotel batera joatea erabaki genuen.

Nik susmo arraroren bat neukan, denboratxoa zen anaia zerbaitetan sartuta zegoela, baina amak ez zekienez ezer, nik ere ezjakinarena egiten nuen.

Egokitu zitzaigun logela zenbakia ez nuen gustuko, 91, beti izan baitiet gorroto berezia zenbaki bakoitiei.

Anaia eta biok bertako igerilekuan ematen genituen arratsaldeak, azala zimur-zimur eginda izan arte, bi arrain bereizezinen antzera. Elkar zirikatzen ginen, itsaso zabal haren amaierara heltzea lorpen garrantzitsu bat izango balitz bezala.

Baina egun batean, itsaso hura, ur edendu bihurtu zen, eta honekin batera, bertan zegoen guztia suntsiturik bukatu zuen.

Bizirik gabeko arraina nintzen, zure uretan igeri egiten jarraitzeko indarrik gabe nengoen.

...

Opor haiek, nire bizitza osoan izandako oporrik onenak izan ziren, baina neure burmuina ez zen kapaz oroimen ederren karpetan gordetzeko. Zertarako balio izan zitzaizkidan opor haiek, geroztik ez baneukan zeure arrastorik?

Itsaso zabal hartan bakarrik, galduta, itsasoaren mareen esklabu utzi ninduzun.

...

Errealitatera bueltatuz, zintzoki pentsatuz, izara haien usaina, xaboi merke usaina besterik ez zen, ahaztu beharreko usteldutako kerua.

2001eko otsailak 24.

Amaren etxea, 9:29

“Atxilotuta zaude... isilik egoteko eskubidea duzu... esaten duzun edozer gauza erabil daiteke... abokatu bati kontsultatzeko eskubidea duzu...”-zioen batek, eskuak lotzen zizkidan bitartean.

Ama sinetsi ezinen zebilen, ez zuen onartu nahi gertatzen ari zena, egoera estu hura ertzeraino iristen ari zen.

Denbora luzea generaman arazorik gabe, opor haien ostean anaia joan egin zen gauetik goizera agurrik eman gabe, beste diru mordoxka bat utziz. Amak guzti horri susmo txarra hartzen hasi zion, baina susmoak ez ziren haratago joan, dirua oso ondo zetorkigun, izan ere, nik ez neukan lanik eta etxera ez zen diru asko sartzen azken aldian.

Diru hura pozoitua zegoen, anaiak zor asko zituen ordaintzeko.

Amari hasieratik anaiaren kontuen berri eman izan banio, ez ginatkeen honaino iritsiko, baina jada beranduegi zen damutzeko, anaiak utzitako marroia nik ordainduko nuen burdin-hesien artean, diru mordoxka hura nire izenean baitzegoen.

Orainaldian, 2004ko azaroak 11.

23:57

Hiru urte dira jada hemen sartuta daramatzadanak bakardadean, eta ez dago ezer okerragorik hiru urtetan zure kontzientzia zikinarekin bizitzea baino. Uste dut heldu dela ni ere kaiola hontatik ateratzeko garaia.

Kartzelako azken solairu hau da nire askatasun nahiak asetzeko abiapuntua.

00:00

Hondorik gabeko igerilekura egin dut salto. Eskuekin txoriek hegoekin antzera, zerua uki dezakedala dirudi. Unibertsoa, espresuki niretzako itzali dela ematen du, isiltasuna nabarmena da.

Lurra jo baino lehen gogora datorkit izandako bizitza korapilatsua. Bola txikia zen hasieran, baina heltzen nihoan einean hau handiagotzen joan da, orain den korapilo bola erraldoira iritsi arte, guztiak nahaspilaturik, korapilo bakoitza bola horretatik askatzeko bidea aurkitu ezinean. Hori izan da, bai, bihurgunez beteriko errepide bat.

Lurra ikusten dut metro gutxi batzuetara, agurrak emateko ordua da.

Agur Lorea, argi pittin bat piztu zenuen zorigaiztoko errepide honetan, baina gureak ez zuen amaiera distiratsurik izan.

Agur Anai, etsipenak min ematen dit oraindik, baina nire bihotzean leku bat gorde dizut, beste bizitza batean elkar ikusteko esperantza izaten jarraitzen dudalako.

Agur Ama, esan bezala orbainak nire bularrean jarraitu du gaur arte, eta zaila den arren, espero dut nitaz harro sentitzea ni zutaz sentitzen naizen gisan. Zauden lekuan zaudela, beti eramango zaitut nire bihotzaren barrenean.

*Malkoren bat begi itxietatik irten da, azken malkoa.
Lurra jo dut, gelditu da nire bihotza, arrosak ere zimeldu dira.
Bukatu da.*

Agur,

Martin.



Naia Azumendi

DBH 4. Maila

“Altxeu jausten zaren bakoitzien”

ZIURGABETASUNEN UR NAHASIETAN

Jaiotza bakoitza ibai baten hasiera da; mendi baten gailurrean hasten den ibilaldia eta bizitzan dauden gora-beherak komunean daude. Izan ere, hauxe da bizitza, gure egunerokoa adierazten duen mekanismoa. Ibaiak beherantz doaz, baina ura aurrera, eta hori da orain eta beti egin izan behar duguna, nahiz eta batzuetan sentimenduek ibaietan dauden harri kozkor bezala oztipoz jokatu.

Nahiz eta askotan jausi, gaur atzo baino gehiago dakit. Beti ikasten, nire adimena zabaltzen. Hala ere, batzuetan jausi arren aurrera jarraitu behar izana izan dut; isiltzen banaiz ez da hitzik ez dudalako. Benetako lagunekin ikasi baitut denbora hartzen, ikusteko, jausi behar dela altxatzeko eta orekak ez duela balio lurrean zaudenean. Bizitza honetan, hainbat pertsona joan eta etorri egin dira, baina gauero neure buruari gauza bakarra galdetzen diot, ea non dauden inoiz joan ez diren lagunak? Beraiei utzitako nireganako konfiantza? Nire ahalmen hutsa? Tira, pertsona bati konfiantza handia ematea, zure egunerokoa kontatzea, zure sentimenduak berarekin konpartitzea, zure minak... dena ez dator bat. Batzuetan ze korapilotan nagoen galdetzen diot neure buruari.

Guk, gazteok, sarritan pentsamendua beste pertsona batengan dugu. Pertsonok normalean prezio handia ordaintzen dugu gure maitasun istorioak bizitzen ausartzeagatik. Batzuk pertsona horien gustukoa izateko aldatu egiten dira, nik hori ez dut ulertzen, bakoitza garen modukoak gara. Ezin gaitezke beste batzuegatik aldatu. Askotan, kritika nahiko entzuten ditugu. Nire ustez, lehenengo norbera bere buruarekin ondo sentitzea da, zuk nahi duzulako, zure askatasun guztia duzulako nahi duzuna egin ahal izateko. 15 urte, 180hile, 5.400 egun luze...

bizitzan hainbat aldaketa handi, txarrenari aurpegi onena ipini. Lagun urkoari egun on eta besteei hor konpon!

Urte horietan guztietan, niganako kritika asko entzun ditut, gehien bat tratu txarrak baina badakit aurrera egiten. Ez naiz inoren esklabu, ezta gutxiago ere. Nireganako konfiantza izaten ikasi dut. Pertsona asko pasa dira, eta asko maitatu izan ditut. Hala ere, era askotakoak, baina txarrak gutxi daude gaur egun nire inguruan.

Gorago aipatu bezala, maitatuak izan direnak orain eta beti nire bizitzan izango dira. Elkarrekin egoera onak eta txarrak bizi arren, pertsona oso atseginak dira. Batzuetan pentsatu izan dut, nire bizitzako oztopo handi bat nire autoestima baxua dela, baina ikusi ahal da benetako pertsonak zelan lagundu didaten. Horiek dira lagun onak. Uretan dauden harriek, nahiz eta momentu batzuetan oztopatu, urari mineral bezala laguntzen diote. Gurekin gauza bera gertatzen da, norberaren pentsamenduak zabalduz, zelakoak garen ikasteko eta zelako gizartea dugun ikusteko. Esperientziak nortzuk izan ginen, nortzuk garen eta nortzuk izango garen irakasten digu. Ibaiak mendietatik behera doaz eta haietatik ura, harrien artean. Behin baino gehiagotan ahalegindu naiz paisaia hori hasieratik irudikatzen, bizitza dugulako eta nahi duguna izan ahal dugulako.



Oihane Zabala
DBH 4. maila

*“Liburu handiak daude munduan
eta mundu handiak liburuetan”*

OIHANEKO ILUNTZEAK

Zer dira ametsak? Nire ustez ametsak benetan nahi ditugun nahiak dira, nahiz eta batzuetan guk oraindik ez jakin. Gainera, askotan egia bihurtzen direla esango nuke. Jende askok pentsatzen du haien ametsak ez direla betetzen edo ez direla beteko, baina, etorkizunak guretzat egitasmo bitxiak dituela pentsatzen dut. Adibidez, nire txikitako nahia, irakaslea edo FBIko agente sekretua izatea zen, baina, lehen esan dudak bezala, etorkizunak beste ideia batzuk zituen niretzat.

Irakasle izan nahi nuenetik gaur egunera arte 20 urte pasatu dira. Orain lan berezi samarra dut: oihanean egiten dut lan, hango landaredia eta animaliak aztertzen ditut. Egia esan, txikia nintzenean lan hau ez zitzaidan ezta bururatu.

Oihanaren erdian dagoen egurrezko etxe txiki batean bizi naiz, hiri eta herrixketatik oso urrun. Nik bakarrik egiten dut lan, bakarrik ondo konpontzen naizelako, animalien ezaugarriak eta bizitza ikertzen eta haiengandik ikasten.

Egun batean, zebrei argazkiak atera eta gero, nire etxera bueltatu nintzenean, norbait zegoela susmatu nuen. Badaezpada nire labana atera nuen baina gizon horrek, itxuraz, entzun egin zidan eta esan zidan:

- Kaixo Ismene, Gorka naiz, zure lankide berria.

Hori entzundakoan jota gelditu nintzen baina, kexatzera joan nintzenean, isilarazi ninduen:

- Ismene, zure buruzagiak bialdu nau biok batera lan hobea egingo dugulakoan eta ez ipini aurpegi hori, nik ere ez dut eta zurekin lan egin nahi.

Hori esan eta gero, logela batera joan zen eta han gelditu zen egun osoan.

Hurrengo egunean lanera joan nintzenean, bere logelako atea oraindik itxita zegoen, beraz, pozik joan nintzen tximuak ikustera. Tximu lasaiengana heldu nintzenean, Gorka ere han zegoela konturatu nintzen.

- Egun on, mesedez ez molestatu animalia lasai hauek.-Esan zidan Gorkak.

- Nik molestatu? Gogoratzen dizut zuk baino denbora luzeagoa daramadala hemen, haiekin lanean, beraz , zu baino hobeto ezagutzen ditut oihaneko animaliak.

- Badakit, luzaroan zaudela oihanean, baina nik ere asko dakit animalia hauei buruz. Zergatik ez diogu elkarri laguntzen? Horrela dakizuna irakatsiko didazu eta nik dakidana irakatsiko dizut.

- Ondo dago - ez zen pentsatuta nuena, baina horrela lan hobea egingo genuke, gainera, Gorka dagoeneko hasia zen tximuei buruzko informazioa azaltzen.

- Tximu hauek gizakion antzekoak dira. Haien artean elkarri laguntzen diote. Ikusten ditugun tximuak "saimiri sciureus" espeziekoak dira, baina 270 espezie existitzen dira mundu osoan.

- Ez nekien.

- Orain zuk gauza berri bat dakizunez, beste gauza bat irakatsi beharko didazu.

- Ondo da.

Zebren tokira eramán nuen Gorka, marradun animalia horiek nire animalia gustokoenetako batzuk zirelako

- Oihanera heldu nintzenean, harrituta geratu nintzen paisaiarekin, landare mota haiekin, animalia espezie berriekin... Inoiz ez nuen imaginatu hemen egongo nintzela, oihan izugarri batean ni bakarrik. Egia esan, lehenengo egunetan oso triste sentitzen nintzen, nire familia eta lagunik gabe, baina bosgarren egunean buelta bat ematera irten nintzenean, zebrak ikusi nituen. Askotan ikusita nituen zooetan, baina

han eta hemen ikustea oso desberdina da, beraz, hemen ikusi nituen lehenengo animaliak zebrak izan ziren.

- Nik ez daukat animalia gustukoena, nire ustez, denak dira interesgarriak eta harrigarriak. Eta arrazoia duzu, hemen ikustea, haien habitatean edo zooan ikustea ez da gauza bera.-erantzun zidan.

- Beno, badakizu zergatik jaten duten jarrera horretan?

- Ez, zergatik?

- Horrela adi daudelako, hau da, lehoi bat badator, arin ikusiko dute eta alde egingo dute.-azaldu nion.

Gero, hainbat animaliari buruz hitz egin genuen, haien ezaugarriei eta datu bereziei buruz.

Azkenean berandu egin zen, beraz, etxera bueltatuko zen galdetu nion.

- Ez, nik iluntzea ikusi nahi dut, hemen oso polita izan behar da.-erantzun zidan.

- Bai, oso polita da.

Gau hori izan zen iluntzea norbaitekin ikusi nuen lehen aldia... eta espero nuen azkena ez izatea.

Hilabete oso bat igaro zen horrela, egunez animaliak aztertzeraz joaten ginen. Oso ondo pasatzen nuen Gorkarekin, beti zuen zerbait interesgarria esateko eta nik pila bat gogorapen kontatzen nizkion. Eguneko momenturik onena, zalantzarik gabe, iluntzeak ikusten genitunean zen. Eguzkia gordetzen ikustea txundigarria zen.

Denok dakigu dena ezin dela perfektua izan, horregatik gure istorioa ere ez.

Egun batean, normalean baino goizago esnatu nintzen eta gosaltzera joan nintzen. Sukaldera heldu nintzen momentuan, Gorkaren mugikorra jotzen hasi zen, baina lo zegoenez, nik hartu nuen. Mugikorra hartu nuenean, Maialenek deitzen ziola ikusi nuen eta hartu bezain laster hitz eginten hasi zitzaidan:

- Gorka, lehen baino lehen etorri behar zara. Badakizu zergatik.-esan zidan neskak oso urduri.

- Ismene naiz, Gorkarekin egiten dut lan. Lo dago, baina lasai, orain esnatuko dut.-erantzun nion.

Esan eta egin, Gorka esnatzea lortu nuenean, Maialenek esandakoa kontatu nion eta jarraian Gorka bere maleta prestatzen hasi zen. Nik ez nekien zer ari zen gertatzen eta horregatik Maialen nor zen galdetu nion, baina berak ez zidan erantzun, entzun ez balit moduan. Bakean uztea erabaki nuen eta sofara joan nintzen aurreko eguneko argazkiak ikustera eta apunteak prestatzera.

Hogei minutu beranduago bere logelatik irten zen maletarekin eskuan. Ikusi nuenean, beldurtu egin nintzen, hilabete horretan zerbait berezia sentitzen hasi nintzelako berarekin.

Horregatik ez nuen nahi bera joaterik eta are gutxiago azalpenik eman gabe.

- Nora zoaz? Zegatik? Nor da Maialen?-hauek ziren egin nahi nizkion galderetako batzuk.

- Etxera.

Hori izan zen erantzun bakarra, arrazoi eta azalpenik gabe. Hitz hori esan bezain laster, atetik irten zen.

Oso triste geratu nintzen. Ezagutu nuenean, Gorka nire albotik joatea nahi nuen eta lasaiago egongo nintzela ni bakarrik, ez nuela inor behar pentsatzen nuen. Dirudienez, erratu egin nintzen, bera joateak pentsatzen nuena baino min handiagoa eman zidan, askoz handiagoa. Bi aste igaro ziren joan zenetik, txarto nengoenetik. Bi astetan egon nintzen zergatiak hausnartzen. Agian, Gorkak ez zuen nik sentitzen nuena sentitzen, agian beste lan bat aurkitu zuen... Hainbat "agian" imaginatu nituen, baina, azkenean beti berdina pentsatzen nuen: Maialen hura bere neska-laguna edo emaztea zela. Gainera, ez zidan deitu ezta mezurik bidali bi aste haietan, gertatutakoa azaltzeko. Pentsatzen dut hori izan zela min handien eman zidana.

Sentitzen nuen mina ez zen fisikoa, eta arinago ez nuen inoiz hori sentitu, bere falta sumatzen nuen, handiegia.

Falta hori ez zen bete berriro ikusi nuenera arte. Nahiz eta min hori osatu, oso haserre nengoen berarekin. Joan egin zen ezer esan gabe, niri azalpenik eman gabe bakarrik utzi ninduen.

- Zertan zaude hemen, Gorka? Ez zinen joan?-galdetu nion.

- Ismene, ikaragarri pozten nau zu ikusteak-esan zuenak harrিতuta utzi ninduen. Ematen zuen egia esaten zuela, baina egin zidana ez zen hain erraz ahazten, hitz gutxi batzuekin.

- Zergatik bueltatu zara?-galdetu nion, azalpen bat behar nuen.


- Badakit, ez nintzen horrela joan behar izan, ezer esan gabe.-hitz egitera joan nintzenean, eskuarekin egin zidan isiltzeko eta berari azaltzen uzteko- Nire ama gaixorik zegoen hona etorri nintzenean, baina hobetzen zegoen, beraz, lan hau aukeratu nuen. Orain dela bi aste, dakizunez, Maialenek deitu zidan, nire arreba txikiak, eta esan zenidanarekin dena ulertu nuen. Etxera bueltatu behar nintzen amaren osasunak txarrerantz egin zuelako. Parkatu, ez nizun hau dena kontatu, baina, momentu hartan oso beldurtuta nengoen, hain beldurtuta nengoen ezin nuela hitz egin.

Hitz egiten amaitu zuenean, dena ulertu nuen, baina oraindik beste galdera bat nuen:

- Zergatik ez zenidan deitu ezta mezurik bialdu?

- Nire ustez, hobeagoa da gauzak aurpegira esatea.-erantzun zidan eta gero urduri jarri zen-Gainera beste gauza bat ere esan behar dizut, nire amak eta Maialenek ezagutu nahi zaituzte.

Horrela konpondu zen nahastea eta berriro iluntzeak elkarrekin ikusten hasi ginen.



Elena Aranbarri Bediala
DBH 4. maila

“Hegazkinei buruzko gauza berriak ikastea gustatzen zait”

AMETSA

Euri tantak entzuten ditut ohetik. Erlojua begiratu dut eta ohartu naiz oraindik hogeit hamar minutu ditudala prestatzeko. Gogaituta nago betiko errutinarekin. Beti zer berbera, zortzietan izartu, klasera joan, betiko zermoiak entzun eta gutxi batzuetan lagunekin irten.

Ni Sofia, DBHko ikasle bat naiz. Egunero nire lagun minarekin, Mariarekin, joaten naiz ikastetxera. Gaur astelehena da eta horrek esan nahi du fisika eta kimikako klasea daukadala. Niretzat irakasgai gustukoenetako bat da, nire etorkizunarentzat zerbait garrantzitsua delako. Baina ez naiz oso ondo moldatzen.

Hirugarren ordua da eta Alex, irakaslea klasean sartzean gelakideak isildu egin dira. Beti bezalaxe liburua zabaldu eta txapa botatzen hasi da. Gustuko dut irakasgaia baina ezin dut irakaslearekin. Ez dio ematen behar duen emozioa. Alboetara begiratzen dut eta klase erdia bere munduan dago. Ia txirriona jotzeko ordua da eta maisua pasadan asteko azterketak banatzen hasi da. Urduri nago. Ez nuen oso ondo egin azterketa hura. Banatzen hastean, nire izena entzuten dut eta azterketaren bila noa. Izerditan blai ditudan eskuekin orri ziztrin hura hartzen dut. Beste lau bat! Aste oso bat ikasten lau bat ateratzeko. Ezin dut sinetsi! Denak jolaslekura joan dira eta nik ogitartekoa hartu eta Mariarekin elkartu naiz. Berak badaki zein den nire ametsa, baina batzuetan berak ere esaten dit nire ametsa ez dela beteko. Gaur ere egun horietako bat da. Mariak bere ogitartekoa jaten duen bitartean hauxe esan dit:

- Beste lau bat! Eta oraindik uste duzue zure ametsa lortuko duzuela? Ez zara konturatzen ez zarela ona irakasgai horretan?
- Utzi bakean, badakit kostatzen zaidala baina azkenean lortu egingo dut, ikusiko duzu.

Hurrengo klasera bueltatu gara Maria eta biok. Ondorengo hiru ikasgaiak gogorrak izan dira. Ezin izan ditut burutik kendu lagun minak esan dizkidan hitzak.

Etxera bueltatzeko ordua izan denean, oraindik haserretuta nagoenez Mariarekin, ez dizkiogu hitz askorik esan elkarri.

Etxera sartu eta nire txakurra, Pluto, agurtzera etorri zait. Hiru-lau musu eman eta gero sukaldera joan eta dilista platerkada bat jarri dut mahai gainean. Oraindik bostak arte denbora dago ama lanetik bueltatzen denerako. Hor jarraitu dut koilararekin dilistak mugitzen. Ez dut gose askorik eta hori ikustean, alde batera utzi dut janaria. Nire logelara abiatu naiz eta nire motxilatik eguneroko liburuak atera ditut.

Orduak pasatu dira, nik etxeko lanak egiten jarraitu dut baina denbora pasa ahala nire urduritasuna handitzen doa. Ez dut nahi bostak heltzerik, amari nire azterketako emaitza ez esateko. Giltzaren soinua entzun eta txakurra aterantz abiatu da. Adore pixka bat hartu eta aterantz abiatu naiz. Hurbiltzen noala ama konturatu da zerbait garrantzitsua esan nahi diodala eta ia negarrez nagoela; beraz, berria kontatu diot. Bere aurpegia ikustez batera konturatu naiz liskar handi bat edukiko dugula.

- Noiz arduratuko zara zure etorkizunaz? -esan dit amak.
- Azkenean gainditu egingo dut. Denbora behar dut baina poliki-poliki lortuko dut.

Amak begirada melankoliatsu bat bota dit. Eguna ezin da txarragoa izan. Plutorekin kalera irtetzea erabaki dut. Herritik buelta bat ematera joan naiz eta Gabonetako argi distiratsuak ikusten nagoelarik kafetegi batera sartu naiz. Hasieran, zalantzan nago txakurra nirekin dagoelako baina kartel batek dio txakurrekin sartu daitekeela.

Txokolate bero bat hartu dut eta leiho alboan dagoen butaka batean eseri naiz. Orduak pasatu ditut leihotik begira ea nola jendea leku batetik bestera doan ikusten. Bitartean nire burua topera dabil. Ematen du nire inguruneke guztia nire kontra daudela. Plutori begiratu diot eta bera oilasko zatiak jaten dagoen bitartean konturatu naiz bera dela, benetan, nire ondoan daukadan benetako laguna. Bere ile leuna laztantzen hasi naiz eta bi musu emanez berriz leihorantz begiratu dut. Bat-batean erlojuari erreparatu diot. Zazpi eta erdiak dira! Ezin dut sinetsi nola pasa den denbora. Txakurra hartuz etxerantz abiatu naiz.

Kalean hotz asko egiten du eta uste baino lehenago euria hasi da. Ahal dudan bezalaxe estali naiz, baina azkenean blai-blai heldu naiz etxera.

Etxeko beroak agurtu nau. Sukaldetik datorren lapikoen zaratekin jakin dut ama hantze dagoela. Nire logelarantz abiatu naiz, eta bidean aita aurkitu dut. Bi musu emanez, dutxara joateko agindu dit. Egia da momentu honetan ez nagoela ezetza emateko asmoarekin.

Ur tantak nire gorputzetik erortzen dauden bitartean, afaltzeko ordua heldu da. Pijama jarri eta nire etxeko zapatila koloretsuak jarri ondoren jangelara joan naiz. Ez dut gose askorik baina ez dut inor arduratu nahi.

Denok bukatu ondoren, egongelan telebista piztu eta film bat ikusi dugu. Lo gelditzen nagoela aitak zerbait xuxurlatu nau:

- Ez etsi inoiz.

Ez nago seguru amets bat izan den edo benetan gertatu den, baina momentu honetatik aurrera zerbait gertatzen baldin bazait hitz haiek gogoratuko ditut.

Hamar urte igaro dira momentu horretatik.

Soinu indartsu batek esnatzen nau nire amets zoragarritik. Botoiari ematen diot eta ordua begiratzen dut. Beti bezalaxe adorea bildu eta mugitzen hasten naiz. Hiru lau botoi jo eta nire lagunarekin hitz egiten hasten naiz.

- Egun ezin hobea egiten du zeruan ibiltzeko.
- Bai, jakina. Erantzuten diot.

Irratiak adierazten digu pistara joateko eta dena martxan jarriz, aginteak hartzen ditut. Zerua inoiz baino politago dago. Gaua denez, izarrez beteta dago eta ia hodei bat ere ez da ikusten. Gainera ilargi bete dago. Berari begira geratu naiz. Ematen du, eskua luzatuko banu bera ukituko nukeela. Hain ederra da...

Helmugara heltzen gaude, aldi honetan Bartzelonako aireportura bidaiatu dut, etxera. Bidaiariak agurtu ondoren, maletak hartu eta hegazkinetik jaitsi naiz. Han daude nire gurasoak irribarre handi batekin. Besarkada handi bat eman didate eta etxerantz abiatu gara.

Afaldu ondoren, egongelara joan gara, eta betiko ohitura zela eta, beste film bat ikusi dugu. Lo gelditzear nagoela, konturatu naiz nire bizitza asko aldatu dela. Ez da bide erraza izan, baina benetan amets bat badaukazu, lortu arte zure bidea egiten jarraitu behar duzu. Nork esango luke pilotua izango nintzela... Beti jakin dut nire ogibidea zein izango den.





Malen Aretxaga Aldamizetxebarria
DBH 4. maila

*“bizirik jarraitzeaz poztu beharra dago,
bizirauteak barrutik hiltzen gaituen arren”*

ABESTI BAKOITZEAN

Hor nengoen ni, ohean etzanda, negarrez, *“jakin bide luze honetan bakarrik ez zauzela”* entzun bitartean udako hainbat une birgogoratzen. Ez nekien ondo zer nahi nuen, uda hura berriz bizitzea edo datorren uda behingoz heltzea. Oraindik, institutu berriko lehenengo eguna besterik ez zen, iraila hain zuzen eta leku ezezagun batean berria izatea zaila zela nekien arren, ez nuen espero horrelakoa izango zenik, hain gela hotza izango zenik. Ikaskideak ezagutzen ez nituen arren, ez nengoen oso ziur, ez nekien zelakoa izango zen urtea eta horrek kezkatzen ninduen, ezagutzen ez nuen horrek ikaratzeko ninduen. Horrez gain, gehiago pentsatzeari uztea erabaki eta ohera joan nintzen baina bat-batean, oraindik argitu ez dudana zalantza bat burutu zitzaidan: erabaki ona izan al zen institutuz aldatzea?



“Gure ondorengoek garaituko zaituzte askatasunean” entzuten ari nintzen, berriz ere ohean nengoen eta bai, oraingoan ere negarrez nengoen baina bost axola zidan udak, bihar zer egingo nuen ere ez bainekien. Azaroa zen oraindik, eguraldi hotza eta euri zaparradak hasiak ziren eta nire barnean antzerako zerbait sentitzen nuen. Nire gelakideekin harreman ona nuela uste nuen arren, azkenaldian ez nuen berdina nabaritu eta Izaskunek, euskara irakasleak

ere ez zuen hori uste. Hortaz, zerbait arraroa nabaritzen zuela esan eta nirekin hitz egiten saiatu zen. Hasieran, zaila egin zitzaidan ondo ez nengoela azaltzea eta batez ere, oso zaila zen niretzat hori onartzea, nahiago nuen nire burua engainatu. Hala ere, azkenean kontatu egin nion eta lasaiago sentitu nintzela onartu behar dut, ez dakit inoiz gai izango naizen Izaskunek nigatik egindakoa eskertzeko. Hitz egiten egon ondoren, ni baino urte bat zaharragoak zirenekin egon ahalko nintzela ondorioztatu genuen, institutuan gutxienez bakarrik ez sentitzeko (gero kalean nire lagunak baintuen) baina hori lortzea gauza zail gisa ikusten nuen. Egun soil batean zulo ilun batera erori nintzela ikusi nuen eta argi txiki bat ikusten nuen arren, ez zen batere erraza argi horretara heltzea. Guzti honek oraindik argitu ez dudana beste galdera bat egitera eramanez ninduen: arazoa nirea al da?

Beste behin Ken Zazpiren letra eta musikaren laguntzaz milaka malko isuriz pasatzen nuen gau horietako bat zen, honekin ikusi nuen musikak eta sentimenduek duten erlazioa. Ni baino urte bat zaharragoak direnen lagun izatea lortu nuen galdezka bazaude, bai, haien lagun egin nintzen eta haiekin ibiltzen nintzen, baina arazoak handitzen joan ziren. Badirudi argi hori infernuaren argia besterik ez zela. Nire gelakideek ez ninduten errespetatzen eta nirekiko zuten amorrua handiagotu egin zen ez baitzuten oso harreman ona orduan ni nenbilen jendearekin. Haien irain eta mespretxuek leher eginda uzten ninduten, baina lagunak babesak berriz indartu eta aurrera egiteko gogoak ekartzen zizkidan. Hala pasa nuen gabonak heldu arte pasatako denbora: irakasleak zoro moduan niri lagundu ezinean ibili ziren, gauak negarrez pasatzen nituen musika entzun bitartean, baina hala ere aurrera egiteko intentzioak nituen, gutxienez gabonetan deskantsu txiki bat hartzeko aukera izango bainuen.

Opor berezi hauetako deskantsua ezin hobea izan zen eta hori entzundako musikan nabaritzen nuen. Orduan *“Belar txarrak bezala, ni ez naiz inoiz hilko”* bezalako letrak ziren gauetan nagusi eta horrek poztu egin ninduen, indarrez josi nintzen hortik aurrera biziko nituen hileak aguantatzeko. Beldurrarekin bizi nuen garai hori baina beldur hori ez da alderagarria urtarrilean zain nuen oparitzoarekin, berriro ere *“izan ginen haur haien ikara gabeko irriak non dauden”* bezalako abestiek girotzen zituzten nire gauak. Institutura bueltatu nintzenetik kurtsua amaitu arte hainbat gauza lapurtu zizkidaten, beste hainbat apurtu, beste askotan iraindu ere egin ninduten, baita marjinatu ere... eta benetan diot, hau bizitzen joan bitartean ikusi nuen eskolan erakutsitako pelikulak eta bideoak, baita honen inguruan egindakoa hainbat lanek ez zutela islatzen momentu hartan sentitzen nuena.

Urtarrila, hura bai hilabete aldrebesa, berriz ere abesti eta malkoek osatzen zituzten nire gauak. Izandako esperantza guztiak galdu egin nituen, berdin zidan denak. Nire helburu bakarra infernu hartatik bizirik irtetea zen baina denbora pasatu ahala ezer ez zela aldatzen ikusi nuen. Guztia txarrerara zihoala nabaritzen nuen bitartean, nire barrua hiltzen zihoan, usteltzen ari nintzen eta ez nekien nola esan, ezin nuen oihukatu,

ez nuen ahotsik. Sentimendu hauek nire egunerokotasunaren parte ziren arren, inork ezin zuen hau nabaritu, inork ezin zuen jakin ni txarto nengoenik edo hori egiteko esan zidaten behintzat eta nik ere pentsatu nuen horrela agian zerbait aldatu egingo zela, baina berriz ere ez zen hala izan. *“Ahaztutakoa ahaztu eta aurrera egin”* entzuteak ere berdina zioen, malkoak isuri arren, abestiak alaiagoak ziren kanpotik eman behar nuen irudi horrengatik.

Denbora pasatu ahala, guzti hau errutina bihurtzen hasi zen, baina ez zen ohituta zauden errutina horietako bat, sufritzen ari zaren horietako bat baizik. Goizero, institutura joan aurretik begiak makillatzen nituen inork ez zezan nabaritu begiak handituta nituela, inork ez zezan nabaritu gau osoa negarrez pasatu nuela. Hau ere *“bizitzan gogor jokatzeko ikasi dugu”* entzunez egiten nuen eta oso zaila egiten zitzaidan, azken finean, ez da ekintza soil bat. Guzti honekin nire burua ahultzen nuela ikusten nuen, gero eta txikiagoa nintzen, txarto egonda ere hura ezkutatzeko derrigorra nuen eta hori ez zen justua, zergatik egin behar nuen nik hori? Nire buruarekin nuen sentsazioa oso txarra zen, agian nire erruz ari zen gertatzen guzti hau, ez nekien nik ere zer pentsatu.

Institututik heldu eta arratsaldea *“dendetan saltzen ez dan giroa dao gure festan”* entzuten pasatzen nuen apur bat pozteko intentzioarekin baina nire saiakerek porrot egiten zuten. Institututik bueltatu ondoren, arratsalde eta gau osoa pasatzen nituen hurrengo egunean zer egingo zidaten, zer gertatuko zen, horren aurrean ni nola sentituko nintzen eta baita epe luzera guzti hori noiz amaituko zen edo pozik egoteko aukera noiz izango nuen pentsatzen. Gero astero bisitatzen nituen hiru psikologo desberdinek hainbat aholku ematen zizkidaten edo familiakoek pozik egoteko edo ikasgelara indartsu eta positiboki pentsatuz joan behar nintzela esaten zidaten, baina nola nahi ote zuten nik guzti hori egitea institutuan bakarrik eta mespretxatuta pasatzen ez nuen denbora, hurrengo egunean gertatuko zenean pentsatzen pasatzen banuen? Ez nuen ezer ulertzen, ez nekien zer sentitzen nuen baina ez zen batere ona. Hortaz, nik nire burua ulertzen ez banuen, nola ulertuko ninduten nire gurasoek? Nola ulertuko ninduten nire lagunak? Nola lagunduko ninduten? Ezinezkoa zen, gainera, askotan haiek ere desesperatzen ziren eta horrek bakardadera bultzatu ninduen. Hau da, ez nengoen bakarrik lagun onak baintuen baina ezin ninduten lagundu ere ez beraz nire sentimenduak niretzako gordetzen hasi nintzen eta handik gutxira nire lagun eta familiarengandik urruntzen joan nintzen haietzako traba bat nintzela sentitzen nuelako.

Bakardade hau handitzen zioan baina nik *“orain hemen gaude mozkorturik abesten”* bezalakoak entzuten jarraitzen nuen, horrela apur bat poztuko nintzelakoan.... Hau guztia nire ingurukoentzat oso zaila izan zen. Martxo amaierarako haiengandik urrundu nintzen, ezin zuten niri laguntzeko ezer egin eta ezintasun horrek tristeagotu egiten zituen. Hori gutxi balitz, ni desesperazioan murgildu nintzenean, errudunak bilatzen hasi nintzen eta egia da noizbait pentsatu izan nuela haiek ere errudunak zirela ez nindutelako behar bezala laguntzen edo ez nindutelako ulertzen.

Suposatzen dut zuk maite duzun pertsona batek eta lagundu nahi duzun pertsona batek zuri buruz hori pentsatzeak triste jartzen zaituela. Beraz, esan dezaket bizitako honetan ez nintzela sufritu zuen bakarra izan, baina jendea negatiboki triste ikusteak txarto sentitzera bultzatzen ninduen eta berriz erruleta horretan sartzen nintzen.

Dinamika honek nire burua erruduntzat ikustera eramanez ninduen eta hau izan zen guzti honetako gauza zailena, hau guztia nire erruagatik gertatzen zela pentsatzea. Ezer ez zen hobetu eta nire autoestimua txikitzen joan zen barneko beldurrek ahultzen ninduten heinean. Pentsatuko duzue horrelako kasuetan ez dela errudunak aurkitzen hasi behar baina nire buruak errudun bat behar zuen, arrazoi bat behar zuen, guzti honi zentzua aurkitu behar zion. Momentu haietan hainbeste gauza sentitzen nituen ezin nituela ondo azaldu eta orain ere hauek azaldu ezinean nabil. Apur bat laburbilduz, esango nuke arazo handiena zure burua erruduntzat hartzen duzunean hasten dela, zure burua gorroto duzunean, egunero egon behar baitzara harekin, beste ezerk ez inork ez zaituelako poztuko, mila lagun edukita ere, arazorik ez eduki arren ere, txarto egoten jarraituko duzulako. Orduan, gauzak aldatzen saiatzeari utzi nion eta pozik egoteko aukera gabe geratu nintzen ez bainengoen ondo nire buruarekin ere.

Apirila izango zen, berriz “Gelditu denbora eta eramango zaitut kate guztien gainetik” batek nire gauak biribiltzen zituen... Honek guztiak depresio bat eragin zidan eta honek zulo sakon batera bultzatu ninduen, banekien zaila izango zela hortik noizbait irtetea. Beti nengoen triste, nahiz eta kalera beti barre batekin irten ez nuen poztasuna hiru hilez ikusi. Gainera, inor ez zen gai izan hau gaixotasun bat zela ikusteko, ez zuten ulertzen ezinezkoa egiten zitzaidala pozik egotea eta honek askotan nire burua penagarria zela ikustea eragin zidan. Hau da, besteek nire egoera hain sinplea zela ikusteak (edo hori transmititzen zidaten), nik beste arazo bat nuela pentsatzera bultzatu ninduen, ez nintzela gai depresioaren aurrean ezer egiteko uste nuen. Gainera, egunero nengoen triste eta ezin nintzen egon egunero nire lagunei triste nengoela esaten; beraz, haiekin nituen harremanak arraroak bihurtzen hasi ziren. Beste askotan, nirekin haserre zeudela bururatzen zitzaidan eta nire buruaren gauzak zirela nekien arren, kezkatu egiten nintzen. Harreman toxiko eta nahiko txarrak izatera heldu nintzen.

Ziur aski nabaritu duzun bezala, nire gelakideei buruz ez nuen ezer pentsatzen. Halaxe da, nire buruarekin eta hainbeste maite nituenekin nuen dilema hark ez zidan beste ezertan pentsatzen uzten eta institutuan oraindik mespretxatzen ninduten arren, nik nire burua gehiago mespretxatzen nuen.

Maiatza zen, nire egunen azkena izango al zen? Egunero ez bazen, ia egunero Ken Zazpiren abesti horietako bat jarri eta eskumuturreko zainak moztzen pasatzen nuen gaua negar egin bitartean. Zertarako nahi nuen bizi? Eguneroko sufrimendu baten bizi banintzen eta guztiek denborarekin dena hobetuko zela esaten zidaten arren, ezer ez zen

aldatzen. Gainera nik beti pentsatu izan dut hauek zoroen gauzak direla, beraz, ni hau egiten ari banintzen, zoroa nintzelako izan behar zen.

Hau hasiera baten helburu bakarrarekin hasi zen. Honekin behingoz nire mina kontrolatzen nuela sentitzeaz gain, min psikologiko eta abstraktu hori, min fisiko eta erreal bihurtzen nuen eta honek gauzak errazten zituela iruditzen zitzaidan. Honez gain, uste nuen honekin nire burua iratzarri egingo zela eta pozik egiten hasiko nintzela; baina hau nire zentzu gabeko txorakeria bat zela ikusi nuen. Momentu haietan ez nuen berdina uste eta nire bizitzarekin amaitzea erabaki nuen gauzak aldatuko ez zirela ikustean. Zorionez, orain hau idazten ari naiz, egindako saiakera horiek zorabio batekin amaitu ziren oraingoz baina saiakera hau egin edo pentsatzean gero eta txarrago sentitzen nintzen, tristeago nengoen. Hainbat gutun idatzi nituen nire lagunak agurtzeko... ingresatuko nindutela ere esan zidaten eta holako bakoitzean gero eta txikiago sentitzen nintzen.

Ekainean *“suak akabatu ditzan gure beldurren dardarak”* batek girotzen zituen nire egunak. Pozago nengoela esango nuke, uda heldu zen eta gauzak hobetuko zirela uste nuen arren, ez zen hala izan. Azkenean, frustrazio horrek eta hurrengo urtean institutu hartara bueltatu behar izanak ito egin ninduten, ezin nuen gehiago, esperantzak galduta amore eman behar izan nuen, hile asko neramatzan nire bizitza eta neure buruaren kontrola berreskuratu nahian, baina alferrik zen, ez nintzen gai izan nire bizitza edo gutxienez nire burua kontrolatzeko. Txorakeria bat da ezta? Hala uste nuen, nire bizitza eta nire burua nik kontrolatu beharko nituzke, ez zuen zentzurik honek.

Hortaz, *“hainbeste amets betetzeko, zenbat bidaia egiteko”* izan zen azkeneko abestia, inoiz ahaztu ezingo dudana abestia. Uztailaren 8a izan zen nire azken eguna, tristura horien azken eguna. Baina ez nintzen ezer utzi gabe joan, esaldi bat utzi nien: **bizirik jarraitzeaz poztu beharra, bizirauteak barrutik hiltzen gaituen arren**. Espero dut jendeak honen inguruan pentsatu izana, baina ez dut nahi inork guzti honetan errudun izan dela pentsatzea, ez baita egia. Ekintza egoista bat izan zen, baina ez nuen beste biderik ikusi eta batek daki bizirik egon ezkerro zer gertatuko zen. Hortaz, ama, ahizpa, izeko, lagun, hau irakurtzen ari bazara, inoiz argi esan ez dizuedan zerbait esan nahi dizuet: barkatu, barkatu hau egiteagatik eta eskerrik asko bihotzez nigatik egindako horregatik guztiagatik.

Hona heldu bazara, ulertuko duzu ni ez nagoela hau idazten, gaur egun ez bainago hemen, hortaz nork idatzi du hau? Zer gertatu da? Zergatik da hain zaila bere azalean jartzea?

Lur (2004/II/6-2019/VII/8)



Irati Perez Urbina
DBH 4. maila

"Saiatuko diren arren ez gaituzte isilduko"

IKUSI ARTE

Gaztea nintzenean, uda guztietan kostaldera joateko ohitura neukan, aitonaren etxera, kuxkuxeroz betetako herri aspergarri hartatik kanpo arnasa pixka bat hartzeko desioz. Amarekin joaten nintzen, baina bi aste igaro ondoren, agur esan behar izaten nion, lan ziztrin hartara bueltatzeko gogo gutxiz autobusean sartzen zen bitartean. Ni aldiz, aitonarekin geratzen nintzen bertan, hondartza bi minututara zeukan etxe eroso hartan. Etxea aitonak 22 urte zituenean erositakoa zen. Txiki-txikitatik lan egitearen gauza on bakarra hura erosteko dirua lortzea izan zela kontatzen zidan beti, amonaren irudiari kontu handiz hautsa kentzen zion bitartean. Leku berezia izan behar zuen, aitona nomaden antzekoa baitzen, eta bizileku hura aurkitu zuen momentutik ez zelako handik mugitu.

Amona Teresa bertan bizi izan zen. "Mutiko, amona ezagutu nuen egunetik utzi gintuen arte izugarri maite izan nuen. Orain, jada ezin dut maite, bere faltak beste sentimendu guztiak suntsitu dituelako. Baina zaude lasai, bere arima etxebizitza honetan geratu zen, eta nire azken egunera arte babestu egingo dut." Aitona beti ikusi nuen gizon alai, jakintsu eta txantxazale baten moduan, baina batzuetan pertsona alaienek ere norbait behar dute zama handiak eramaten laguntzeko, eta aitona eskutik helduz, pertsona hori ni izango nintzela adierazi nahi izan nion, esandako hitz haiek nire bihotza erditu ondoren.

Leku berezia izan behar zuen bai, bertan ezagutu bainuen betiko nire ametsetako protagonista izango zena. 1978ko uztailaren 28an bizilagun berriak genituela esan zidan aitonak, pianoko teklak inoiz ukitu ez balitu bezala aztertzen zituela. Aitona piano-jole aparta izandakoa zen. Bere sinfoniak nire umetako negarrak lasaitzen zituzten bakarrak ziren, baina ikaragarria da nola gaixotasun batek edonoren jakinduria

guztiarekin akabatu dezakeen. Aitona begi malenkoniatsuekin hurbiltzen zenean instrumentu hartara, nire barruan damua besterik ez nuen sentitzen; damua, nire 16 urteetan zehar pianoa jotzen ikastera inoiz ausartu ez izanagatik. Beti uste izan dut bazekiela zerbaitek galarazten ziola hainbeste maitatutako sinfonia haiek jotzea, eta gustatu zitzaidakeen ni neu nota haiek musika bihurtzeko gai izatea, azken aldiz izanda ere.

Bizilagunak, lau ziren. Gurasoak eta bi seme-alaba. Alaba nerabea zen, eta semea umetxo bat, 9 urteko tartea izango zutela esango nuke nik gutxi gorabehera. Ondoko etxea nahiko tristea eta iluna zen. Haiek heldu aurretik etxetik ateratzen ez zen emakume zahar bat izan zen errentaria, baina familia bitxi honek alaitasunez bete zuen. Hormak kolore desberdinez margotu zituzten eta koadro ederrak eseki zituzten haietan, denborarekin amak margotutakoak zirela konturatu nintzenak. Nire logelako leihoaren parean amonaren besaulki eroso jarri eta egunak igaro nituen bertatik begira.

Auzoari bizia ematen zion familia hartako txikienak ile hori kizkurra zeukan, eta eguna saltoka pasatzen zuen; hiperaktibitatea pairatzen zuela zirudien. Amak zapi gorri bat zeraman buruan beti eta aitak ehunka argazki ateratzen zizkien inguruan zeuzkan gauzei, baina bere gustukoena emaztearen argazkiak zirela esango nuke, botoia sakatzerakoan begietan sortzen zitzaion distiraz abiatuz.

Alaba hitzekin deskriba ezina iruditu zait beti, baina saiatu egingo naiz. Bere ile luze eta beltz-beltza haizearekin bihurritu egiten zen. Soineko zuri luzea eraman ohi zuen ia egunero (bere gustukoena zela suposatu nuen), eta egunak kantuan pasatzen zituen, bere neba sorbaldetan eramaten zuela. Nire gelaxkatik ikusitakoarekin ezin nuen bere aurpegia zehazki deskribatu, baina bere nakanak edonoren atentzioa deitzeko gai ziren.

Interesgarria zen, bai, aldiro bizilagunak aztertzea, baina egunak igaro ondoren aspergarria izatera pasa zen, eta hondartzara zihoazen egun eguzkitsu batean, lehenago egin behar izan nuena egitea erabaki nuen. Aitona hondartzara joateko konbentzitzea erraza zen, izugarri gustatzen zitzaiolako itsasoan oinak bustitzea. Oinetan harea sentitu bezain laster ikusi nituen, guztiak uretan sartuta ama izan ezik. Honek itsasertzetik gehien maite zituen pertsonak begiratzen zituen. Aitonaren aulkia eta itzalkina ondo kokatu ondoren, neu ere itsasoan barneratu nintzen. Bat batean, igeri egiten ari nintzela haizeak aitonaren itzalkina apurtu eta hegaz egiten hasi zen, eta aitona, harrapatzeko saiakeran erori egin zen. Itsasertzeko zapi gorridun emakumea izan zen aitona laguntzera abiatu zena. Presaka atera nintzen uretatik, aitonaren egoera larria zelakoan, eta emakume galant hari eskerrak eman nizkion eskainitako laguntzagatik, baina nire toallan esertzen zela hauxe esan zidan:

-Zoaz lasai, gazte, ni neu geratuko naiz zure aitonarekin, bioi ondo iruditzen bazaizue. Horrela, ez gara bakarrik egongo, eta zuk jolas ezazu. Hor dauzkazu nire seme-alabak, lagun berrien bila.

Aitona irribarretsu ikusita, lepoko min pixka batekin bakarrik, buruaz agurtu eta uretara itzuli nintzen, emakumea bere familiarekin zergatik bustitzen ez zen neure buruari galdetuz.

Egun hartatik aurrera, Aitziber izeneko emakume haren eta aitonaren arteko elkarrizketei esker, familia biak lagun egin ginen. Haiiek asko zaintzen zuten aitona, nahiz eta bera gero eta gutxiago oroitu haien aurpegiez, eta nik gero eta gehiago adoratzeko nituen. Bazkariak eta afariak konpartitzen genituen, izarrez betetako gauetan hondartzan elkartzen ginen eta beldurrezko istorioak kontatzen genizkion elkarri, eta batzuetan, hondarrean etzanda geunden bitartean, neska liluragarri haren arnasa sentitzen nuen. Abuztuko egun batean, nire urtebetetzea ospatzeko, guztiok elkartu ginen geure etxean, eta egoitzaz aldatu aurretik pianoa jotzen zuela azaldu zigun bere aitak. Beraien etxean pianorik ez zeukatenez, aitonarenari bizia emateko pertsona ezin hobea zela jakin nuen. Bere neba ilehoria barregarria zen baita eta edonork oso erraz maitatuko zukeen mutikoa iruditzen zitzaidan. Oso gustuko zuen nire sorbaldetara igotzea, haietan munduko gizonik altuena eta indartsuena sentitzen zela esaten baitzuen.

Dударик gabe, une mingarriak ere badira bizitzan zehar, eta horietako bat zen udaren amaiera. Ez institutura bueltatzearen ideiak deprimitzen ninduelako, baizik eta hurrengo udara arte ikusi ezingo nuelako nire bigarren familiatzat neukana, batez ere, ikusi ezingo nuelako nakanez betetako neska.

Pasa ziren egunak, batzuk geldo, beste batzuk pixka bat azkarrago, eta bertan nengoen berriz, aitonarentzat eta biontzat bazkaria prestatzen. Aurten ez zen ama etorri nirekin, ez zidan azaldu zergatik ezta nik galdetu ere. Sua itzaltzen ari nintzela, poztasun oihuak entzun nituen kanpoan, eta norbaiten hatz-koskorrak atea gogor joka zebiltzan. Ireki egin nuen, eta bere begi ilunekin aurrez aurre topatzerakoan, beragatik behar bezainbeste itxarongo nuela argi izan nuen.

- *Zer pentsatuko zenuke zure falta handia sentitu dudala esango banizu?*- xuxurlatu nion zeharbidez eskutik heltzen nuen bitartean.

- *Zer pentsatuko dudan diozu? Ergel hutsa zarela!*- oihukatu eta gero, besoetatik tira egin zidan bere ezpainenara hurbil nendin.

Naturaltasunaren pertsonifikazioa zen neska hura, hain ziren ustekabeak bere keinu eta hitz guztiak, non edonor txundituta uzteko gai baitziren, edonor txundituta uzteko gai baitzen.

Arrastiak aurrera zihoazen heinean, aitonak gero eta gutxiago hitz egiten zuen. Ez nekien ezagutzen ninduen ala ez. Badakit ez zitzaiola denbora askorik geratzen, eta ez dakit seinale ona edo txarra zen hura, noizean behin guzti hori bukatzea besterik ez nuelako nahi. Beraiek izan

ziren ondoan eduki nituenak, hilabeteak atzera nire leiho txikitik aztertu nituenak. Txiki ilehoriak nire irribarrea bilatzen zuen era askotan, gurasoek bioi laguntzen gintuzten etxeko gauzetan, eta, bera, berak ez zuen ezer egin behar, arnas garbia behar nuenean eskutik heldu baino ez. Agian aitonak ez zekien nortzuk ginen, baina musikak beti izan du hitzekin espresatu ezin dena adierazteko gaitasuna, eta neskatxa eder batek teklak samurtasunez sakatzen zituela, aitonari azken egunera arte belarriak antzinaroan hainbeste maitatu izan zituen sinfoniez bete zitzaizkion, eta horrela agian sentitu zituen bere ilobaren hitzak. “Ondo ibili, aitite. Etxe hau babesteko nire txanda da orain. Maite zaitut”

Heldu zen hurrengo uda, eta banekien gauzak ez zirela berdinak izango. Azken finean, aitonaren hutsa izkina orotan sumatzen nuen. Baina aurrera jarraitzeko beharra nuen, momentu batzuetan denok egin behar dugun antzera. Egia esan, eskerrak eman behar dizkiet lehenengo egunean auzoa kolorez bete zuten lau pertsonatxoei, egunero-egunero bakarrik senti ez nedin zerbait antolatzen zutelako. Ez zen egundoko plana izan behar; batzuetan, plan hura soineko zuridun neskatxak nire ondoan lo egitea zen, eta ezetz asmatu hori zela ilusio handiena egiten zidan plan sinplea. Konturatu naiz orokorrean jendeak ez dakiela benetako poztasuna gauza txiki eta ederretan dagoela, ez diruak eman ahal dizkizun plazer guztietan; baina konturatu naiz baita, berak bazekiela nire eguneko unerik onena eguzkia desagertzean nire bularrean burua jarri eta besarkatzean zidanekoa zela (bihotzaren taupadak ez dira apartak disimulatzeko kontuetan), eta arriskatu nahiko nuke bere eguneko momenturik gustukoena ere hura zela esatera.

Pasa da denbora, eta nagusi egiten zaren heinean gaztetako ametsak gutxika-gutxika nola suntsitzen diren ikusi dezakezu. Kontuz ibili behar duzu, ez ezazu utzi ametsak suntsitzearen kontuak zu zeu suntsitzeko gai izaterik. 11 urtez hemen bizi izan naiz, hainbeste abenturaz betetako kostaldeko etxean. Urteekin neure bizitzarekin zer egin aukeratzera behartu ninduen gizarteak, eta hasieran, luzaroan iraun ez zuten erabaki akademiko batzuk hartu nituen, gauzak argi ez edukitzeagatik. Baina bigarren eta hirugarren aukeretan sinetsi dut beti, eta benetan nahi nuena idazlea izatea zela konturatu nintzen momentutik aurrera, ez diot idazteari utzi.

Pasa da denbora, eta guztiek haien bideak hartu dituzte. Bizilagunak ez dira jada hona etortzen, etxea saldu behar izan zutela kontatu zidaten arazo ekonomikoak zirela eta. Lehen baneukan noizbehinka nire bigarren familiaren bisita maitagarriren bat, baina badira hiru urte haien berririk ez daukadala. Nire sorbaldak hain gustuko zituen mutikoa klaseak ematen egonen da ikastolaren batean eta Aitziber margolari kontuetan jarraitzea espero dut, bere senar adinduak argazkiak ateratzen dizkion bitartean. Nire ametsetan hain ohikoa zen neskari buruz, ez dakit askorik. Mundutik zehar jirabiraka ibiliko dela suposatzen dut, leku berriak deskubrituz eta bertako biztanleak aho bete hortz utziz.

Horrelakoa da, arropa desberdinez jantzi arren niretzat soineko zuridun neska izango dena beti. Hain da sutsua bere arima, non inor ez den ausartzen maitatzera, erre egingo ote den beldurrez. Hain da handia bere arima, non inork ezingo duen sekula harekin mantendu, ezta nik ere, ezin izan dut nirekin mantendu.

Galdetu didate askok zer dela eta baztertu nuen beste norbait ezagutu eta familia bat osatzearen ideia. Pena merezi duela pentsatzea gustatzen zait horri erantzun bat eman ahal izateko, eman ahal bada. Pena merezi duela munduko pertsona xarmagarrienak nire bihotza maletan sartuta eramateak. Pena merezi duela bere bihotzaren zatitxo batek etxe honetan jarraitzeak. Denbora luzez egoten da kanpoan nakanez betetako neska, baina beti bueltatzen da, agian aste baterako, agian hilabete baterako, baina beti bueltatzen da, hona, nire etxera.

Eta bere maletaren gurpilak zementuaren kontra sortzen duten zarata entzuten dudan bakoitzean, 18 urterekin maitatzen ginenean bezala sentitzen naiz. Horrek adierazi nahi du, oker ez banago, nahiz eta ez jakin nondik datorren ezta nora joango den ere ez, urrun egon garen denborak pena merezi izan duela. Eta horregatik bera aukeratzen dut behin eta berriz, ez beste inor.

Idazlea naiz, eta idazle guztien bezala badauzkat nire idazlan gustukoenak. Gutunak dira, berak kanpoan ematen dituen hilabete edota urteetan zehar idazten dizkiodan gutunak, hain urruti ez dagoela sentitu ahal izateko. Baina, nola bidaltzen diozu norbaiti gutun bat bere kokapenari buruz ezer ez badakizu? Idazten dudan bitartean, gustuko dudan irrati zehatz batean ausazko piano-jole batek abesti ederrak jotzen ditu, eta pianoaren aurrean eserita dagoela imajinatzen dut, bere hatz finekin egongela melodiaz betetzen duela eta etxea berpiztu egiten duela. Une horretan, gutunari amaiera ematen diot. Agurrak ez zaizkio batere gustatzen, eta bi hitz esaten dizkit beti, berriz ere noiz ikusiko dudan jakin gabe ataritik urruntzen den artean. Nik ere bi hitz horiekin bukatzen ditut inoiz irakurriko ez diren amodiozko gutunak.

Ikusi arte.



Itsaso Olea Urionabarrenetxea

BATX 1. Maila

“Dana emon behar jako maite dan askatasunari”

NI NEU, ZU ZEU

Erlojuaren noranzko geldi ezin honetan harrapaturik nago, egunak joan egunak etorri. Bizitzan dena daukadala eztabaidatuko lukete askok, ez zaidala ezer falta. Kanpotik begiratuta ikuspegi hori ulergarria dela esango nuke. Izan ere, Busturialdeko familia dirutsuena gara. Gautegiz-Arteagako dorretxean bizi gara itsasoari begira eta ondasun ugari ditugu. Aita inguruko enpresa famatuenen sortzaile eta zuzendaria da, beti etxetik kanpo, lanpetuta, bilera eta kongresuak direla eta, “lan eta lan” berak esaten duen moduan. Baina aurreikuspen horien aurrean, errealitatea oso ezberdina da. Diplomazia eta fama on guzti hori erraz galtzen baititu etxean sartzen den bakoitzean. Ama koitadua. Azaleko beltzuneak bere minaren atal txiki bat baino ez dira eta bere laguna den Vodka botilak laguntzen dio egoera nekagarri hau aldi baterako ahazten. Indarkeria jasangaitzaren aurrean malko baten presentzia nabari zaio masailean behera, beste askoren lehena.

Eta hemen nago ni, gure eskualdeko familia boteretsuenaren seme bakarra, Urko. Kanpotik begiratuta 18 urte bete berri dituen mutiko zoriontsua, argia, zintzoa, zuzena eta perfektua. Barrutik ordea, galdua, beldurtua eta noraezean dabilen gizajo bat. Ingurune nazkagarri honetatik alde nahian nabil, baina aldi berean nola irten jakin ezinean. Bakardadean murgildurik nago eta ez naiz neure burua aurkitzeko gai. Nekatuta nago jada goizero-goizero eguneko maskara aukeratu eta nire masailetan margoturiko irribarrea jendaurrean erakustez, dena perfektua balitz bezala.

Nire bizitzako egun askotan bezala, malkoei eutsi ezinean nago gaurkoan ere, nire luxuzko logelan, bakar-bakarrik. Ezin dut egoera hau jasan, gure bizitza osoan zehar jolasten pasatu dugun itxurakeria joko honek harrapatuta gaitu eta konturatu naiz, hain garela pobreak non daukagun bakarra dirua dela. Besteen ongizateari norbere buruari baino arreta gehiago jartzen diogu. Eta familiaren handikeriak nire barne energiak xurgatzen dizkit. Nortasuna ezkutatzea kritikak saihesteko modu erraza izan daiteke baina nazkatu naiz jada, adinez nagusia naiz eta bada garaia egoera honi aurre hartzeko. Ez naiz besteen epaiketen beldur, ni neu izango naiz oraingoan. Ez baikara mundu honetara besteak jarraitzeko etorri.

Neguko arratsalde hotz eta euritsu bat dugu gaurkoan, aita etxetik urrun dago "lanean" edo bere adinaren erdia duen emakume baten gona azpian sartu nahian, batek daki. Ama eta biok ordea dorretxeko egongela ederrean gaude, beheko suaren aurrean eserita, epeletan. Asko kostatzen zait amari begietara begiratzea, bere azal ubeldua ikusteak min ematen dit. Galdera eta kezka ugari ditut, erantzunak ahalik eta lasterren aurkitzen ez baditut buruak eztanda egingo dit. Ez dut ezer ulertzen, ez ingurukoen jarrera ezta nirea ere. Hamar minutuko isilune baten ostean ausartu naiz amari nire sentimenduak kontatzen. Azkenean buruan luzaro ditudan ideia guztiak bildu eta irtenbide bat otu zait: alde egitea. Irtenbide errazena eta eraginkorrena alegia.

Eguzkia zeru urdinean bezain argi dut, oraingo honetan, sentitu, pentsatu eta egin egingo dut. Zera esan diot amari:

- Aita eta bere handikeriak alde batera utzi eta hutsetik has gaitezen!
- Ezin dezakegu horrelakorik egin! - Erantzun dit ziurtasun osoz amak.

Zer esango lukete herrian horrelakorik egingo bagenu?

Eta aita... aita haserre bizian jarriko litzateke!

Ez naiz gai amaren jarrera ulertzeko, bere bizitza osoan jolasten zebilen itxurakerien joko madarikatuak harrapatuta dauka. Korapilo pairaezin batean harrapaturik dago eta soka ligorrak irtenbide guztiak ixten dizkio. Baina nire buruari esan diot: Sarritan ikusten duguna baino urrunago begiratu beharra izaten dugu, benetan ikusi nahi dugun hura ulertzen saiatzeko.

Egoeraz nazkaturik, nire gelara igo eta bidaietako motxila handiaren bila joan naiz. Ama ez da ni geldiarazten saiatu. Orduan, besarkada handi-handi bat eman diogu elkarri eta dena ondo joango dela aitortu dit. Berak ere ez diola egoerari aurre hartzen utziko eta ez dela inoren aurrean makurtuko esanez. Honek lasaitasun izugarria eman dit. Jarraian, belarrira zera xuxurlatu dit:

- Ez utzi sekula inori zure begien atzeko aldean duzun argi indartsu hori lapurtzen.

- Sekula.- Erantzun diot hunkiturik.

- Asko maite zaitut.

- Baita nik ere.

Motxila handia lepoan hartu eta inori azalpenik eman gabe hemezortzi urte hauetan bizi izan naizen dorretxea atzean utzi dut, amak ondo baino hobeto ulertu nau.

Egia esan, ez dakit nora joan, noraezean nabil, baina aske sentitzen naiz. Argi dudan gauza bakarra hemezortzi urte hauetan bizi izan naizen ingurune nazkagarri hori alde batera utzi nahi dudala da, orrialdea pasatzeko garaia heldu da. Trena hartu eta Ipar Nafarroarantz abiatu naiz. Mapetan agertzen ez diren herri txikien xarmaz gozatu eta momentua bizitzera noa, biharko egunik ez balego bezala.

Orain daukadan bizitza nomadak inoiz izan ez dudan askatasuna ematen dit. Baina begi bistan dago dena ez dela ipuinetan bezain zoragarria. Gosea, hotza eta diru eza ezagutu ditut etxetik kanpo pasatu ditudan hiru urte hauetan. Niretzako bizipen guztiz berriak. Harrituta nauka kaleko biziak, batez ere, nire antzeko egoeran dauden pertsonak ezagutzeak, beraien istorioak entzuteak eta noski, nire istorioa beraien partekatzeak. Bihotz handiko lagun asko egin ditut, baita maitasuna ezagutu ere. Oso galduta ibili naiz azken urte hauetan, hain galduta, nire burua ez aurkitzeraino. Miguel ezagutzean argi ikusi nuen nire bidea beraren bidearekin elkartuko zela. Miguel, bai, ondo entzun duzu, kalean eskean zebilela ezagutu nuen hogeitaz urteko mutil gaztea da eta bikote homosexual bat osatzen dugu duela urtebetetik. Inoiz ezagutu dudan pertsonarik maitagarriena da Miguel. Nire kezka eta estutasun guztiak ulertzen ditu. Inor ez bezala maite dut, txora-txora eginda nauka. Berak belarrira esaten didan bezala:

- Aske maite zaitut eta aske izan nahi dut zure ondoan! Ni neu izanik eta zu zeu! Geure osotasunean.

Sekulako baretasuna sentitu dut nire barnean, inoiz sentitu ez dudan sentimendua. Bere alboan egon nahi dut, ez dago nahiago nukeen lekurik. Gure diru sarrera bakarrik Miguelek eskean eta nik kalean musu-gitarrarekin lortzen ditudan txanponak dira. Baina turistak gutxitu ahala diru sarrera eskasen iturria ere murriztu egiten da eta aukera berriak bilatu beharra izaten dugu. Miguel alboan izateak bidea argitu dit eta lasaitasuna eman dit. Azken urte hauetan konturatu naiz bizitza bakarra baino ez dugula eta helburua zoriontsu izatea dela. Nahiz eta diru gutxi irabazi, gutxi gastatuta aurrera egiten jakitea da garrantzitsua, handikeriak eta luxuzko harrokeria materialak alde batera utzita.

Orain bai, orain erloju geldiezinari aurre hartzeko garaia heldu da!
Kezka eta beldur guztiak baztertu eta behingoz neure ametsak bizitzeko momentua!
Mundua ikusi nahi dut! Benetako maitasuna sentitu!
Eguzkiaren berotasunak nire larruazala nola laztantzen duen nabaritu!
Haize boladak gure artetik nola igarotzen diren antzeman! Aske sentitu!
Bizitza bizi!

2027ko urtarrilaren 7a:

Gogoratzeko idazten dizut, iraganeko kapituluak atzean utzi eta atal berri bat idazten hasteko ordua baita.

Etxetik alde egin nuenetik zazpi urte igaro dira. Sufrimendu, min eta malkoak ahaztu eta haien artean irribarreak aurkituz, alaitasunez bizitzaren etapa berri hau jarraitzeko irrikaz nago.

Miguelen alboan. Orain, bizitzako “stop” guztiak semaforo berde bilakatu ditut. Izan ere, bizi dugun orainaldi honetan egin dezakegun bakarra geure iraganari so egitea da.

Nire bizitza erabat aldatuko zuen erabakia hartu aurretik besteen epaiketen beldur eta ondokoaren onarpenaren zain bizi nintzen, baina, zeinek onartu behar ninduen eta zertarako? Ni ez naiz hura, ezta hura ni, ni neu naiz.

Bada garaia erloju geldiezinaren segundoak, minutuak, orduak eta egunak nola igarotzen diren ikusteari utzi eta hauek segundoro bizitzeko! Hemen eta orain! Ez dut atzera begiratu beharrik, ni neu izango naiz oraingoan.





Janire Arrizabalaga Munduate
BATX 1. maila

“Idaztea eta bertsojaritza dira nire pasioak”

NOR NAIZ?

Berdin zuen zein aldetara begiratzen nuen, guztia zen beltza. Iluntasunean murgildurik nengoen; hodei beltzetan harrapatuta. Ezin nintzen mugitu, ezin nuen ikusi, ezin nuen sentitu. Hauteman nezakeen gauza bakarra ahots hori zen, buruan burrunbaka neukan emakume ahotsa. Pixkanaka-pixkanaka, hasierako xuxurlak oihu bortitz bilakatu ziren, nire burua lehertzeko zorira heldu zen arte.

- Max! Max!- Oihuak zentzua hartuz joan ziren- Ireki begiak, mesedez!- geroz eta argiago uler nitzakeen.

Hitzak argitu ziren bezala, inguruko lanbroa ere desagertuz joan zen. Lehenagoko iluntasunak kolorea berreskuratu zuen heinean, lausotasunak ezkututzen zizkidan gorputzak beraien itxurara bueltatu ziren. Orduan konturatu nintzen, aurrean nuen orbain erraldoia neskaxa ilegorri zoragarria zela eta gorputzeko burrunba berriz, neskak erantzun bila egiten zizkidan astinduak.

- Max... mesedez...- Bere begi berdeak malkoen ur jauzi bilakatu ziren.

Neskaren ezinegona ikusirik, egoera triste hura luzatzea zentzugabekeria neritzon. Beraz, nire besoak lurrerantz erakartzen zituen indarrari aurre eginez, eskuin eskua luzatzea lortu eta neskarengana zuzendu nuen. Nire ukitua sentitzean, izugarritzko ezustekoa hartu eta gure begiradek talka egin zuten. Gogotik saiatu nintzen nor zen oroitzen, hala ere, bere aurpegiera guztiz arrotza iruditzen zitzaidan.

- Max! Ongi zaude!- berriz ere negar zotinka hasi zen arren, oraingoak poztasun malkoak ziren- Aizue! Zatozte! Max esnatu da!

Deiadarra obedituz, beste hiru ezezagun azaldu eta esna nengoela ikustean, besarkadez ito ninduten. Zur eta lur utzi ninduten, ez nekien nola erantzun. Ez nuen beraien poza zapuztu nahi, baina egia esan behar nien. Izan ere, ez nekien nortzuk ziren.

- Aizue... nire ahotsa lehendabizikoz entzutea bitxia iruditu zitzaidan arren, besteen arreta neureganatzeko balio izan zuen- Badakit hau esatea bitxia dela baina, ez naiz ezertaz oroitzen; ez dakit nortzuk zareten, ez eta nor naizen ere.

Begirada kezkatuak zuzendu zituzten beraien artean. Alabaina, erdialdean zegoen betaurrekodun mutikoak irribarre zabal bat zuzendu eta besoa sorbaldara luzatu zidan, lasaitzeko asmoz.

- Zaude lasai! Eman zizuten jipoa ikusita, arrunta da nahasita egotea. Egia esan, bizirik jarraitze hutsa ere, miraria iruditzen zait.- bere hitzek guztien kezka aurpegiak arindu zituen- Tira, txikitatik ezagututa bitxia egiten zaidan arren, berriz ere aurkeztu beharko gara. Nire izena Dex da.

- Nirea Lara,- neska ilegorriak irribarre goibela luzatu zidan.

- Ni Wells naiz,- esan zuen denetan zaharrena zirudien mutil beltzaranak.

- Ni... Luna...,- xuxurlatu zuen besteen atzean ezkutatzen zen neskatxa txikiak.

Galduta nengoen arren, beraien adeitasunak gustura sentiarazten ninduen. Giroak kutsaturik, beldur guztiak aldendu eta hitz egitera ausartu nintzen.

- Beno eta gaizki ulertu ez badut, Max nauzue. Pozten naiz zuek berriz ezagutzeaz.- guztiak barrez hasi ziren eta bosteko batez agurtu nituen.

Hala ere, eztanda batzuek une zoragarri hura pikutara bota zuten. Alarma hotsa nagusitu zen gela txiki hartan eta "aurkitu gaituzte" esanez ezagutu berri nuen taldea gelatik irten zen. Ez nekien zer gertatzen ari zen, baina egoeraren larritasunaz jabetuta, ohetik jaikitzen saiatu nintzen. Halaber, nire ahaleginak alferrekoak izan ziren, gelako dardarak ohera giltzatu baininduen.

Zorionez, burrunba moteltzen joan zen, gauzak bere onera itzuli ziren arte. Unea baliatuz, gelatik irten eta korridore luze batekin egin nuen topo. Nahiz eta ez nuen tokia ezagutzen, taldearen ahotsak jarraituz, kontrol gela erraldoi batera heldu nintzen. Lauretako inor ez zen nire sarreraz jabetu, guztiz lanpetuta baitzeuden aginte ezberdinak kudeatzen. Ataka larri bat igarotzen ari zirela ikusirik, hertz batera alboratu eta dena bukatzeko zain geratu nintzen.

Itxaronaldi luze eta mugitu baten ostean, gauzak bere onera itzuli eta guztiak beraien eserlekuetatik jaiki ziren, bertan nengoela jabetuz. Nire aurpegiarekin aski izan zuten nire zalantzak ulertzeko eta ezinegon hura argitu nahian, korridorean barna gidatu ninduten egongela baten tankerako gela batera heldu ginen arte. Behin bakoitzak bere tokia hartu zuenean, solasari ekin genion.

- Non gaude? Eta are garrantzitsuagoa dena, zer demontre ari da gertatzen?- ezin nuen ezjakintasun horretan minutu bakar bat gehiago jasan.

- Lehen galdera erraz erantzun diezazukegu; Nexus ontzian zaude. Bigarrena ostera, oso istorio luzea da eta ez dugu xehetasun guztiak azaltzeko astirik. Beraz, hitz gutxi batzuekin konformatu beharko zara. Esan zuen gazte beltzaranak.

- Historia osoan bizi izan den gerra baten azken etapa da hau, irabazlea nor den erabakiko duena.- Larak amorraturik zirudien.- Dirudunak beti saiatu izan dira mundua bereganatzen eta hein handi batean, nahi dutena izan dute. Hala ere, beraiantzat hori ez zen aski, gehiago behar zuten eta zientzialariek lurreko gizaki kopurua ez zela jasangarria baieztatzean, beraien helburua burutzeko pisuzko arrazoia besterik ez zieten eman. Beraz, lurraren onuraren aitzakian, soberan zeuden gizakiak hitzeko makinak sortu eta luxuzko ezkutalekuetan gorde ziren.

- Urteak igaro dira borroka hura hasi zenetik eta egia esan, robotak ez daude beraien helburutik batera urrun.-Jarraitu zuen Dexek- Hala ere, oraindik ez dugu esperantza guztia galdu, izan ere, zurrumurruen arabera, bada makinetatik aske bizi daitekeen toki bat: Pax.

- Bai... eta egin ditugun kalkuluen arabera, ez gabiltza batera urrun.- Luna lehenago bezain lotsatuta zegoen arren, asko eskertu nion bere ahalegina.

- Zer gertatu zen nirekin?- ez nuen zakarra eman nahi baina, nire egoera gehiago interesatzen zitzaidan.

- Erasoetako batean androideek gure ontzian sartzea lortu eta guztiok jipoitu gintuzten konortea galdu genuen arte. Esnatu ginenerako lur guztia robot hondatuz beterik zegoen eta zu berriz, larri zaurituta. Nahiz eta ez dakigun zehazki zer gertatu zen, ziur gaude bizia salbatu zenigula eta hori da garrantzitsuena.- Oraingoan Wells izan zen erantzun zidana.

- Bai! Zugatik izan ez balitz ez ginатеке hemen egongo! Gure heroia zara!- Dexen oihuek azaldu ezinezko berotasun bitxi bat sortu zidaten barrenean.

Guztiek irribarre egin zuten. Izan ere, Pax aipatzen zuten bakoitzean, begiek distira egiten zieten, ondo merezita zeukaten atsedean hura ezer baino gehiago desiratzen baitzuten. Horregatik, galdera gehiagorik ez egitea erabaki nuen, nigandik ere atsedean hartzea ondo etorriko baitzitzaien.

Egun lasaiak izan ziren hurrengoak eta horrela, denbora ahaztuak nituen gauzak oroitzeko erabili ahal izan nuen. Dena ezin hobeto zihuan; asteak igaro ziren azken aldiz erasotuak izan ginenetik eta gure helmuga geroz eta hurbilago geneukan. Guztia horren txukun joatea susmagarria iruditu zitzaidan arren, ez nintzen ezer esatera ausartu, dena zapuztuko zen ikaran.

Beldur berdinak, nire gorputzean nabaritu nituen bitxikeriak ezkutatzera eraman ninduen. Esmatu nintzenetik, ez nuen berorik ez hotzik sentitzen, noizean behin inork entzuten ez zituen hotsak entzun nitzakeen eta ez neukan lotarako ez eta jateko gogo ez beharrianik. Zoritxarrez, isiltasunak arazoa atzeratzea besterik ez nuen lortu.

Paxera heltzeko egun gutxi batzuk besterik falta ez zirela, ontzian matxura txiki bat suertatu eta ez genuen gelditzea beste aukerarik izan. Nigatik egindako guztia eskertzeko, nire burua eskaini nuen kaltea konpontzeko eta pozarren sartu nintzen ontziaren makineria artera.

Egia esan, lan erraza izan zen; erroteria artean korapilatu zen harrixkatxo bat besterik ez nuen kendu behar izan. Alabaina, harria heltzean, piezaren baten kirtena nire azalaren barneraino txertatu zen. Azken aldi gertatzen zitzaidan bezala, ez nuen inolako minik sentitu eta horrek, asko erraztu zidan ataka hartatik irtetea. Behin eskua askatuta, zauriari begiratu bat bota eta ah zabalik geratu nintzen. Nire harridura ez zen odolagatik izan, odol faltaagatik baino.

- Ondo al zaude?- galdetu zidan Larak atzetik.- Laguntzarik behar al duzu?

- La-lasai, dena konponduta dago. Nahi duzuenean abia gaitzke-erantzun nion nire zauria ezkututzen nuen heinean- Oso nekatuta nago, nire gelara joango naiz lo-kuluxka bat egitera- aitzakia harekin, korrika abiatu nintzen esandako tokira.

Behin gelara helduta, atea giltzez itxi eta bertan giltzaperatu nintzen. Ezin nuen ikusten nuena sinetsi, besoan neukan zulo hura begiratzeak beldurra ematen zidan. Hala ere, irudipen hutsa ez zela ziurtatu nahian, azken begiratu bat eman nion eta nire ikara baieztatuz, hor jarraitzen zuten: giharraren tokian kableak zeuden bezala, odolaren beharrean, guruin likatsu bat isurtzen nuen.

Momentu hartan, gauza bakarra igaro zitzaidan burutik; Androide bat nintzen. Ez zegoen beste azalpenik, hura zen nire gorputza bizitzen

ari zen bitxikeria guztiak argudiatu zitzakeen erantzun bakarra. Nola ez nintzen lehenago ohartu?

Oro har, nire izana ez zen gauzarik okerrena izan, horrek ekar zezakeena baizik. Orduan ulertu nuen aste baketsu susmagarri horien arrazoia; Paxerako bidea libre utzi nahi ziguten, nire bitartez bertara iritsi eta bertako guztiak akabatzeke!

Lagun guztien ilusio aurpegiak etorri zitzaizkidan gogora, bakean bizitzeko irrikan zeuden eta nik beraien ilusio guztiak zapuztuko nituen. Nigatik egindako guztiaren ostean, labankada batekin eskertuko nien. Ez nuen beste aukerarik, metal puska bat besterik ez nintzen, bere buruaren jabe ez zen txotxongiloa. Ezin nuen gertatzen ari zena gelditu... edo bai?

Nire buruak edo hobeto esanda, nire prozesagailuak, lehengoan jarraitzeko aginduagatik ere, barneko ahots txikiari egin nion kasu. Horrela, nire barne mekanika aztertzen hasi nintzen, lokalizagailua bilatzeko asmoz, baina alferrik. Segur aski, aurkitu ezinezko tokiren batean txertatuko zidaten.

Une batez, guztiz etsiturik geratu nintzen, ez bainuen irtenbiderik aurkitzen edo beste era batera esanda, ez nuen irtenbidea aurkitu nahi. Egia esan, argi neukan zein zen konponbide bakarra eta hala ere, ukatzen jarraitzen nuen.

Barne borroka latz baten ostean, nire eginbeharra zein zen onartu eta prozesagailura eramane nuen begirada. Momentu batez, beldur nintzela pentsatu nuen arren, hori ezinezkoa zen ea birritan pentsatu gabe, eskua bularreko gailu txiki hartara eramane, eta errotik aterarazi nuen. Horrela nire gorputza pixkanaka-pixkanaka itzaliz joan zer, berriz ere iluntasunean murgildu nintzen arte.

- Max!- berriz ere hasi nintzen behinolako oihu urrun horiek entzuten.

Horrelakoa ote zen heriotza? Edo hobeto esanda, hil zitekeen inoiz bizirik egon ez zen zerbait? Dena dela, nire pentsamenduak geroz eta ozenagoak ziren oihuek estali zituzten eta horrekin batera, argitasuna ere bueltatuz joan zen, gela batean esnatu nintzen arte.

- Max! Ongi zaude!- Oihukatu zuten nire lagunak, besarkadez itotzen ninduten bitartean.

- Baina... Zer gertatu da? Ni...- Ez nuen ezer ulertzen.

- Bai, badakigu zer zaren.- Esan zidan Dexek.

- Orduan zergatik...?

- Zerbait gertatzen zitzaizula ikusirik zure gelara sartu eta konorte gabe ikusi zintugun, zure bateria eskuetan zenuela. Ez dizut gezurrik esango, hasieran amorratu egin ginen gezurretan ari zinela eta zu benetako Max ez bazinen, benetakoa hilda zegoelako. Baina orduan, zurekin igarotako uneez oroitu eta gugatik egin zenuena ikusirik, ahalegin guztiak egin genituen zu konpontzeko. Eta begira orain zeinen dotore zauden!- Azaldu zidan Welsek lepoan kolpe lagunkoi bat ematen zidan bitartean.

- Hala ere, lokalizagailua... Pax aurkitu...robotek...zuek akabatu-nahastuegia nengoen esaldi bakar bat bukatzeko.

- Zaude lasai, Luna jenio txiki bat da eta arazo gabe kendu zizkizun bai GPS eta bai aginduak ematen zizkizun trastea- esan zidan Larak, Luna seinalatuz.

Bere hitzek lasaitasuna helarazi zidaten, barnean neukan korapiloa askatzen laguntzeaz gain. Alabaina, banekien oraindik zerbait ez zebilela ondo, banekien hura ez zela niretzako tokia.

- Baina aizue... Pax gizakientzako tokia da eta ni...

- Eta nork erabakitzen du nor den eta nor ez den? Guretzat zu beste inor baino gizakiagoa zara- horiek izan ziren lotsatu gabe Lunak zuzendu zizkidan lehen hitzak.

Guztiok besarkada batean gailendu ginen eta lehenengo aldiz, zerbait sentitu nuen. Orduan konturatu nintzen zein zen Lunaren galderaren erantzuna; maitasuna da gizaki egiten gaituena.



Maria Basterretxea
BATX 1. maila

“Gure ametsek gida gaitzatela”

ENE KUTTUNA

Munduko maitasun osoz begiratu nion begietara eta nire pentsamenduak irakurtzeko gaitasuna izango balu bezala begiratu zidan, momentu hartan ulertu nuen ulertu behar nuen guztia. Agian bai, agian izan beharreko pertsona zen, baina ez zen momentua, gure artean sortutako izotza ez zen urtuko egun batetik bestera, ez, baina momentu hura iristerakoan, agian berandu izango zen, agian sentitzen nuen maitasuna desagertuko zen eta ahaztu egingo nintzen bere irribarreak desegiten ninduen moduz eta agian ahaztuko nintzen bere musuetan aurkitzen nuen babesaz. Baina konturatu baino lehenago, malkoak masailetik erortzen hasi zitzaizkidan, eta oihu egiteko min izugarria sentitzen nuen. “Etorri, desegin nazazu, egin nirekin nahi duzun guztia, baina arren etortzeko eskatzen dizut”. Agian pertsona, agian sentimendu egokia, agian dena, baina ziurtatu ahal dut ez zela momentua.

Horrela bukatu zen gure bizi guztian sortutako maitasun istorioa, agur lehor batekin. Bihotza apurtuta neukan eta nire bizi guztia pertsona hartan laburtu izan balitz bezala sentitu nintzen, momentu hartan bakardade sentipen bat sortu zen nire barnean.

Hilabeteak igaro ondoren eta amarekin milaka eztabaida izan ondoren, etxetik alde egitea eta bidaiatzea erabaki nuen. Ama, beti bezala ez zegoen ados nire erabakiekin, ez zuen ulertzen bidaiaria hau zertarako zen ezta zergatik alde egin behar nuen etxetik, baten baino gehiagotan azaldu behar izan nion, bidaiaria hau neure burua gehiago ezagutzeko eta

bizitzaren zentzua aurkitzeko zela. Bai agian pertsona askok ez zuten ulertuko momento hartan sentitu nuen bakardadea, baina nire bizitzako hilabete txarrenak igarotzen egon nintzen bitartean, ideia hori bururatu zitzaidan. Zein ote da bizi honen zentzua? Neure kasuan hitz eginez, nire biziko “maitasuna” izango zen pertsonan laburtu nuen, gaur egun ez dagoen pertsona hori, orain zer zentzu dauka?

Asteak eraman nituen bidaiara hura antolatzen. Ama konbentzitu nuen, oraindik ez zegoen oso ados, baina momentu hartan sentitzen nuena zenez, aurrera eramateko adierazi zidan eta hilabete guzti hauetan emandako maitasun guztia berriz ere eskertu nion.

Aireportuan geunden ama eta biok, joateko momentua iritsi zen, hegazkinera joateko bidean nengoen baina ez dakit zergatik bat-batean, buelta erdi emateko beharra izan nuen eta amarengana hurbildu nintzen munduko besarkada goxoena emateko, ama beti zegoen bertan, munduko errieta handiena izanda ere, beti zegoen prest niri laguntzeko eta agian ez nuen aintzat hartu momentura arte, agian ez behar bezala.

Egun guztia eman nuen bidaiatzen eta nire helmugara iristean, leher eginda nengoenez hotelean lo geratu nintzen. Eguzki izpiek nire aurpegia laztandu zuten eta begiak pixkanaka-pixkanaka zabaldu nituen, gogo gutxiz. Zutik jarri eta gortinak zabaldu nituen, eta bertan geratu nintzen, munduko artelan ederrena ikusten egongo banintz bezala. Zein leku ederra, hori zen neure buruari behin baino gehiagotan errepikatzen nion esaldia. Askotan azaldu zidaten Verona munduko leku ederrenetariko bat zela baina inoiz ez nuen pentsatuko horrenbesterako izango zenik.

Gosaldu eta hiritik buelta bat ematea erabaki nuen, eguna inoiz baino azkarrago igaro zitzaidan eta bertan nengoen, nire logelan, ohean etzanda. Bidaiara honetan, lan pixka bat sartzea erabaki nuen, hau da aldizkari baterako egiten nuen lan, idaztea asko gustatzen zitzaidalako, amak beti esan zidan txikitatik gustatzen zitzaidala eta maisu eta andereñoek askotan esan ziotela nire idazteko modua oso berezia zela, uste dut lan hau neuk aukeratu beharrean, lanak aukeratu ninduela. Baina azken hilabetean inspirazioa galdu nuenez, buruzagiei ondo iruditu zitzaien nire bidaiaren ideia baina bidaiaren oinarritutako istorio bat idatzi behar nuen truke, nire adostasuna adierazi eta bulegotik irten nintzen bidaiara hau egitera.

Izarrek inoiz baino dotoreago jantzi zuten zerua gau miresgarri hartan, ilargia inoiz baino argi gehiagorekin zegoen eta ez dakit zergatik baina asko erlaxatzen zidan, burua bueltatu eta bertan zeuden, etzanda, lo eta ni ere bertan nengoen nire lelo aurpegiarekin zuri begira, munduko gauza politena izango bazina, beno, egia esan, niretzat munduan ikusi dudana gauza ederrena zinen.

Gau erdian altxatu nintzen aspaldian izandako ametsik gozoenetik baina ez nintzen damutu, dagoeneko ez ginen ezer eta orain dela denbora desagertu zinela nire bizitzatik eta ideia hori onartzea baino ez zitzaidan geratzen. Lortuko nuen kostala ala kostala.

Biharamunean, Julietaren etxea bisitatu nuen. Verona, William Shakespearek idatzitako Romeo eta Julietaren arteko istorioa gertatzen den hiria da, eta bertan Julietaren etxea izeneko eraikina dago, jendeak bertan maitasun gutunak uzten zituen haien sentipenak adierazteko norbaitek irakurtzeko esperantzarekin. Eta bertan aurkitu nuen, eserita, orain dela aspaldi idatzitako gutuna irakurtzen. Gutuna irakurtzean jartzen zuen aurpegiagatik lehen aldiz irakurtzen zegoela zirudien, baina paperaren egoeragatik banekien gutxienez 100 aldiz irakurri zuela. Gutxienez 70 urteko emakumea zen, ederra zen, benetan ederra. Bat-batean hurbildu zitzaidan eta hizketan aritu ginen.

- Gutun hori ... - Esatea lortu nuen ozta-ozta.
- Bai, Nire maiteak lehen aldiz idatzi zidan maitasun gutuna da, egunero irakurtzeko beharra daukat, galdu nuenetik egunean behin baino gehiagotan irakurtzen dut.
- Barkatu ez zen nire asmoa.
- Bai, badakit, lasai.

Arratsalde guztia igaro nuen emakumearekin, Milena zuen izena, bere gizona, bere maitea hobeto esanda, duela 20 urte galdu zuen.

Verona, 1967ko apirila, bizikleta hartu eta betiko lekurantz abiatzen naiz. Erlojua bost aldiz begiratu ondoren, ziur nago oraingoan garaiz iritsiko naizela. Gaur behintzat ezin naiz berandu iritsi. Iristerakoan asko pozten naiz ez dagoela konturatzean, dena prest egongo da etortzen denerako. Bost minutu igaro ondoren itzal bat ikusten dut nigana hurbiltzen, eta bertan dago nire Milena maitea, bere 16. urtebetetzea da eta ziur zegoen ez nintzela gogoratuko, baina oso erratuta dago.

- Kaixo -esaten dit munduko ahots goxoenarekin
- Kaixo - erantzuten diot lotsati, inoiz ikusi izan ez banu bezala.

Gure elkarrizketa inoiz baino hunkigarriagoa izan zen. Bat - batean, joan behar zuela adierazi zidan eta urruntzen hasi zen bitartean, konturatu nintzen. Ez nion oparia eman. Bi aukera nituen. Lehenengoa, joaten uztea eta oparia beste egunen batean ematea, edo bigarrena, arrapalada batean bere atzetik joatea eta gelditzea. Bigarrena aukeratu nuen eta esan dezaket inoiz ez nintzela damutu erabaki hartaz.

- Milena! Milena! - Oihukatu nuen kalean zehar. Mundu guztia geratu zitzaidan begira erotuta egongo banintz bezala. Baina lehen aldiz gainerakoek pentsatzen zutena berdina zidan.

Nire oihuek ez zuten emaitzarik ematen eta etsi egingo nuela uste nuen, baina aurkitu nuen, nire oihu guztiak entzun zituen, eta bertan zegoen barrez lehertzen. Nitaz barre egiten hobeto esanda. Beregan iristean, oparia eman nion, urrezko lepoko bat zen. Amonak eman zidan eta adierazi zidan bihotzez maitatzen nuen pertsonari emateko. Eta horregatik aukeratu nuen Milena. Baina sorpresa nik eraman nuen musu bat eman zidanean oparia eskertzeko, lehen aldiz mundua geratu egin zen arratsalde eguzkitsu hartan.

Bat-batean Milena errealitatera bueltatu zen. Bere lepokoari begira, egun hartaz gogoratu zen. Bere maitearekin bizitako istorioa kontatu zidan, bizi guztiko maitasun bat izan zen, txikitatik zeuden elkarrekin eta haien arteko maitasuna egunak igaro bezala hasten zen, inoiz entzun dudan istorio hunkigarriena izan dela adierazi dezaket.

Nire txanda iritsi zen, ez nekien nondik hasi egia esan, baina hitzak nik pentsatu baino azkarrago irteten hasi zitzaizkidan ahotik. Nire bikotea ni baino bost urte nagusiagoa zela adierazi nion, lehen begiradako maitasun horietako bat izan zen. Hasieran, dena zen arrosa kolorekoa, hitz politak, maitasun gutunak... Denboraren joan etorriekin, gauzak aldatzen hasi ziren, eguneroko eztabaidak errutina bihurtu ziren, eta hauetako batean eman zidan nire lehen zaplaztekoa. Bai, opariak ekarri zizkidan eta barkatu nion normala iruditu zitzaidalako, merezi nuen. Denbora gutxi ondoren, lagunekin nuen harremana moztu beharra izan nuen, jeloskor jartzen zelako, ez zen egokia lagunekin egotea berarekin egon behar nintzelako eta horrela galdu nituen betiko. Egun horretatik hilabete batera astindu ninduen inoiz baino gogorrago, gaur egun nire gorputzak gogoratzen du. Hau gertatu ondoren nirekin apurtzea erabaki zuen, ez nintzelako nahikoa eta zaborra baino ez nintzela adierazi ondoren joan zen. Arren eskatu nion bueltatzeko, munduko malko guztiekin oihukatu nion aldatuko nintzela, baina berandu zen, nire biziko maitasuna galdu nuen.

Milenaren aurpegian malko batzuk agertu ziren eta besarkatu egin ninduen, gogoz, benetan ere gogoz. Ez nuen ezer ulertzen.

Veronako egonaldi guztia berarekin eman nuen eta inork baino gehiago irakatsi zidan emakume hark. Hura izan zen benetako maitasuna irakatsi zidan pertsona eta istorio hau berari eskainia dagoela adierazteko beharra daukat.

Agur esan behar izan nion munduko min guztiarekin, baina banekien berriro ikusiko genuela elkar, zin egin nion eta hitza betetzen duen pertsona horietakoa naiz.

Urte bat igaro ondoren....

Ene kuttuna:

Zelan sentitzen zara? Orain dela urte bete hemen zeunden nire aldamenean eta orain hain urrun zaude... Gaur gogoratu ditut eman genituen barreak gure istorio txoroak zirela eta. Ezin izan dut tentazioa aguantatu eta hemen nago zuri idazten,erantzun bat jasotzeko itxaropenarekin.

Zu ezagutzeak berpiztu ninduen, nire maitearekin batera galdu nuen barre egiteko itxaropena baina bizi zoro honek nire bidean jarri zizun eta benetan eskertzen diodala eman didan opari hau.


Zure istorioa inoiz entzun dudan eta entzungo dudan latsena izango da, eta horrek gogorra bihurtzen zaitu, baina ez zaitu guztiz definitzen. Ez etsi maitea, ezagutuko duzu maitasuna eta ez da bikotekoa izan behar derrigor.

Zure falta nabari dudanez asko gustatuko litzaidake zu berriz Veronan izatea,badakizu nire etxeko ateak irekiak daukazula eta mahaiian platera ez duzula faltan izango,zure berri laster izango dudalakoan agurtzen zaitut.

*Munduko maitasun eta errespetu osoz
Milena*

Bai lagunok, urte bat igaro da eta hemen nago biziaren zentzu madarikatua ulertu nahian. Egia esan nire bizia ez da gehiegirik aldatu. Veronatik bueltatzean, berriz hastea erabaki nuen eta oraingoan benetan. Ama noizean behin etortzen da bisitaren bat egitera eta ia zelan nagoen ikustera.Egunero begiratzen naiz etxeko ispiluan, denbora luzean debekatua izan nuenez gaur egun inoiz baino gehiago gozatzen dut neure isla ikustean.

Gorputz guztian zehar dauzkat nire aurreko harremanak sortutako orbanak baina harro esan dezaket ez naizela horretaz lotsatzen. Gaur egun 25 urte dituen gazte bat naiz eta neure buruaren onarpen prozesu horretan nago. Neure gorputza inoiz baino gogo gehiagorekin besarkatzen dut jakinez inork ez nauela maitatuko neuk neure burua maitatuko dudan bezala zeren hobe da ahalik eta arinen hastea. Ez naiz damutzen bizi dudan guztiaz, Milenak idatzitako gutunean adierazi zuenez, gogor egiten nau baina ez nau definitzen. Ez dakit zer den maitasuna edo nola adierazten den, baina segurtasun osoz esan dezaket badakidala nola ez dudan maitatua izan nahi. Hemen nago eta badakit balio dudan guztia, neure burua pixkanaka-pixkanaka onartzen ari naiz eta inork ez nau geldituko. Oraingoan ez behintzat.



Zuberoa Egurrola

BATX 1. maila

*“Zoramena eta poztasuna omen dira
gure bizitzako gaitasun aipagarrienak”*

EZKUTUKO PUZZLEA

Nire maitea:

Paper hau nire aurrean eta bolaluma eskuetan, nire begiek uholde itxura hartzen duten bitartean. Nire eskua dagoeneko idazten hasi da, baina nire sentipenak ez daude prest idazten dudana hau barneratzeke. Hitzez hitz idazten ari naiz, zuri modurik errazenean azaltzeko, baina hain da gogorra momentu hau non ez baitakit nola adierazi sentitzen dudana.

Asko maite zaitut, gehiegi beharbada. Lehen aldiz gure begiradak gurutzatu ziren momentutik. Zure besoek nire bizkarra laztandu eta zure ezpainek, sare bat izango balira bezala nireak harrapatu zituzten egunetik. Gure atzamarrak urtu eta denak bat egin ziren momentu hartatik eta gure hankak sustrai korapilatsuen antzera nahastu zirenetik. Momentu polit horiek guztiak eman zioten hasiera gure bizitzako eleberriko atalik oroigarrienari.

Haurrak ginen oraindik , 15 - 16 urteko beste neska-mutil arrunt batzuk baino ez. Herri desberdinetakoak, zu bilbotarra eta ni, berriz, Gernikakoa. Astean behin, banku batean eseri eta arratsalde guztia nork muxu gehiago eman zenbatzen zituen bikote bat. Eskola egunetan eskuko telefonoari begira nork bihotz gehiago bidali eta nork mezu gehiago idatzi zenbatzen genituen neska-mutil parean. Arruntak ginen bai, garai horretan bikoteen artean “maite zaitut” esatea, txikle bat oparitzea bezalako erraza zen. Baina zure ezpain fin horietatik “maite zaitut”

esaten zenuenean, marrazki bizidunetako masail gorridun pertsonaien antzera sentitzen nintzen, nik benetan maite ninduzula nekielako.

Hilabeteak igaro ahala, gure arteko sentimendu hura areagotzen joan zen. Gure arteko konfiantza geroz eta handiagoa zen eta gure arteko lotsak desagertzen joan ziren gure gorputzak ezagutzen gindoazen heinean. Neure burua eta neure gorputza maitatzen irakatsi zenidan, beste inork irakatsi ez zidan bezala. Zure alboan dena zen desberdina, ez nintzen klaseko uso hura, ezta etxeko otsoa ere. Nire buruari behin eta berriz galdetzen nion, nola alda nezakeen erabat zure alboan, baina nire buruak erantzun bakarra ematen zidan: maitemindu egin nintzela. Bai, "maitemindu", aurretik irakurri duzun moduan. Zutaz "maitemindu" nintzen 15 urteko neskato bat nintzen momentutik.

Institutuko garai horietan, bikote maitemindu bat ginen. Lehenengotan astean behin soilik ikusten genuen elkar, ondoren birritan eta azkenean egun guztiak aprobetxatzen genituen gure artean laztantzeko. Institututik unibertsitatera igaro nintzen urtea izan zen garairik onena. Ni ilusioz beteta zure etxera joan nintzen bizitzera. Baina hori guztia handiegi zetorkidan eta ez nintzen ohartu. Urte bat igaro zenean, bizikidetasuna txarrerantz joan zen. Oso maiz eztabaidatzen genuen, batzuetan txakurra eta katua ematen genuen. Zuk ez zenekien ezer, baina desagertzen nintzen arratsaldeetan laguntza eske joaten nintzen amarengana. Gehiegi maite zintudan eta zurekin izaten nuen eztabaida bakoitzak, behin eta berriz ito egiten ninduen.

Azken eztabaidarekin eztanda egin eta alde egin zenuen, nire sentimenduengatik arduratu gabe. Momentu horretatik nire buruaren joan-etorriak ulertezinak dira. Oraindik nire barruan kartzelatuta zaude, nire zigorra izango bazina bezala. Ez dakit zu nola egongo zaren momentu honetan, baina nire bihotzeko puzzleari zati handi bat kendu diozu eta berriro funtziona dezan, zuk lapurtutako zatia berreskuratu nahiko nuke eskutitz honen bidez.

Bi musu,

Amaia.



Ander Azkarai Calderón
BATX. 2. maila

"Dana emon behar jako maite dan askatasunari"
(Lauaxeta)

ARGI IZPI BAT ILUNTASUNEAN

Doinua: **Aita-semeak**

Apirilaren 26a
azoka eguna Gernikan
jende guztia plazan zegoen
dena saltzeko irrikan
arratsaldea heldu zen eta
herritar denak korrikan
bonbak jaurti ta herri guztia
odolez beti segidan.



Eraikin denak lurrera erori
ez zen mantendu ezer ez
kale ta plazak geratu ziren
bete beterik errautsez
ospitaleko logela denak
erdi hildako biztanlez
dena bete zen umeen oihuz
beldurtasun da negarrez.



Gerra zibilak kalte ugari
egunak pasa ahala
sortu zituen Euskal Herrian
dena txartzen iñoala
hainbat herritar Amerikara
joan ziren berehala
gaur eguneko hainbat lekuko
imigranteen bezala.



Kasu honetan aitona zaharra
Argentinara joan zen
kuadrilla eta adiskideez
bera ez zen inoiz ahazten
hasieratik hasi behar zuen
berriz ere dena eraitzen
bere bizitza birmoldatzeko
bera hasi zen ahalegintzen.



Hamasei urte soilik zituen
lan egiten hasi behar
Argentinako baserri baten
batzen hosto eta belar
horko jabeak esaten zion
garbitu dena espainiar
bestela berriz botako dizut
Euskal Herrira ezbehar.



Egun eta gau ematen zuen
lan gogorra eiten bera
protesta ugari berak ein arren
ez zen aldatu egoera
abereentzako ur katiluak
eramaten goitik behera
bertakoekin erderaz beti
azkenean ahaztu euskera.

Diru pixka bat batu da gero
bizimodua aldatzeko
Pellegrinira alde egin zuen
urte latz hori ahazteko
ortu txiki bat landatzen hasi
bere tripa elikatzeko
gutxi-gutxika Gernikan zuen
baserria birsortzeko.

Emakume bat ezetu zuen
Elida izenekoa
neska jatorra da dotorea
Bahia Blanca hirikoa
Bertan bi seme jarrai-jarraian
hori bai bapatekoa
momentu txarrak behingoz ahazteko
bera izan zen gakoa.

Urteak pasa da jarraitzen du
Argentinako hirian
orain biloba txikiak ditu
bere bizitza barrian
oraindik ere herrimina du
aurpegian agerian
bera hil baino lehen bueltatuko da
Euskal Herrira agian.



Egoera hau zoritxarrez be
Gaur egun ere presente
Gure kostako itsasoetan
Hiltzen da jende dezente
Politikari gehienek ere
Uko egiten diote
Guztiok lan egingo bagenu
Konponduko litzateke.



Asier Foruria Naveran
BATX. 2. maila

“ Gure zuhaitza landatu dugu eta erroak lurrean daude ”

SUSTRAI BARIK, EZ DAGO BIZITZARIK

Kez beteta egongo balitz bezala, lanbroak ezkututzen zituen Orioko baserriak; leiak zuritzen zituen belardiak, eta hotz handia egiten zuela sumatu nuen. Kanpoko paisaia ikusteko, eskua leihotik pasa nuenean eskua busti -bustita geratu zitzaidan leihoaren lurrunaz. Ohean geratzeko gogoa sartu zitzaidan, baina goizero bezala, okindegira joan beharra nuen, ogia lapurtzera; goizetan okindegian lan egiten zuen anderea arratsaldeetako baino zaharragoa zenez, errazagoa zelako okindegitik bi edo hiru ogirekin irtetea ezer ordaindu gabe.

Amak jositako jertsea, maiztutako prakak eta orpoa guztiz higatuta zeuzkaten botak jantzi eta han abiatu nintzen okindegirantz; zegoen hotzaz zigarro bat erretzen egon baintzan ahotik lurruna irteten zitzaidan. (ez zen bide luzea, baina hotzarekin astuna egin zitzaidan). Bidean, betikoa egingo nuela pentsatzen nindoan, okina labean ogi berriak sartzean, ogi pare bat hartu eta etxera.

Bertara heltzean, ezusteko handia hartu nuen: okindegia itxita aurkitu nuen. Ohar bat zegoen egunero ogi pare batekin irteten nintzen okindegiko atean itsatsita:

*OKINDEGIAN LANGILE BATEN BILA GABILTZA,
LOURDESEK ERRETIROA HARTU DUELAKO.
EDOZEIN ADINEKO PERTSONA IZAN DAITEKE.*

*LAN EGITEKO PREST BAZAUDE, DEITU
OKINDEGIKO TELEFONO ZENBAKIRA:666348205*

Ez nekien irakurtzen nire bizitzan ez bainuen eskola bat zapaldu, lehenbailehen jakin nahi nuen ohar horren esanahia, beraz, urduritasunak itota, bertatik pasatzen ari ziren bi neskari laguntza eskatu nien. Baina beraien hizkera nirea ez zen nirea bezalakoa, bertakoak ez zirela esan zidaten eta horregatik harea lehorrarekin gaztelu bat egiten nengoela sentitu nuen, ez zeukan zentsurik beraiei galdetzea, euskara ulertzen ez zutelako.

Panorama hura aztertuta, nire jakinminak bultzatuta etxera abiatu nintzen. Irakurtzen jakingo banu, gauza asko egiteko gai izango nintzela pentsatuz, eta ea zergatik lentzero ez zen ez Afrikatik, ezta dirua behar zutenen etxeetatik pasatzen. Behintzat eskolara joateko diru pixkat emango zidan....

Etxean Eulalirekin aurkitu nintzen. Auzoan bizi zen andre bat zen, erizaina izandakoa eta bi egunik behin ama bisitatzera etortzen zen etxera.

-Aupa mutiko! Albiste ezin hobeak dauzkat zuretzat! Okindegiko Lourdesek erretiroa hartu du eta langile bila dabiz. Esan zidan Eulalik bere ahots zahar eta apurtuarekin..

Hasiera batean ogi barik geratuko nintzela pentsatu nuen, baina Lourdesen hitz haiek dutxa bero bat hartzea baino hobeto sentiarazi ninduten.

-Ni!Ni! Ni aurkeztuko naiz okindegiko lanerako! Erantzun nion poztasun handiz.

Bertan aurkeztu nintzen hurrengo egunean, okindegian, nire lehenengo lanpostua izango zen. Irrikitari nengoen lanean hasteko, okindegirako bidean, goizetan ogiak saldu, eguerdian ogi pare bat hartu eta diru pixkat baekin bueltatu etxera eta arratsean aitak erakutsi zidan moduan gitarra eta kapela hartu eta herriko plazara joango nintzela pentsatzen ari nintzen.

Une hartan aitaz gogoratu nintzen, zeruan, laino artean ondo egongo zela espero nuen, gerrara joaten behartu ez balute hemen egongo zelako. Aitak erakutsi zidan gitarra jotzen, eta gainera ahots polita neukala esaten zidan. Halaxe hasi nintzen egunero herriko plazan zegoen izkina batean abesten, herriko jaietan mozkortien pixa egiteko lekua zirudiena. *“Etxera diru gehiagorekin itzuli nahi badezu, lotsa patrikan gorde eta plaza erdian abestu behar duzu, hori egiten ez baduzu, kapela hutsik iritsiko zara etxera”*. Esaten zidan aitak, baina nik kantoi zikin hartan jarraitzen nuen.

Okindegira heldu eta han lana aurkeztu zidaten.

Lehenengo lan eguna astuna egin zitzaidan, pixkat galduta ikusi nuen neure burua, baina ohitura falta izango zela pentsatu nuen eta pozik abiatu nintzen etxera nire 1600 peseta eta ogi libra batekin.

Kanpaiak sei aldiz jo eta kalera irten nintzen, aitak emandako klaseak dirua ateratzeko erabili behar nituen; egunero bezala “jaietako pixatokira” joan beharra nuen, behintzat azokan galtzerdi berriak erosteko beste txanpon lortu nahi nituen. Bertarantz joan nintzen, ipurtargia baino gutxiago argitzen zuten farolez betetako kaleetatik nire “eszenatokira” (hala deitze nion iskina miserable hari).

Abesten ari nintzela gizon bat hurbildu zitzaidan:

-Aizu mutiko, ez al da berandu ordu hauetan kalean abesten egoteko?

Elizako kanpaiak entzun arte etxera itzultzeko asmorik ez nuela erantzun nion.

-Tori, zuretzako da. - Eskua poltsikoan sartu eta erloju bat atera zuen. Zure ahots goxoa ordaintzeko dirurik ez daukadanez, erloju hau zuretzat da. Elizako kanpaiak entzuteko zain egon ez zaitez. Benito dut izena. Urte askotarako!

Erlojua eman eta alde egin zuen.

Egunak joan egunak etorri, nire errutina egiten jarraitzen nuen: esnatu, ogia saldu, gitarra jo eta lo egin. Baina azken aste horretan erlojua eman zidan Benito hura askotan hurbiltzen zitzaidan entzutera, nahiz eta egunero abesti berdinak abestu ez zen aspertzen, eta halako batean hitz egitera hurreratu zitzaidan.

- Mutiko, zure ahotsak liluratu egiten nau. Ikaragarria da. Eman al duzu kontzerturik inoiz? Diru gehiago irabazteko aukera da! Zer iruditzen zaizu? Nik lagunduko zaitut.

-Benetan! Eskerririk asko!- erantzun nion sekulako poztasunaz.

Erlojuz betetako denda zahar batera eramanez ninduen Benito izeneko gizon harek. Bertan ate batetik sartu eta entseguak egiteko gelatxo batera iritsi nintzen. “Ez Dok Amairu” alde batetik eta “Ez Dok Amairu” bestetik baino ez nuen ikusten, 13 urteko gazte batek gela hartara sartzea debekatuta izango balu bezala.

Laster azaldu zidan Benitok horren esanahia. Euskal kantagintza berri baten inguruko kolektiboa zen, non Benito bertako kide bat zen. Beraiekin abesteko proposatu zidan, eta nik, nola ez, baiezkoa eman nion. Nire bizitza guztiz aldatuko zelapentsatuz.

20 URTE GEROAGO...

Eta hala izan zen, gaur egun Euskal Herriko kanta autore famatuenetarikoa bilakatu naiz. Antton dut izena, eta orain, gurasoak hilda ditudala konturatu nahiz oztopoz beteriko bizitza izan dudala, eta sustrai barik ez dagoela bizitzarik, okindegia eta aitaren kittarra klaseak izan dira sustrai horiek nire bizitzan.



Eneko Orue Basterretxea
BATX 2. maila

*“Euskalduna den guztiak burua altxa dezala,
gorenean ikusiko baitu bere hizkuntza ”*

ETORKIZUNAREN MENDE BIZI DEN GUDARIA

Gaur ere iluntzen ari du, Eguzkia ere lotara doa. Jada lehen izarrak ikusten hasi naiz. Noizbehinka izarlokak ere ikusten ditut eta agurtzen nautela iruditzen zait. Bizia dutela ematen dute, hor goian, alde batetik bestera, txorien antzera. Ez dakit nortzuk izango diren, baina ziur nago urrunekoak ez direla izango, agian, nire birraitona-amonak edo auzokoak. Nork daki nortzuk izango diren? Nik behintzat denbora gutxi behar dut nortzuk diren ezagutzeko.

Azken egunok holantxe pasatu ditut. Ez nago ziur hemen nagoen ala hor goian nagoen. Agian gaur izango da azkeneko eguna logela honetan nagoela, hemen behean. Gainera, makal sentitzen naiz eta minbehera dut gorputz osoa, nahiz eta morfina sartzen didaten. Baina, nork daki noiz joango naizen pastelak jatera? Jaungoikoak ere ez du jakingo, ziur aski. Egunero legez, badaezpada, betiko ariketa egingo dut: nola demontre heldu nintzen ospitale honetara.

Duela zortzi edo bederatzi hilabete gizon gorrotagarri bat heldu zen boterera, pronuntziamendu militar bat eginez. Hain gorrotagarria, non hil ostean infernura joango den! Askok ezagutuko duzue segur aski, azken hilabeteotan bera eta bere adiskideak baino ez dira entzuten irratieta eta. Guk “grisak” deitzen diegu. Gizon higuigarri hau Frantzisko Franko deitzen da, izen gehiago ere baditu, baina niri eta beste askori bost axola horrek! Diktadore aldarrikatu zen egunetik, bai gure lurraldearentzat, bai auzokoentzat infernu gorria da, nazionalistak eta errepublikanoak garelako gatibutasuna baino ez digu utzi! Txerri halakoa!

Infernu honetan ezin dugu ezer egin, ezta maite duguna ere: euskaraz mintzatu, idatzi eta kantatu. Eta euren kontra altxatuz gero, zortea izanda, kartzelara zoaz, baina ostantzean, fusilatu egiten zaituzte, errazena.

Gogoratzen dut apirilaren azkeneko astelehenean, 26an nola bonbardatu zuten Gernika. Lekukoa izan nintzen eta hura bai hondamendia. Merkatua egiten da astelehen guztietan eta Busturialdeako baserritar eta erosle asko Gernikara joaten dira salerosketak egiten. Hutsik egin gabe joaten ginen koadrilarekin errekaduak egitera eta neskaren bat ezagutzeko gogoarekin. Giro alai egoten zen, orain ere egongo da, baina gutxiago uste dut, esaten didatenagatik, behintzat. Lumoko elizpean nengoen, lagunekin kontu-kontari, nire bizitzako lehen hegazkinak ikusi nituenean. Lagunek ere lehenengo aldiz ikusi zituzten. Hasieran, antzarrak edo kurriloak zirela pentsatu genuen, urrun baitzetozen zarata handia eginez. Baina Kanpantxurantz hurbildu zirenean, hegazkinak zirela konturatu ginen eta gauza beltzak botatzen hasi ziren, erregaluak edo. Opariak barik bonbak ziren! Arranopola! Gernika nola zapuztu zuten ikusi genuen. Lumorarte entzuten ziren jendearen txilioak, atera kontuak. Bitartean, zer egin ez genekiela, alboko pinudira joan ginen ostentzera, ikusiz gero, geu ere txikitu egingo gintuzketen eta. Hura bai estualdia!

Behin hegazkinak Bilborantz joanda, elizarantz hurbildu ginen ostarabe. Dena txikiturik zegoen eta sutan. Etxe-horma batzuk geratzen ziren zutik. Egoera ordu gutxiren buruan aldatu egin zen. Elkarri begiratu eta Gernikara jaitsi ginen. Ez zegoen arimarik ere. Obrahondakinetan barneratu ginen eta ez genuen inor aurkitu, gorpuak bakarrik, erru gabekoak. Geroago kotxe eta kamioi militarrek ailegatu ziren. Militar ofizialak ziren, kalteak ikusi nahi izan zituztela edo. Guk, berriz, etxerantz joan ginen, ez baikenuen sinesten bizi izan genuena egun hartan.

Hurrengo goizean jaiki nintzenean, irratiko frekuentzia guztietan Gernikako bonbardaketa baino ez zen entzuten. Kazetariak esaten zutenaren arabera gu geu, errepublikanoak, izan ginen gertaeraren egile. Gezurra zen! Gainera, beste herrialdekoek sinetsi zezaten, militar goi karguek kazetariak gezurra esatera behartzen zituzten. Horretaz aparte, herritar asko horren kontra altxatu ziren. Egoera hori ikusirik militarrek ehunka pertsona atxilotu eta fusilatu egin zituzten. Gure Lauaxeta, poeta eta idazlea, horietako bat izan zen. Zorionez, George Steer, The Times egunkariko kazetariari esker munduak errealitatea jakin zuen: Kondor Legioak bonbardatu zuela Gernika.

Hileak joan, hileak etorri, egoerak ezker muturretara jo zuen. Errepublikanoen eta nazionalisten haserrea eta frankisten gorrotoa areagotzen joan zen. Jendea iraultza egiten hasi zen eta egoera hori ikusirik Eusko Jaurlaritzak 18-45 urte arteko gizon euskaldun guztiak deitu zituen gerrara joateko. Ni ere gizon horietako bat naiz.

Uztaila erdi inguruan etxera gutun bat heldu zitzaidan, Euzko Gudarostearena. Goiza zen eta ortuan nenbilen patatak lurpetik ateratzen. Inoiz hartu ditudan patatarik edarrenak hartu nituen uzta hartan. Baserriko beharrak berotu orduko egin behar dira, osterantzean blai-blai egiten zara beroaren beroaz. Hamaikak ere heldu ziren eta usadioa zela eta, gazta irasagarrarekin jaten joan nintzen. Gazta xafla bat ebaki bezain pronto, Studebaker bat etxeko aldatsa igotzen ikusi nuen eskatzeko leihotik. Oso arraroa zen Munitibarretik halako kotxeak ikustea. Okerreko bidea hartu zuela pentsatu nuen, baina ez. Bilbotik zetorren, Euzko Jaurlaritzatik hain zuzen ere eta niretzako gutun bat zekarren. Hasieran ez nekien zeri buruzkoa zen. Berari galdetu nion zer zekarren gutunak eta “gutunean daude zalantza guztiak azalduta” ihardetsi zidan. Hura bai gizon berekoia! Agurtu ondoren, eskatzera joan nintzen hamaiketako jatera, ez zidan jaten utzi eta. Tripa bete ondoren gutuna irakurri nuen.

Irailaren 20an, goizeko zortzietan Bilbon izan nintzen udaletxe aurrean; behar ziren agiri guztiekin. Gutunean jartzen zituen eraman-beharreko guztiekin. Ordubete arinago egon nintzen han, familiak lagunduta. Baita neba-arreba gaztetxoak ere, beharbada, azkeneko aldiz ikusiko ninduten eta. Behin udaletxeko ate aurrean egonda, edadeko gizon batek barrura joateko eskatu zidan. Familia agurtu eta barru aldera joan nintzen. Aberatsen jauregia zirudien! Hura bai artea! Bertan, ni bezalako hainbat mutil gazte zeuden, baita lagunak eta ezagunak ere. Ordubete igarota, binan-binan jartzeko esan ziguten; Euzko Gudarosteko agintariak edo, izango ziren. Gero, Abandoko tren geltokira joan ginen, Urduñarako trena hartzera. Bagoiak jendez gainezka zihoazen eta arnasa ere hozta-hozta hartzen nuen. Orduak luzeak egin zitzaizkidan helmugara heltzeko.

Trenetik jaistean zelai handi eta zabal batera eraman gintuzten autobusetan, kanpamentuetara. Eguerdia zen eta Eguzkiak gogor jotzen zuen. Beraz, bazkaltzen joan ginen. Jatekoa ez zen beste munduko, baina eskaintzen zutenez, hartu egin behar izan zen. Arratsalde aldera zenbait ariketa fisiko eta psikologiko egin genituen. Azkeneko egunetan, berriz, plater-tiroketan aritu ginen. Bizkaiko herri guztietako gazte gehienak ezagutu nituen. Gehienekin ondo moldatzen nintzen, baina beste batzuekin ez hain ondo. Soldadutzaren antzekoa izan zen, baina motzagoa. Bost astez horrelako errutinaz aritu ondoren, gudu zelaira joan ginen, arma bat eskuan harturik. Gizon bakoitzak iskilu bat zeukan eskuan. Kategorietan sailkatuta geunden eta bakoitzak arma desberdin bat zeraman: kaboek pistolak, mosketoiak eta esku-granadak, kaporalburuek metrailadoreak eta hiruzpalau soplete, eta sarjentuek subfusilak. Eta denok derrigorrez kaskoak eraman behar genituen. Ni kaporalburu nintzen, eta subfusil bat eman zidaten nota handia atera baintuen eginiko jardueretan.

Nire lehenengo guda Gordexolan izan zen. Ez ginen joan kanpalekuko gizon guztiak. Erdiak edo, joango ginen. Besteak Bizkargira joan ziren. Orduetik aurrera koadrilakoekin banatu nintzen eta

oraindik ez dakit bizirik dauden ala hilda. Kontuak kontu, Gordexolako gudan joandako gizonen ehuneko hirurogeia erretiratu egin zen, zaurituak eta hildakoak besteak beste. Nire bizitzan ez dut sekula hainbeste sufritu. Odola eta tripa baina besterik ez nituen ikusi. Dohakabekoak! Errurik ez zeukatenak, baina euren herria altxatzen saiatu zirenak. Azken finean gerraren alderik politena hori da: norberaren herria altxatu eta defendatzea. Baina alderik ilunena, berriz, zauritu egiten zaituztela edo beharbada hil. Gomutapenei jarraituz, Gordexolako batailak bost egun iraun zituen eta irabazi egin genuen. Javier alferizak esaten zuenez “guda hau irabazi dugu ezaguera handiko pertsonak garelako orografia aldetik.” Egia esan, nire aburuz eta besteen iritziz ere, seguru aski, galdu egin genuen, lagun asko galdu genituen eta.

Abendua hasi berri genuen eta Urduñara joan behar izan ginen ostarabe, tropa frankistek Gasteiz okupatzen hasi zirelako. Oraingoan giputzen eta nafarren laguntza izan genuen. Zoritxarrez, Grisek hankan eman zidaten mosketoi batekin, Ikurrina jartzen nengoelarik zuhaitz batean. Borroka irabazita zegoela ikusita zegoen eta Miguelek, komandanteak, neuri eskatu zidan; uste baitzuen neu nintzela pertsonarik aproposena misio hura betetzeko. Neurri politeko ikurrina jarri nuen zintzilik, soka batekin gogor-gogor. Haizeak ere ez du inoiz eramango, haize-bolada bat egin arren. Minaren minez jausi nintzen, baina zorionez ez nuen hezurrik hautsi. Segidan etorri zitzaizkidan medikuak niregana. Ohatilan altxatu eta korrika batean kanpamenduko ospitalera eraman ninduten. Galderak egin zizkidaten bidean, ez galtzeko eta batailoiko kideek eskertu egin zidaten egindakoa. Larritasun gutxikoa zen. Mosketoiaren bala ezkerreko izterrean neukan sarturik, bost zentimetroko sakoneran. Bertan ere egingo zidaten egin beharrekoa, baina Basurtoko ospitalera eraman ninduten. Antza, ez zeukaten aparailurik ebakuntza egiteko. Litro bat morfina sartu eta ambulanzian eraman ninduten, Bilbora. Oinaztua baina arinago gindoazen eta ordu erdian larrialdi gelan nengoen.

Ostean, gela batera eraman, anesthesiatu eta ebaketa-gelara eraman ninduten. Ordubeteko ebakuntza izan zen. Nagoen gelan esnatu nintzen. Lehenengotan etxean nengoela begitandu zitzaidan. Ez nekien non nagoen. Alboetara begiratu eta ez zegoen inor. Geroago erizaina etorri zitzaidan nola nengoen galdetzera. Bisita nuela esan zidan. Aita zen. Segituan etorri zitzaidan eta besarkada luzea eman zidan. Alegerratu egin zen ni ikustean eta nola bizi ziren ni barik kontatu zidan. Haren berbek bihotza ere hunkitu egin zidaten.

Azkeneko egunotan, egunero etortzen dira niregana, goizean bi eta arratsean beste bi. Gainera, duela bi egun Lehendakaria, Jose Antonio Agirre eta Euzko Gudarosteko burua, Candido Saseta ere etorri zitzaizkidan bisitatzen prentsak lagunduta. Bi domina eman zizkidaten egindakoarengatik: bata meritu militarren medaila eta bestea gurutze gerra. Baita argazkiak atera zizkidaten kazetariak. Munduko alderdi desberdinetatik zetozen: Ingalaterratik, Italiatik, Amerikako Estatu

Batuetatik ... etab. Ondorengo egunetan, mundu guztia berri eman zieten kazetari harek neuk burutu nuena.

Ordu biko memoria eginda eta gero afal ordua iritsi da. Gaur ekarriko didatenaren zain nago. Afaldu ondoren, loak hartuko nau. Ospitalean nagoenetik jan, lo eta betiko ariketa egiten dut. Hau bizimodua! Bihar beste egun bat izango da eta nork jakin hemen jarraituko dudan?



Beñat Albizbeaskoetxea Sanchez

BATX. 2. maila.

"Porque las estirpes condenadas a cien años de soledad no tenían una segunda oportunidad sobre la tierra."

23 SUNSET DRIVE

Denbora luzez itxita egon ondoren, etxeko atea zabaldu egin da, eta gizon bat sartu da. Asko aldatu da etxe horretan azkeneko aldiz egon zenetik. Lehen kobere-kolore bizia izan zuen ilea orain zilarkara eta haritsua da, eta lehen Karibeko itsasoko kolorea zuten begiek orain bizitasuna galdu dute. Begirada alai nekez eta nostalgiaz bete da, eta begien eta ahoaren inguruko azala uzurtu eta zimurtu zaio. Oraindik lasai ibil daitekeen arren, bere muskuluak ez dira hain malguak, eta bere hezurrek jada ez liekete antzinako kolpeei eutsiko.

Bisitariak pauso batzuk eman ditu, eta lurrean sakabanatutako hondakinek krak-krak egin dute bere larruzko Oxford zapaten azpian. Apurka-apurka, atmosfera betetzen duen hautsa bere exekutibo traje urdin ilunaren gainean pausatzen hasi da. Sarrerako airea hezea eta itogarria da, hainbat urtez bertan harrapatuta egotearen ondorioz. Hala ere, gizonak arnasa sakon hartu du. Gelako usaina sarkorra eta geza da, kobazulo batekoa legezkoa.

Ate gaineko leihatilatik sartzen den argi xumea salbu, gela ilun dago. Hala ere, gizonak egongela ikus dezake. Hormetako paper beixa arrailduta dago, eta kolorea galdu du. Sofa gorrian ondoak hazi dira, eta desagindako josturetatik betegarria atera da. Besaulkia kristalezko temahaiaren gainean iraulita dago, kristal zatitxoek inguruko lurra estaltzen dutela. Sutondoaren gaineko erretratua, familiaren ondasunik preziatuena, errautsen artean dago. Oso zaila da herenaitona Byronen aurpegi zorrotza bereiztea.

Bere amak beti esaten zion arbasoen ohorea defendatzea familiaren betekizun garrantzitsuena zela. Txikitari, aitona Elijah sutondoaren alboko besaulkian esertzen zen, eta bere aitona Byron San Martinen bizitzaren gaineko istorioak kontatzen zituen, iloba guztiek buru-belarri entzuten zutela. Eskuan zigarroa zuela, Lord San Martinek Kolonbiako haranetan galduta pasatu zuen denboraz hitz egiten zuen, edota Txinan borrokan zegoela adierazi zuen buruzagitasun harrigarriaz. Byron San Martin Hawaiiko erreginaren lagun mina izan zen, eta Japoniako Teimei enperatrizari hainbat maitasun karta idatzi zizkion. Errusiako Tsarrarekin tea edan eta Leninekin politikaz hitz egin zuen. Texasera heldu eta basamortuan petrolio aurkitu zuen, izugarri aberastuz. Beharbada istorio horien erdia aitonaren imajinazio emankorraren asmakizuna besterik ez zen, baina ilobek liluratuta entzuten zuten. Haien zat, herenaitona heroi mitikoa zen, eta kontakizunen egitasunak ez zuen inolako garrantzirik.

Gizonak hasperen egin du eta ezkerreko atea irekiz sukaldara sartu da. Sukaldearen egoera egongelaren antzekoa da; lurreko egur usteletik belar txikiak hazten hasi dira, eta hormetako lauza zuri-gorriak apurtuta eta zikin daude. Birraitonak eraiki zuen Indiako ebanozko mahaia pipiak janda dago; elefanteen eta tigreen tailuak hain higituta daude, non ia ikusezinak diren. Marmol gorritzko estalkiaren gainean, apurtutako platerak, tenedore eta koilara herdoilduak eta hainbat zartagin eta pote pilatzen dira. Izkina batean, lehen landare bakarti batek hartzen zuen tokian, landare igokariak horma osoa estali dute.

Saiatzen bada, bisitariak gaztea zeneko sukaldaria nolakoa zen imajina dezake. Labetik atera berriko *biscuit*-en berotasuna, Esker-Emateko eguneko txokolate eta intxaur-pastelaren eta amak Gabonetan egiten zuen arto-ogiaren usain gozoa datozkio burura. Bere lehengusu-lehengusinak gogoratzen ditu, aurrera eta atzera lasterka, bera etxeko lanak egiten saiatzen zen bitartean. Aitarekin afariko hitzaldi luzeak eta amonaren pazientzia, eta partidu egunetan etxe osoan zabaltzen zen zirrarak. Baina... beste guztia ere gogoan dauka. Odola hormetan eta lurrean. Ama, aitona, amona...buruz behera lurrean botata. Heriotzaren hoztasuna. Polizia-ofizialen galderak, banda horiak eta *Do not cross* letra beltz larrietan... *massacre*. Malko bat sentitu du masailean behera.

Ez, ez, ez. Ez da momentua negar egiteko. Hilketak ez ziren bere errua izan. Ezin izan zuen ezer egin...ez! "Isaiak San Martin ez zen erruduna izan", pentsatu du gizonak, "*ez nintzen erruduna izan*". Kulpadun bakarrak udako gau lasai hartan atetik sartu ziren putasemeak izan ziren. Zenbait urte geroago, Isaiak bera izan zen pistolaren katua sakatu eta bi gizon horiek zigortu zituen, Clelandeko kalezulo hotz eta heze batean. Momentuko adrenalina joan ondoren, alabaina, ez zuen bakerik sentitu. Mendekuak ez zion lasaitasunik ekarri, eta gau hartan etxera heltzean ikusitakoa ez zuen ahaztu. Ez du inoiz ahaztuko.

Arnasa sakon hartu eta hasperen egin du; ez da etorri bere buruaz pena sentitzera. Bere azken momentuak ez dira horrelakoak izango. Sukaldetik atera eta eskailerak igo ditu. Esquinera egin, eta bere logelara sartu da. Egoerarik onenean dagoen gela da. Hormetako pintura okreak oraindik kolore sendoa dauka, nahiko arrailduta egon arren. Ohe zabalaren gainean manta gorri zaharra hauts geruza lodi batez estalita dago. Armairua hutsik baina osorik dago, eta apaletan orriak horituta dituzten liburuak pilatzen dira. Apalera hurbildu eta mordotik liburu bat hartu du: Gerra eta Bakea, Tolstoirena. Orriak horixkak eta hauskorrak dira, baina oraindik irakur daiteke. Leihotik arratsaldeko argi laranja sartzen da. Apalen gainean aitona Loganen erretratua dago; bere begirada sakonak gela osoa ikuskatzen du, eta beste koadro guztien gainetik nagusitzen da.

Aitona Loganek ez zituen aitona Elijah-k beste istorio kontatzen. Ez zuen askorik hitz egiten. Denbora asko pasatzen zuen logelan, leihoaren ondoan eserita, kalera begira edo liburuak irakurtzen. Txikitan, Isaiak ez zuen aitonaren bakardadea ulertzen; amak galdetzea ere debekatzen zion. Baina, egun batean, egongelara jaitsi eta Sommekeo batailari buruz hitz egiten hasi zen. Bera Ingalaterrako Espedizio Armadan ofizial gaztea zela bidali zuten Sommera, Alemaniaren aurka borrokatzera. Infernu hura xehetasun osoz deskribatu zuen. Ehundaka hildako metro batzuk aurrera egiten saiatzen ziren bakoitzean. Milaka eta milaka lagunengorpu ustelen eta polboraren usain sarkorra. Artilleriaren orro etengabea eta su-jaurtigailuen bero itsaskorra... Istorioa amaitu zuenean, familia osoa mutu zegoen. Aitona eserlekutik altxatu eta bere logelara itzuli zen. Hurrengo egunean, Logan San Martin hilda aurkitu zuten ohean, begiak itxita.

Isaiak berriz orainaldira itzuli da. Ohe ondoko gau-mahaiaren bigarren tiradera zabaldu eta barruan dagoen urrezko eraztuna atera du. Ondo aztertu du; zafiro karratu handi bat du erdian, hainbat errubi txikiz inguratuta. Eraztunaren barruan tailu bat dago; *Memento Mori (1916)* dioena. *Hilko zarela gogoratu*. Bitxi hori aitona Loganen ondasunik preziatuena zen, eta Isaiak oinordetzan jaso zuen. Orain, ezkerreko eskuan jarri du, eta gelatik atera eta eskaileretan behera egin du. Atzeko atetik atzealdeko lorategi zabalera atera da.

Igerilekua hutsik dago. Lehen ur gardena zegoen lekuan, orain hosto lehorren mordoak eta putzu zikinak daude. Memoriara datoz gaztetako igerilekuko jaiak eta ur alboan etzanda zeruko izarrei begira igarotako udako gau luzeak. Igerileku alboan estalitako mahaia eta barbakoa zaharra daude oraindik. Atzean, hesiaren alboko laranjondoa hilda dago. Garai batean lorategiaren jaun eta jabe izan zen zuhaitzetik enbor biluzia bakarrik geratzen da. Haren inguruan eta zelai osoan belar txarrak asko hasi dira; goroldioa dago igerilekuaren ertzetan.

Isaiak eserleku bat hartu du eta igerilekuaren alboan eseri da. Eguzkia etxeen artean ezkutatzen dago, eta azken izpien beroa azalean sentitzen du. Sarraraskiaren gau madarikatu hura gertatu zenetik

lehenengo aldiz, ez du uzkurdurarik sentitzen bularrean. Kilkerren kantua eta urruneko umeen algarak entzuten dira.

Asko kostatu zaio 23 Sunset Driveko etxera itzultzeko erabakia hartzea, ez baitzuen bere burua gai ikusten itzultzeak eragingo zizkion oroitzapen lazgarriei aurre egiteko. Hamazortzi urte pasatu dira gau hartatik, etxe hartako lurra zapaldu zuen azken alditik. Denbora horretan ez zaio etxea saltzea pasatu burutik, ezta hiltzaileak zigortu ondoren ere. Hamazortzi urte horietan, hilketaren mamuak toki guztietara jarraitu du.

Hiru aste lehenago medikuak diagnostikoa irakurri zuenean, berriz, mamu hori desagertu egin zen. “*Sendaezina da*”, esan zuen Meng doktoreak. Herrialdeko mediku onenek ere ez zekiten zer zen Isaiah barnetik kanpora jaten zegoen gaitz hura. Zortzi asteko bizi-itxaropena eman zioten, gehien jota. Orduan jakin zuen etxera itzultzeko garaia zela.

Orain, berrogeita bi urte dituela, etxean dago berriz. Bere bizitzan atzera begiratzen du, eta gauza askotaz damutu den arren, ez zaio axola. Berandu da damutzeko; iragana ez da aldatuko. Ez ditu beti erabaki onak hartu, eta ez da santua izan. Lehen izugarrizko garrantzia zeukaten arazoek txikikeriak dirudite. Hala ere, bere esku zegoen guztia egin du arbasoen ohorea defendatzeko, eta bizitza osoan duintasunez jokatzeko saiatu da. Ez, ez dago egin duen guztiaz harro. Baina ez da damutuko.

Eguzkia ezkutatu egin da, eta estreinako izarrak agertu dira zeruan, perlek bezala dirdira eginez. Telefonoa atera eta alabari deitu dio.

-Aita? Non zaude?- galdetu du, arduratuta.

- Gure familiaren etxera itzuli naiz, 23 Sunset Drive kalera. Gogoratu hitz egin genuena eta etorri bihar.- esan du Isaiah-k, amultsu.- Lasai, maitea, ondo nago. Momentua heldu da.

- Maite zaitut, aita. Eskerrik asko denagatik. Hurrengora arte...- alabaren ahotsak dardara egin zuen, eta negar-zotinka hasi zen.

-Nik ere maite zaitut, bihotza. Zutaz oso harro nago.

Telefonoa eskegi eta bere alboan utzi du. Eskua praken ezkerreko sakelara sartu eta pilula hori bat atera du. Zeruan Esne Bidea ikus daiteke.

Errododendroak zeuden txokoan iltzatu ditu begiak azken aldiz eta Emily Fosterrekin pasatu zuen udako lehenengo gau hura gogoratu du. Hogeita bost urte pasatu dira, baina xehetasun guztiak gogoratzen ditu. Nola ahaztu irribarre hura eta arimaren eremurik sakonena miatzen zuten begi haiek? Momentu batez, bere aurrean ikusi du eta gau hartara itzultzea desio izan du. Atzo gertatu zela zirudien...atzo bizitza osoa zeukan aurretik, eta orain amaiera minutu gutxira dago. “Espero dut ondo egotea, Emily”, pentsatu du, “eta nitaz gogoratzea noizbait”.

Pastilla hartu eta etzan egin da. Pixkanaka-pixkanaka, gorputza flotatzen sentitu du, gozo-gozo. Izarren dirdira lausotu egin da, eta gaueko haize leunak dena irentsi du. Begiak itxi ditu. Azkenean, bakean dago.



Eneko Arandia Alberdi

BATX. 2. maila

*“Suntsituko dut, desegingo dut pentsamenduaren inposaketa.
Suntsituko dut, desegingo dut arrazoiaren erokeria”*

HAIZEAREN ITZALA

HERIOTZA

Isilik dator heriotza
dagoeneko igarri dut hotza,
ustekabeen harrapatu nau
hotzikarak oraindik dirau.

Badator...
Badator heriotza,
bizitzaren etsaia
arimaren azken geltokia
iluntasunaren erreinua
deabruaren atzaparrek sortua.

Heldu da...
Heldu da heriotza,
beldur guztien hilerria
arazo guztien amildegia
joko honen garailea
inoiz izan ez dudan bakea

Banoa...
Banoa heriotza,
ipuin honen bukaerara
Ezerezaren barrenera.

AINGERU

Oh aingeru,
nor zara zu?
Neguko eguzki izpiak
egiten dit kilima
zure begien distirak
urratsen dit arima
ordurik gabeko erlojuan
amaigabea da zure samina
irentsi nahi nauen olatuak
gogora ekarri dit zure lurrina

Oh aingeru,
nor zara zu?
Urruti egon arren
maitasunak du tinko eusten
hitzak ez ditut aurkitzen
galdetzeko non zauden
noraezean nabil bakarka
ez zaudela pentsatzean dardarka
bitartean zu bilaka
denborarekin indarka

Oh aingeru,
nor zara zu?
Ikusi zintudan eguna
bizitzaren kondena
egin nuen hitzarmena
ez zela izango azkena
zerutik ezin jaitsi
iluntasunetik ihesi
zuk duzula merezi
atzo gaur eta etzi

Oh aingeru,
nor zara zu?
Sentitzen naiz hautsita
zuk jarritako amua irentsita
sekula ez etsita
begiak itxita
izerdi hotzetan blai
ezin naiz izan alai
zure erruz orain
ez naiz amets egiteko gai.

IHESI

Mundu honetatik ihesi,
ezbehar guztietatik ihesi,
bizitza honek naskaturik nauka.

Nora noa?

Ez dakit.

Ez baitago toki baketsurik.

Denbora gelditu da,

iluntzea da,

txalupa bat hartu

eta itsaroratu egin nahiz.

Banoa.

Itsasoak naraman tokira,

eguzkia jarraituz,

mundu honetatik ihesi.

HAIZEAREN ITZALA

Izarrei begira piztu dut zigarroa,
agian keak beteko du barneko hutsunea.

Infernuko dama krudela,

nire ariman jarri duzu iltzea,

kearekin batera,

amodiozko hasperen batean askatu dut barruan neukan sugea.

Gaua, hotza bezain iluna,

Koldarkeria,

nire sentimenduen amildegia,

bihotz urratuen hilerria,

beharbada, musu bakar batez hautsiko dut gu banatzen gaituen harresia.

Ene maitale iheskorra,

haizeak itzala bezala,

bidean ahaztu nauzu.



Julen Arrien Urzaa
BATX. 2. maila

"Zaindu maite duzun hori"

SOBERAN

Joxe Mari zen bere izena, hori ere birritan erabili nahi izan balu bezala. Erretiroko garaia ongi joana zeukan nik ezagutu nuenerako. Egia esan, ordurako urteen zama ere igartzen hasia zitzaion aurpegiko zimur nekatuetan.

Joan Kaltzada egoitzan erizain moduan eman nituen urteetan ezagutu nuen. Garai hartan, erizaintzako ikasketak amaitu, eta beste ezer aukeran ez nuenez, zaharren egoitzan lana onartzea erabaki nuen. Hasieran ospitale edo antzeko zentro batean lana bilatu artean aritzea asmo banuen ere, urteek erakutsi didate adinekoekin lana egiteak baduela bere xarma, eta harrezkero egoitza bat baino gehiago ezagutu ditut Bizkaian zehar. Baina hasi, han hasi nintzen, Gernikako Joan Kaltzada egoitzan, eta han ezagutu nuen Joxe Mari. Ni egoitzara iritsi nintzenerako adinean nahiko aurrera zihoan, baina bertan zeuden beste hainbat zaharren ondoan buruko argitasuna primeran mantentzen zuen, nahiz eta askok kontrakoa pentsatu. Nirekin berehala egin zuen harreman ona, agian ordura arte ez zuelako nik bezain beste hizketarako beta ematen zion inor izan ondoan. Arrazoi batengatik edo bestearengatik, kontua da berehala hasi zela nire laguntza eskatzen gainontzeko erizainekin ausartzen ez zen moduan.

Mania bat zuen Joxe Marik: gauzak ez zituen berehala botatzen. Egia esan, ez zituen sekula botatzen. Gaur egun birziklatze moda bihurtu dena, Joxe Marik bizimodu zuen bihurtua. Gerra garaian nahiko behar eta gose igarotakoa zenaren aitzakian ez zuen ezer alferrik galtzen uzten. Hasieran ohitura moduan hartuko zuen gauzak berrerabiltzea eta pixkanaka, mania bihurtu zitzaion. Hori zela medio, erizainek uste zuten dagoeneko burua galduta zuela. Gainontzeko adinekoek ere antzera tratatzen zuten, baina nirekin izandako hizketaldietan ongi demostratu zidan burua bere tokian zuela, eta egindakoak egiteko beti izaten zela

arrazoiren bat tarteko. Ni Joan Kaltzada Egoitzara iritsi nintzenerako, Joxe Marik bere birziklatze sarea muntatua zuen. Ez zen gaur egun ezagutzen ditugun birziklapenen moduko sistema, Joxe Marik ez baitzekien nola berrerabili papera berriz ere paper-pasta egiteko, edo plastikoak nola birziklatu berriz ere plastikoa sortzeko. Joxe Mariren buruhaustea gauza zakarretara bota aurretik beste erabilera bat nola ematea zen.

Esaterako, horrela sortu zen egoitzan gaur egun dagoen oilategia, eguneko bazkaritatik sobratzen ziren ogi papurrak berrerabili nahian, Joxe Marik erositako bi oiloetatik abiatuz. Erosi ere ez omen zituen erosi, soberan zeuden edo jada erabiltzen ez ziren bestelako gailu batzuen truke aldatutakoak omen ziren oiloak. Eta haiek eguneroko gorotzez baliatu baratza jarri zuen abian. Horrelako ekintzek erizainen grazia irabazi zuela kontatu zidan Joxe Marik. Gustura jasotzen zituzten goizero oiloek errundako arrautzak, eta baita barazki freskoak ere. Eta goizero jasotzen zituzten Joxe Mariren birziklapenaren ondorioz sortzen ziren bestelako makina bat kontu. Baina denborarekin, gauza guztiak bota aurretik Joxe Mariren eskutik pasa beharra, eta honek erizainei eta gainontzeko aitona-amonei ezartzen zien jarraipenak urduri jarri zituen gainontzeko erizainak, eta denborarekin Joxe Mariren mania, obsesiotzat hartu eta bere burutazioak erokeria moduan ulertzen hasi ziren. Ni nintzen erizain erizain guztietan gazteena, eta horregatik edo beste mundu batetik nentorrelako, hobeto ulertu nuen Joxe Mari. Berehala konturatu zen nirekin bazuela harremana estutzerik, eta egunero egoitzako lorategian ematen genuen pasieran kontatzen zizkidan bere azken urteotako penak. Ni nintzen garai horretan berekin hitz egiten zen bakarretakoa, gainontzekoak nahiko nazkatuta baitzeuden nahiz eta goizero gustura jasotzen zituzten hark ereindako baratzaren fruituak, eta merkatutik eramane ohi zuen diru apurra (hildako aitona-amonek utzitako erropen bigarren eskuko salmentatik sortua), besteak beste.

Urte batzuk eman genituen horrela. Asko ez, ni iritsi nintzenerako Joxe Mari urteetan aurrera baitzihoan. Baina urte gutxi horietan nirekin estutu zuen harremana, beste inorekin ez bezala. Arratsaldeetako pasiera horietako batean normalean baino urduriago sumatu nuen, eta ezer gertatzen ote zitzaion galdetzea otu zitzaidan. —Faboretxo bat eskatu behar dizut —esan zidan urduri. —Esan ezazu lasai gizona —erantzun nion irribarre batekin hura lasaitu nahian—. Honezkero, ez zara nirekin lotsatuko.—Ez da hori —bota zidan hark—, baina nahiko kontu pertsonala da. Gure garaian baserrian erabiltzen genuen tresnatxo bat lortu nahi dut, baina ez naiz ausartzen gainontzeko erizainei eskatzera, badakizu... ez ninduketen serio hartuko! —Zer da ba gizona? —ni ere serio jartzen hasita nengoen ordurako. Begi -bistan zegoen Joxe Marirentzat gaia serioa zela benetan. Ez zidan aurpegira begiratzen hitz egiten zuen bitartean, edo behintzat ez zuen ordura arte egin. Behar zuena esateko altxa zuen burua, eta begietara begira jarrita honela esan zidan: —Goru bat behar dut. Ez nuen sekula izen hori entzun, beraz, berak espero zuen harridura keinua zapuztu nuelakoan nago. —Goru bat? Eta zer arraio da hori gizona? —galdetu nion. —Baserrian ehuntzeko erabiltzen genuen,

badakizu, ardiei ilea moztu ondoren, artile hori ehundu eta haria egiten da. Horretarako erabiltzen da gorua—eta jarraitu zuen—. Forma borobila dauka, eta garai batean oso arrunta zen, baserrietan behinik behin. Gaur egun, ez dakit non lor daitekeen horrelakorik. Nik pentsatu dut egoitzan izango dutela baten bat gordeta, garai batean erabiliko zutelako, baina ez naiz eskatzera ausartzen.

Tresna ezagun nuen. Joxe Marik irudikatu zidan tramankulu hura gaztelaniazko “rueca” hitzarekin erlazionatu nuen beti, baina ez nuen inoiz euskarazko izenik entzun, agian ez nuelako argazkitan baino horrelako trasterik ikusi. Gainontzeko erizainekin hitz egin eta bat lortzen saiatuko nintzela agindu nion, baina zertarako zen jakin beharra nuela, azalpenik eskatzen bazidaten-edo. —Zertarako den esaten badizut ez didazu sinistuko, beraz, lortu bat mesedez eta orduan jakingo duzu zertarako erabiltzen dudan. —horixe izan zen atera nion erantzun bakarra. Egun batzuk eman nituen beste erizainei horrelakorik nola eskatu pentsatzen. Ez nekien Joxe Marik esan bezala aitzakiaren bat erabili, ala zuzenean egia esatea hobe izango ote nuen.

Bitartean, Joxe Mariren gorabeherak zaintzen ere aritu nintzen, zertarako behar zezakeen asmatu nahian, baina alferrik. Zaintzaren poderioz, Joxe Mari beste begi batzuekin ikusten hasia nintzela otu zitzaidan. Ordura arte gainontzeko aitona-amonen moduan tratatzen nuen, agian zerbait desberdin bere berrerabilpen eta birziklatze kontuak zirela eta, berezi xamarra ere bazelako. Baina orain, beste begi batzuen atzetik begiratzen hasi nintzaiola iruditzen hasi zitzaidan, kontu horiek benetako maniak ere bazirela. Orduak ere ongi baliatzen saiatzen zen, eguneko hogeita lau orduak lan horretan ematen zituen. Sukalde inguruan ibiltzen zen bueltaka zer sobratuko harrapatu eta beste erabilpen bat emateko, gainontzeko zaharrak ez zituen bakean uzten haien traste zahar eta soberakinei erabilera berriak asmatu nahian, eta erizainak... erizainak dagoeneko nazkatuta zituen, eta haiei beldur eta errespetu pixka bat bazien ere, ez zituen bakean uzten.

Baina begiratuaren ikusiaz Joxe Mariren zahartzaroa etorri zitzaidan begietara. Adineko jendearekin lan egiteak zahartzarora ohitzen gaituela dirudi: irakasleek haurrak beti haur ikusten dituzten moduan guk ere zahar guztiak betirako zahar ikusten ditugu. Baina egun haietan konturatu nintzen batetik bestera bere egunerokoan zebilen hura ez zela betiko Joxe Mari.

Egoitzan hasia nintzenetik lehenengoz, bertakoei askotan entzundako esaldia etorri zitzaidan burura: urteek ez dute barkatzen. Zaharrago zegoen, bai, baina hala ere betiko dinamikari eutsi eta lan berri bat gehitu zion: josten ikasten hasi zen. Egoitzan hainbat ekintza antolatzen ziren orduak eramaten laguntzeko. Normalean behin eta berriz errepikatutako ikastaroak ziren, azken finean egoitza hartan inor ez baitzegoen betirako. Betiko ikastaroak zeuden: makrame, yoga, sukaldaritza, eta abar. Banekien ikastaro horrek ditzosozko goruarekin zerikusia izango zuela, eta noski, baita bi gauzek birziklatzearekin lotura

zuzena izango zutela ere. Bueltak eta bueltak eman nizkion gaiari, azkenean nire arazoa ez zela erabaki nuen arte.

Beraz, aitzakia berri bat bilatu beharrea zuzenean erizain nagusiarekin hitz egitea erabaki nuen. Joxe Mariren beharra aipatu nion, argi utziz ez nekiela zertarako behar zuen, baina interes handia zuela eta josten ikasten ere hasia zela azalduz. Erizain nagusiak bazuen Joxe Mariren berri, askotan izan baitzen hark egindako berrikuntzen inguruan. Isilik egon zen nik guztia azaltzen nion bitartean, eta amaitu nuenean galdera bakarra egin zidan: —Zein da zure iritzia? Ez nuen halakorik espero, eta iritzi jakinik ez nuenez nire ustea eman nion. —Ez dut uste inori kalte egiten dionik Joxe Mari josten hasteak. —esan nion— Zerbaitengatik berak garrantzi handia eman dio gaiari, horregatik ez da ausartu zuengana jotzen. Zuk eragozpenik jarriko ez bazenu, prest nago nire ardurapean hartu eta egiten duenaren jarraipena egiteko.

Erizain nagusia pentsakor geratu zen, eta buruarekin baiezkoa eginez nire ardura izango zela esan zidan. Hornikuntzaz arduratzen zen pertsonarekin hitz egiteko baimena ere eman zidan, hark goru zaharren bat gordeta ba ote zegoen begiratu zezan. Bere ustez, egon, bakarren bat egon beharko luke, baina hondatuta seguruenik ere.

Egun batzuk geroago joan ginen hornikuntzaz arduratzen zen pertsona eta biok Joxe Marirengana uste baino egoera hobean zegoen goruarekin. Traste handi xamarra zenez, hornikuntzako gajoak lagundu behar izan zidan, goruaz gain iruteko ardatza ere aurkitu baikenuen. Erizain nagusiak traste zaharrak gordetzen ziren ganbara goitik behera arakatu ondoren topatu zituen biak eta galdera gehiegi egin gabe lagundu zidan Joxe Marirengana eramaten. Erizain nagusiak eman zion nire eskariaren berri, berak nik ez bezala ikastaro berri baten aitzakia erabiliz.

Joxe Marirengana joan nintzenerako erabaki bat hartua nuen: ez nion utziko berriz ni erabiltzen. Bere orde z eman nuen aurpegia beste erizainen aurrean, eta istorio honetan laguntzen jarraitzea nahi bazuen goruaren zergatia azaldu beharko zidan. Ideia hori buruan nuela sartu nintzen bere gelara goiz hartan, eta buruaz gain aurpegian idatzita ere eramango nuelakoan nago, ze sartu orduko honela esan zidan. —Azalpen bat zor dizut. —Azalpen bat bakarrik? —erantzun nion nik erizain nagusiarekin batera neraman gorua lurrean utziz. Erizain nagusiak hitzik ere ez zuen egin. Trasteak lurrean utzita buruarekin keinu bat egin, gelari azken begiratu bat eman eta bakarrik utzi gintuen biok—. Buruan zer dabilkizun jakin arte ez dizut traste hau erabiltzen utziko — gaineratu nion haserre.

Une batez isilik egon ostean, eserita zegoen ohetik jaiki eta armairurantz mugitzen hasi zen, poliki, eman behar zidan azalpenak zama handia suposatuko balio bezala, edo azalpen hori pentsatzeko denbora irabazi nahian. —Badakizu beti izan dudala gauzak alferrik ez erabiltzearen kezka buruan—askok eromentzat zuten bere maniaz kezka

moduan jardun zuenean ni izan nintzen kezkatuena. Eta jarraitu zuen—, baina badago urte askotan alferrik galtzen ikusten nuen zerbait eta nola berrerabili inoiz jakin ez dudana. Urte hauetan guztietan nola berrerabili asmatu bitartean gordetzen joan naiz galdu ez zedin, baina azken hilabete hauetan bururatu zait zer egin behar dudan berarekin.

Hau guztia azaltzen zidan bitartean, bere gauzak gordetzeko zuen armairutik kaxatxo batzuk atera zituen. Zapata kaxak ziren, eta ez bat edo bi, dozenatik gora ikusi nituen nik lehen begiratuan, horietako asko zahar xamararak, baina guztiak zapata kaxak zirela nabari zen. —Gaur arte ez diot inori hau kontatu, eta ez dizkiot inori kaxa hauek erakutsi. Ulertu beraz nire azken erokeria hau, ez dela bat-batean izandako burutazioa, urteetan izandako kezka baten ondorioa baizik. —zurbil zegoen hau esan eta eskutan zuen kaxa kristal berezi batez egina balego bezala luzatzen zidan bitartean. Ulertu nuen bere bihotza zabaltzen zidala, eta niretzat kuriositate bat besterik ez zena gauza serioagoa zela harentzat. Zeremonia osoz zabaldu nuen emandako zapata kaxa, uneak eskatzen zuen seriotasuna demostratuz. Hau zabaltzerako berrerabili ezin zitezkeen mila gauza bururatu zitzaizkidan, baina hala ere edukiak harritu egin ninduen.

Bolatxoak ziren. Kotoi bolatxo txikiak. Oso-oso txikiak. Ehundaka zeuden. Milaka agian. Burua altxa eta Joxe Mariri begira geratu nintzen. Galdera begietan neukan, eta nik ahoa zabaltzerik ez zuen behar ezagutzeko, baina gordin bota nion berdin-berdin. —Ze kristo da hau? —galdetu nion batere gupidarik gabe. —Kotoi bolatxo txikiak. —erantzun zidan urduri— nire zilborretik egunez egun eta urtez urte jasotako kotoi bolatxoak. Nire kalkuluen arabera berrogeita hamar urte inguru daramatzat hauek jasotzen. Egunean bat jasoz gero, denbora horretan hemezortzi mila bolatxotik gora bildu ditudala esango nuke.

Hori esanda, geldiune bat egin zuen, agian nik aurpegian nuen harridurak eraginda, edo nola jarraitu asmatzen ez zuelako. Baina ezer esaten ez nuela ikusita, azalpenarekin aurrera egin zuen. —Ez al diozu zeure buruari inoiz galdetu, zergatik arropa eranstean agertzen zaizkigun kotoi bolatxoak zilborrean? Jende guztiak galdetzen zion hori bere buruari, nondik demontre ateratzen ote diren bolatxo horiek. —azaldu zidan Nik, ordea, beste galdera bat egin diot beti neure buruari: zer egin dezaket bolatxo horiekin? Nola berrerabili? Pena bat da, egunero-egunero hainbeste kotoia alferrik botatzea, eta horrekin zerbait egin beharra zegoelakoan eman dut bizitza, baina inoiz ez zait ezer bururatu. Duela hilabete batzuk otu zitzaidan, ordea. Gorua erabiliz, bolatxo guztiak harituko ditut eta kotoizko hariarekin zerbait josiko dut. Ez dakit nire erreakzioen zain geratu ote zen, baina ez nintzen erantzuteko gai izan. Horren ordez, bere lan berrirako animoak eman eta gelatik alde egin nuen, nire harridura haserre bihurtu aurretik.

Hurrengo hilabeteetan ez nuen apenas hitzik gurutzatu Joxe Marirekin. Erizainek hainbeste aldiz esan zidaten moduan, Joxe Mari erotzen hasia zegoela pentsatzen nuen ordurako, eta nahiz eta jakitun nintzen hori ez zela nahiko arrazoi berarekiko nuen jarrera aldatzeko, ez nintzen gauza ikusten berarekin betiko moduan aritzeko.

Zorionez, Gabonak ere inguratzen hasiak ziren, eta garai horretan bisitaldien plangintza, festen antolakuntza eta antzekoekin, lanez gainezka izaten ginenez banuen nahikoa aitzakia berarengana ez hurbiltzeko. Ildo horretan Joxe Mari berak ere lana erraztu zidala onartu beharra daukat. Gorua eta ardatza eramanez genizkion egunetik bere gelan ematen zituen orduak eta orduak, eta gero eta erlazio gutxiago zuen gainontzeko adinekoekin. Triki-traka, triki-traka iruten ari zelakoan nengoan orduan, eta orain badakit baietz, hala aritu zela, inork pentsatuko ez lukeen moduan gainera. Horrela eman genituen Gabonak iritsi arteko hilabeteak, elkarrekin hitz gutxi batzuk besterik ez eginez. Gabonetarako egun gutxi falta zirela inguratu zitzaidan Joxe Mari. Azken hilabeteetan zahartua ikusi banuen ere, denbora hartan berarekin harreman askorik ez izateak areagotu egin zidan nabarmen bere zahartzearen irudipena. —Amaitzen ari naizela bakarrik esan nahi dizut. —esan zidan inguratzean. Zalantzan geratu nintzen hasieran, esaldiaren zentzu zehatza zein zen asmatu ezinik. Aspaldian begiratu ez nion bezala begiratu nion.

Osasunez sasoiako ikusten bazen ere, azken aste hauetan behera egin zuela zirudien, eta bere aurpegiko zimurrak lehen baino nabarmenago ikusi nizkion. Irribarre triste bat ere bazuen aurpegian egun hartan, eta hark begietako argia itzaltzen ziolakoan nago. Baina berehala konturatu nintzen ez zela bere buruaz ari, bere beharraz baizik. —Pozten naiz, Joxe Mari —erantzun nion irribarre azkar bat bortxatuz—. Laster ikusiko dugu, beraz, zure arte lana! —Uste baino lehenago —bota zidan berak serio, eta ohi zuen moduan buruarekin agur eginez alde egin zuen. Bizirik ikusi nuen azken aldia izan zen hori.

Telefonoaren karrankak esnatu ninduen hurrengo goizean. Egoitzan goizeko txanda nuen arren, iratzargailuak baino lehenago jo zuen telefonoak gurean. Susto batez esnatu ohi naiz horrelakotan, telefonoaren txirrinak esnatzea zoritxar iragarle moduan hartu ohi dudalako.

Beldurrez hartu nuen telefonoa, eta aurrez berri onik espero ez banuen ere, nire ustea are gehiago ilundu zen erizain nagusiaren ahotsa entzun nuenean. —Ahalik eta lasterren zu Egoitzara etortzea behar genuke —esan zidan ordu horietan deitzeagatik barkamena eskatu ondoren. —Zer gertatu da? —galdetu nion nik, gorputzeko egonezina kendu ezinik. —Joxe Mari bere ohean hilik topatu dugu —erantzun zidan hark, eta geldiunetxo baten ondoren jarraitu eginzuen—. Zure izenean dauden gutun-azal bat eta kaxa bat utzi ditu.

Goizeroko dutxa alde batera utzi, eta arrapaladan jantzi nintzen. Jota nengoen. Bezperan ikusi nuen Joxe Mari eta zahartuta topatu banuen ere, ez nuen halakorik espero. Autoa hartu, eta egoitzara joan nintzen bidean gertatu ote zenari bueltak ematen. Telefonoz galdetu banion ere, erizain nagusiak ez zidan azalpen gehiagorik eman, ahal nuen bezain azkar joateko erregutu zidan, hangoak argitzen laguntzeko. Egoitzara iritsi nintzenerako bertako sendagilea, bi udaltzain eta erizain nagusia zeuden Joxe Mariren gelan. Haren gela ez zen beste munduko gauza, eta pare bat lagun atera behar izan ziren ni sar nedin. Larri nengoen, eta nire larritasunaren esperoan-edo, ni baretzea izan zen gelakoen lehen lana. —Heriotza naturalez hil da —esan zidan sendagileak — Naturaren aginduei kasu eginda joan da, zaude lasai beraz. —eta oraindik ere ohe gainean zerraldo zegoen gorpua erakutsi zidaten, Joxe Maririi heriotzak inolako sufrimendurik eragin ez ziola adierazi nahian edo. Egia esan, lasai hil zela zirudien, betirako atsedanak ohean gozo harrapatu baitzuen. Ohe gaineko hilari begiratzeari utzi nionean aldean nuen erizain nagusiak eskuan bueltaka zebilkien gutun-azala luzatu zidan. —Hau da telefonoz aipatu dizudan gutuna —esan zidan—. Kaxa bat ere utzi dizu, mahai gainean dagoen hori da. — eta sendagilearen ostean kokatutako mahaiaren gainean zegoen kaxa itxi bati erreparatu nion orduan.

Urduri baino urduriago banengoen ere, garbi zegoen lehen lana gutuna zabaltzea izango nuela. Guztiak nituen zain, eta haien jakin-nahia ase gabe ezin nuen utzi. Laburra zen oso Joxe Marik utzitako gutuna. Hasieran ez nuen ulertu bere azken gutuna niri zuzentzearen zergatia, baina familiarik ez zuenez, bere mezua nik bakarrik ulertuko nuelakoan zegoela iruditu zitzaidan gero. Honela zioten birziklatutako paperean idatzitako azken lerro haiek: Jon maitea, badakit ez dela hau agurrik itxurosoena, baina nire azken borondateak zentzu bat izatea nahi nuke. Badakizu ez dudala gustuko ezer alferrik galtzen ikustea. Ez nuke nahi, beraz, halakorik gertatzea nire gorpuarekin. Halaber, ez dut ni errausterik nahi. Lurperatua izan nahi dut, nire gorpuak zomorroen gosea asetzeko balio dezan, eta lurperatze hori nire azken jantziarekin izan dadila. Zure laguntzaz prestatu dudan azken jantzia soinean dudala. Zure izenean utzi dudan kaxan topatuko duzu. Ezer ez dadila soberan geratu. Joxe Mari.

Gutuna ozen irakurtzeaz amaitu nuenerako nire ondora ekarria zuten aipaturiko kutxa. Bere bizitzako azken aste haietan egindako lanaren emaitza zen eta zabaldu nuen arte ez zitzaidan burutik pasa ere egin bertan zer topatuko nuen. Hil-jantzi bat zegoen bertan. Trauskil jositako jantzia zen, zalantzarik gabe Joxe Marik berak egindako jantzia. Bere bizitza osoan maitasun osoz bildutako kotoiarekin prestatu zuen azken jantzia. Herioren arnas hurbilaren laguntzaz prestatutako hil-jantzia.



Olaia Mujika Anduiza

BATX. 2. maila

*“Batzuek diote gure ametsak egi
bihurtzea dela bizitza interesgarri egiten
duena”*

ABERRI SOINUAK

Ez dakit konkretuki noiz, baina udaberriko egun batetik hasita nolabaiteko egonezina sumatzen zen airean. Jendea urduriago zegoen, eta errazago haserretzen zen. Bat-batean gizonak desagertzen hasi ziren, eta nik eta nire lagunek gizonak gutaz ezkututzen zirela pentsatzen genuen, eta haiek aurkitzera egiten genuen jolas. Nire aita, osabak eta lehengusuak ere joan ziren, nire familiako emakumeek negar egiten zuten bitartean. Aita inoiz baino serioago zegoen. Elizako kanpaiak, ordurarte hautsita egon zirenak, konpondu egin zituzten eta noizean behin jotzen hasten ziren. Horrek jendea gehiago urduritzen zuen, eta alde batetik bestera korrikan hasten ziren, oihuka. Ama eta biok izeba Marianen etxera joaten ginen kanpaiak jotzen hastean, eta bere biltegian igarotzen genituen ordu luzeak, lehengusuekin eta beste izebekin batera. Amak eta izebek otoitz egiten zuten, Gure Aita gora eta Gure Aita behera. Izebaren biltegian hainbat gauza zeuden, ardoa, hirina, eztia...eta izebak zeozer jatea uzten zigun. Nik atuna aukeratzen nuen beti.

Gogoratzen naiz nire lehengusina Mariarekin etxera bueltatu nintzen batean, nola ama eta izeba Marian hitz egiten aurkitu genituela. Izeba malkoak ezkututzen saiatu zen, baina ez zuen lortu. Amak amonarengana joango ginela esan zigun Mariari eta niri. Maria oso pozik zegoen, bazekielako amona Floranean egonda ez zegoela eskolara joaterik, Mañuko baserri batean bizi baitzen. Maria pozaren pozez lasterka joan zen bere neba Antoniorengana, azkenean bere moduan eskolara joango ez ginela kontatzera. Antoniok, 15 urte zituenak, urte batzuk zeramatzan eskolara joan gabe, itsasora joaten zen eta.

Nik mesfidantzaz hartu nuen berria. Amona Flora ez genuen sarritan bisitatzen, herrira etortzen zenean soilik ikusten genuen. Izeba Marian, bere alabaren aldean erakutsi nuen poz gutxiaz ohartuta, oporretan egotea bezala izango zela esan zidan, amonak hainbeste animalia zituela etxean, eta lagun berriak egingo genituela bertan. Etxean, baserrirako gauzak prestatzen hasi ginen, eta amak amona Floranean lehengusu guztiak batuko ginela esan zidan. Amona Florak, bost seme-alaba izan zituen: Osaba Genaro, izeba Ana, osaba Juan Carlos, nire ama (Isabel), eta izeba Marian. Osaba Genaro, seme nagusia zenez, auzoko baserritar baten alabarekin ezkondu eta baserrian geratu zen. Tamalez, hirugarren haurra erditzerakoan izeba Trinik zailtasunak izan zituen, eta biak hil ziren. Izeba Ana ez zen inoiz ezkondu eta bere nebarekin gelditu zen baserrian etxeko lanetan laguntzeko. Izeba Marian eta ama herrian lan egiten hasi ziren 17 urterekin, eta lehena tabernari batekin ezkondu zen eta bigarrena arrantzale batekin. Bakoitzak bere seme-alabak izan zituen. Osaba Juan Carlos Soriara ezkondu zen, eta ez zen gehiago bueltatu.

Horrenbestez, baserrian amona, izeba Ana, osaba Genaro, eta honen seme-alabak bizi ziren: Santi eta Paula. Gure etxean askotan egonak ziren biak, eta elkarrekin barre pila bat egiten genuen.

Handik egun gutxitara abiatu ginen baserrirantz, gaueko ordu txikietan. Izeba Marianen dendako hainbat gauza eramane genituen gurekin: atuna, ardoa, olio eta ezti. Ibilbidea hitz egin gabe egin behar genuela adierazi ziguten arren, irten eta gutxira hasi ginen ahapeka eztabaidatzen.

- Antonio, egon al zara inoiz Mañun? - galdetu nion, ahapeka.
- Bai, zergatik galdera?
- Amona ikustera hiruzpalau aldiz baino ez naiz joan txikitari, eta bidea laburragoa zela gogoratzen nuen - erantzun nion.
- Agarreko bidea itxita dagoela esaten entzun dut nire ama, horreegaitik goaz hemendik.

Eguzkiaren lehen izpiak agertu bezain laster familiaren landa berdeak agertzen hasi ziren. Mañuko auzoa hainbat muinok osatzen zuten, eta baserri ugari eta baseliz bat kokatzen ziren muino horietan. Egunak ederto igarotzeko toki aproposa zirudien. Amonaren baserriaren kanpoaldean Zuri txakurra zegoen lotuta, eta tximinitik kea irtetzen zen. Amona Florak egiten zuen taloaren usaina airean zegoen, eta guk eramandako eztiarekin jan genituen. Amona beti bezala zegoen, arropa ilunez jantzirik eta zapi beltz batekin buruan.

Irakurtzea asko gustatzen zitzaion, eta matematiketarako bizkorra zen. "La Gaceta del Norte" egunkaria irakurtzen zuen egunero, eta Arantzazuko aldizkaria hileroko.

Mañun asteko egunak errepikakorrek ziren, jaiki ondoren Bernarda behiaren esnea edaten genuen, eta ondoren bakoitzak bere

betebeharrak egiten zituen: Paulak sukaldeari zegokionak, Mariak eta biok garbiketa lanak, eta izeba Anak eta amonak, animaliak elikatzen zituzten, eta osaba Genaro eta Santik, baratzea landu. Antonio auzokoengana joaten zen, trukeak etab. egitera. Gauetan amonak idazten eta irakurtzen irakasten zigun.

Igandeetan elizan batzen ginen beste baserrietako jendearekin, eta igandeetako arropa janzten genuen, eguneroko arropa baino politagoa zena. Aita Jose zen meza ematen zuen apaizaren izena, eta ondoren denok batera bazkaltzen genuen. Jarraian bakoitza bere baserrira joaten zen, baina emakume talde batek bisitatzen gintuen arratsaldean, eta amonarekin eta izebarekin hitz egiten gelditzen ziren luzaroan.

Errutina hori gertakari batek hautsi zuen: egun euritsu batean, emakume bat eta bi neska-mutil agertu ziren baserriko atarian. Izebak azaldu zigunez, haiek gure beste lehengusuak ziren, Alfonso eta Rocio, gure osaba Juan Carlosen seme-alabak. Amonak negar egin zuen, haiek ikusten zituen lehen aldia zelako. Antza denez osaba Juan Carlos eta bere emaztea oso lanpetuta zeuden, eta beren seme-alabak Mañura bidaltzea erabaki zuten amona ezagutu zezaten. Alfonso Santi eta osabarekin hasi zen baratzean lan egiten, eta Rociok 7 urte zituenez, Mariak bezala, etxean egiten zuen lan. Alfonsok eta Rociok ez zekiten euskaraz ondo hitz egiten, baina esaten nien guztia ulertzen zuten.

Mañun denbora-pasa berri bat aurkitu nuen, beharbada pixka bat desagokia: besteen elkarrizketak entzuteko artea. Horrela, gauza interesgarrien berri izaten nuen, batzuetan zertaz hitz egiten ari ziren ulertzen ez banuen ere. Eztabaida gutxi gogoratzen ditut, eta berezitasunen bat zutenak soilik ditut gogoan. Adibidez, asteazken batean, amonak eta izebak izandako elkarrizketa bat :

Manuel eta Carlos non dauden jakin nahiko nuke.-esan zuen amonak.
Ez dago jakiterik, ama.-erantzun zion izeba Anak, zerbait josten zuen bitartean.
Haurrak etorri zirenetik ez dira agertu. Ez al da kezkarria?
Hobe! Nola azalduko zenieke haurrei? -galde egin zion izebak.
Ez dakit.-aitortu zuen amonak.

Elkarrizketa labur eta xume hau nire buruan bueltaka egon zen egun pare baten. Nor ziren gizon haiek? Nire lagunak eta ni gizonen bila joaten ginen astelehenero, eta ordurarte ez genuen bakar bat ere aurkitu. Haur tolesgabeak ginen, eta ezkutaketan oso onak zirela uste genuen.

Eztabaida hori entzun eta astebetera ulertu nuen dena. Mañu lehenengo aldiz ikusi nuenetik lau astetara, baratzetik bi gizon ikusi nituen baserrira eramaten zuen aldapa jaisten, bat gaztea, argala eta ile beltzduna. Bestea zaharragoa, burusoila eta herrena zen. Korrika joan nintzen etxe barrura, eta oihuka ohartarazi nituen etxe barrukoak. Amonak Alfonsori etxe barrura sartzeko esatera bidali ninduen. Atzetik,

bi gizon haiek aurkeztu zizkigun, Carlos eta Manuel. Carlos Manuelen aita zela kontatu zigun, eta hurrengo egunerarte geratuko zirela.

Baserriak lau logela zituen; bitan haurrak geunden, hirugarrenean amona eta izeba eta laugarrenan osaba Genaro. Gizon haiek bere logelan sartu zituen amonak, eta gau hartan logela berdinean egin behar genuela lo guztiok adierazi zigun lehengusuoi. Izeba baserrira heltzean gure logelara sartu eta gizon horiek ikusi genituela inori ez esateko agindua eman zigun. Kopetilun zegoela uste dut. Nik gizon haiekin hitz egin nahi nuen, nondik zetozen galdetu. Ikusi al zuten nire aita? Tamalez, hurrengo egunean jaiki nintzenerako nintzenerako ez zeuden etxean. Osaba Genaro egun berean joan zen Madrilerantz, han egiteko zer bait zuen eta.

Hurrengo eguna egun berezi bat izan zela dut gogoan. Arratsalde inguruan elizako kanpaiak jotzen hasi ziren bat-batean, herrian egiten zuten bezala. Arineketan joan ginen elizara, baina bankuetan eseri beharrean, lur azpira eramaten zuen pasadizo batetara gidatu gintuzten. Ez zegoen ia lekurik. Jendea arnasteko arazoak izaten hasi zen, eta lasaitasunera bueltatzeko, apaizak otoitz egitea gomendatu zigun. Nik eta nire herrian bizi ziren lehengusuek bagenekien zer egin, baina soriarrentzat berria zen prozedura hura.

- Rocio, Alfonso. Errezatu egin behar dugu orain.-azaldu zien amona Florak.
- Errezatu?-galdetu zion Rociok.
- Bai. Gure Aita, zeruetan zagozana. Badakizue, ez?- galde egin zion amonak

Buruaz adierazi zioten baietz, eta hasi egin ziren. Ez zeuden Gure Aita otoitza osatzen duten hitzak esaten ordea, baizik eta hitz arrotzak. Sekulako isiltasuna nagusitu zen ezustean, soriarrak aldiz, aurrera jarraitu zuten. “Cielos”, “tierra”, “pan” hitzak bereizi nituen. Jendea zur eta lur zegoen. Otoitza amaitu zutenerako batzuek amorru aurpegia zuten. Eztabaida bat hasiko zela zirudien, baina orduan “boom” izugarriak entzun ziren. Izua nire gorputz osora zabaltzen sentitu nuen, suge bat balitz bezala. Nire aldamenean zegoen Rocioren masailak malkoz bete ziren, eta besarkatu egin nuen. Paula gure ondora etorri, eta hitz egiten hasi zitzaigun:

- Lasai. Erraldoiak dira, handi-handiak diren pertsonak. Entzuten duzue zarata hori? Beren pausoak dira. Mila behik baino zarata handiagoa egiten dute, ezta? Baina gure lagunak dira.

Miriam izeneko 20 urteko emakume bat negar zotinka hasi zen erraldoiei buruzko bere azalpena entzun ostean. Ez nuen ulertu zergaitik. Ordu batzuk pasata, kanpora irten eta erraldoiek baserri batzuk hondatu zituztela ikusi genuen. Paulak zera esan zigun, erraldoiak, hain handiak zirenez, ez zituztela lurreko etxeak ikusten, eta batzuetan nahi gabe hautsi egiten zituztela. Leku hartan egon ginen orduak joan orduak

etorri, bitartean kanpoan, erraldoiak etengabe ibiltzen eta txistuka egon ziren. Haien pauso handi eta indartsuek “boom” antzeko bat egiten zuten, eta lurra dar-dar egiten zuen une batez.

Carlos eta Manuel gau hartan itzuli ziren berriro. Berriz ere, amonak bere logelan sartu, eta Paula eta Santi izan ezik guztiok bidali gintuen lo egitera. Nik albisteak sumatu nituen airean, eta nire logelan zeudenak (Maria eta Rocio) loak hartu bezain laster espioiek moduko ihesaldia egin nuen eta beheko pisura joan nintzen zer esaten zuten entzuterara.

- Amona, errespetu guztiz, zoratu egin al zara? -galdetu zion Santik.
- Santi, mesedez!- Paulak.
- Ez, utzizu. Santi, ez dago besterik. Lagundu egin behar diegu.- irmoki amonak.
- Oso arriskutsua da horiek hemen edukitzea. Zer gertatuko litzateke aurkituko balituzte? Ez al da nahikoa Carlos eta Manuelekin? - itaundu zion Santik.
- Hori egia da, ama. Orain haurrak ditugu hemen - izeba Anak
- Ez da ezer gertatuko. Ez datoz beti, batzuetan bakarrik. Soldadu muturluze horiek etorriko balira ezkutatu egingo genituzke ganbaran. Ez dago inor han sartzen ausartuko denik, badakizue nola dagoen.- esan zuen amonak.

Isiltasunean egon ziren, amonak hautsi zuen arte:

- Guztiok egon beharko gineteke Carlos eta Manuel egiten daudena egiten. Ba al dakizue Manuel bolondres aurkeztu zela? 18 urte besterik ez ditu! Bere amak negarrari eman zion jakitean, eta aitak, Carlosek, emaztea horrela ikusirik, bera ere apuntatu zen, semea zaintzeko. Gizon hauek egiten dutenak ez du preziorik, eta zuen aldetik errespetua eta mirespena merezi dute. Orain denok lotara.

Hori entzun eta segituan eskailerak gora joan nintzen, Paulak nire logelan egiten baitzuen lo.

Sarriago etortzen hasi ziren bi gizonak, eta Paula sutondoan geratzen hasi zen gauetan Manuelekin berriketan. Santi inguruan ibiltzen zen, baina ez zion Manueli hainbesteko kasurik egiten.

Ama eta izeba Marian ikustera joan behar ginen egunean berri txar bat eman ziguten: Antonio lehengusua zerura joan zen. Hileta herrian izan zen, eta ezin izan ginen hara jaitsi gure lehengusua agurtzeko. Enkargu bat egiten zuen bitartean gertatu zen ezkerro, Mañutik ez irtetea erabaki zuten helduek, eta ez ginen gehiago herrira jaitsi.

Horren atzetik ez zen ezer berezirik gertatu, eta egun haiek guztiak hainbat elkarrizketa zentzugabek markatzen dituzte nire oroimenean. Esate baterako, amonaren etxean igandero batzen zen emakume taldearen tertuliak.

- Zer, Flora. Zer dio hilabete honetan Arantzazuko aldizkariak?- galdetu zion Juanak baten amonari.
- 224 preso hil dituztela kartzela batean, Larrinagakoan, uste dut.
- Benetan? Baina nola? Eta zergaitik?--itaundu zuen beste batek.
- Arrazoirik behar al da ba, norbait hiltzeko egunotan? -esan zuen izebak.
- Antza denez gudariak agertu ziren ustekabeen eta gauza eten zuten. 100 pertsona inguru salbatu direlakoan nago.- segitu zuen amonak kontatzen.
- Eskerrak!

Edo beste batean:

- Eta zer dio “La Gaceta del Norte”-k aste honetan Flora?
- Hara, astelehenan Bilbon ez dakit nolako defentsa sistema jarriko dutela zihoen, martitzenan ezetz, eguaztenan berriz baietz, eguenan gudari gehiago behar direla, barikuan Gernika bonbardeatuko dutela uste dutela batzuek, eta zapatuan Agirre lehendakariari buruzko esamesen bat.
- Gernika bonbardeatuko dutela?- egin zuen galde batek.
- Hori uste da. Ana, ekarri egunkaria, tximiniaren gainean dago, hauek ikus dezaten-esan zion amonak izebari.
- Baina Flora, gutako inork ez daki irakurtzen! Zertarako ikusi behar dugu ba?

Beste batean amona eta izeba entzun nituen, tximiniaren aurreko eserlekuetan zeudela.

Manuel eta Carlos hemen diren bakoitzean horrela ibili behar izateak nazkatzen nau.

Ana Maria! Esker onekoa izan beharko zinateke. Ez al duzu lotsarik? Hemendik joaten diren bakoitzean ez dakigu bueltatuko diren. Ez al dute merezi ohean lo egitea? Gurea defendatzen dabiltzala gogorarazten dizut.-egin zion errieta amonak. Ganera, kontutan izan behar dogu gure Isabelen senarra, agian etxeren baten

Izeba Ana ixilik geratu zen, arrazoia emateko modu bat dena.

Astearte batean ezohiko bilera egon zen amona Floraren baserrian. Inoiz ikusi ez nuen jendea etorri zen, eta baita Aita Jose ere. Zerura joan zen norbaitez hitz egiten zuten.

- Postariak aurkitu omen du, atzo goizean.-esan zuen batek.
- Guztiok genekien bide hori ez zela segurua. Nolatan ez zekien ba, berak?

- Ez dakit, Lourdes.- esan zion apaizak.
- Hiru seme-alaba utzi ditu. Bere senarra Amaiur batailoian omen dago.-erantzun zuen izebak.

Manuelekin gutxitan egin nuen hitz nik, Paularekin egoten baitzen gehien. Beharbada horregaitik gogoratzen dut mutilarekin izandako elkarrizketa bakarra, Carlos eta Manuel inoiz baino goizago agertu ziren egunekoa. Carlos jarraian joan zen lo egitera, Manuelek osterara, gurekin batera afaldu zuen.

- Eta zer egiten duzue hemen ez zaudetenean?- izan zen Mariaren galdera.
- Menditik ibiltzen gara, inguruak zaintzen- izan zen erantzuna.
- Ze adoretzua zaren, Manuel!- Paulak.
- Ni ere egunero joaten naiz mendira.- esan zuen Santik.
- Baina ez da berdina, Santi. Zuk ez duzu zure bizia arriskatzen.-esan zion Paulak.
- Beste egunean hartz erraldoi baten aurka egin nuen borroka. Hori ez al da ba, bizia arriskatzea?
- Hemen ez dago hartzik, Santi!-barrezka Paulak.
- Zer dakizu zuk ba? Zuk bai ez duzula bizia arriskatzen, baserritik ozta-ozta irteten zara eta!

Hura izan zen Manuel eta Carlos ikusi genituen azken eguna. Hurrengo egunean joan eta ez ziren inoiz itzuli, noski, Paularen ametsetan izan ezik.

Urte askoren buruan ulertu nituen gerra zibileko (1936-39) gertakari asko. Adibidez, herriko kanpaiek faxisten tropak hurbil zeudenean jotzen zutela, eta Mañukoek faxisten hegazkinak hurbiltzen zirenean. Erraldoien urratsak bonbak ziren, eta baselizaren behean kokatzen zen gela txiki hura babesleku bat..

Amona Flora abertzalea zen, eta belarrietaraino sartuta zegoen gerrako kontuetan. Bestalde, Izeba Ana errepublikarra zen, baina iskanbila haretan batera zeuden, beste gauzetan ez bezala. Amak helduagoa nintzenean esan zidanez, hainbat gudari elikatzen zituzten sekretuan, eta informazioa pasatzen zuten batailoi batetik bestera. Soriarrei dagokionez, nire osaba Juan Carlos eta bere emaztea haurrekin Soriatik ihes egiten saiatu ziren bando nazionalistan osabak borroka ez zezan, baina bi helduak hil egin zituzten. Bikote batek salbatu zituen Alfonso eta Rocio, eta hilabeteetan herrialdetik bidaiatu ostean Mañura iristea lortu zuten pertsona talde baten laguntzaz. .Era berean, osaba Genaro ez zen inoiz Madriletik itzuli. Azken berriak hiri hartan atxilotu zutela eta epaitegitik ez zela pasa ziren. Luzaro honetaz pentsatzen egon ondoren, Erorien Haranean egon daitekeela uste dut, luurperatuta edo antzekoren bat, batek dakielako nolako egoeran dauden faxistak ez zirenen gorpuak leku hartan.

Beharbada deskubritu nuenean gehian harritu ninduen gauza zera da, Antonio lehengusua tiro batez hil zutela Agarreko bidean. Bide hori erabiltzea zen ohikoena Mañura joateko, baina arriskutsua bilakatu zen gerra hastean. Leku berean hil zuten hiru seme-alaba zituen emakumea. Gu amonaren etxera joatean beste bide bat erabiltzeak salbatu gintuen. Manuel eta Carlos gudariak ziren, eta baita herrian eta Mañun falta ziren gizonak ere, nire aita, osabak ,eta lehengusuak barne. Hauek etxera itzuli ziren gero, eta Manuel eta Carlos berriz ikusi ez nituenez haiei buruzko informazioa bilatu nuen gerorantz: Maiatzean utzi zuten amona Floraren baserria, eta Bilborantz abiatu ziren, hiriko Burdin Hesia defendatzeko. Carlos hor hil omen zen, eta Manuelen arrastoa galdu egin zen betirako.

Gerra amaitu zenean lehengusu guztiak herrira itzuli ginen. Paulak Manuel maite zuen, 15 urteko neskek maitatzen duten modu horretara. Manuel gehiago amonaren etxera itzuli ez izana sekulako kolpea izan zen beretzat, eta hilabeteetan egon zen umore kaxkarrez.

80 urteko Carmen naiz, eta nire aurpegiko zimur bakoitzak ehundaka memoria, eta milaka ardura adierazten ditu. Baina horietako bakoitzeko, mila irribarre eta momentu on ere badaude. Txikitari ulertzen ez nuen gerra hura beste modu batera begiratzen dut orain, eta bonbak erraldoiak ziren garaira itzuli nahiko nuke, errealitate hura politagoa baita. Nahiz eta hori askotan desiatu izan dudana, ez da benetan gertatutakoa aldatu, zoritxarrez beste alderdikoek irabazi zutelako gerra. Urteak igaro ondoren ordea, ulertu dut ez dela garaipen osoa izan, hori horrela izan balitz, gure hizkuntza eta kultura hilda egongo zirelako. Gure herria askea ez bada ere, bizirik gaude, hemen jarraitzen dugu eta euskararen bitartez egiten dugu. Amonak irakatsi zidan hori, eta berdina irakatsi izan diet urte hauetan guztietan ikasle modura izan ditudan haur guztiei. Beharbada ez naiz gudari bat izan, ez naiz mendira joan ezta pistola bat erabili ere, baina nire amonak emandako arma bakarra ondo erabili dut eta garaile atera naiz, hurrengo belaunaldiari irakatsi izan diodalako gurea dena defendatzen gaur egun dugun modu bakarrean: euskararekin.



Sara Iturriarte Basterretxea.

BATX 2. maila

*"Wear what you want, own who you are,
measure your beauty in kindness.
All of your strength is in all of your scars,
never mind the world and its blindness" - LM5*

KRABELINAK

Beltzean sortu berri da gorria. Dantzaz dihardu orbanak. Gorri, laranja, magenta, ardo. Tantzaz tanta lore-begi bat bistaurrean. Itxita dago, orriak zigilatuta balitu lez; mutu. Baina gainaldetik zimurtutako lore-hostoak agertzen dira, barruan gordetzen duen energiak eztanda noiz egingo. Tanta urdin batek irrist egin dio eta suizidioaren mugan gorri bihurtu da. Plok. Kolore degradazioa, dantzaldia eta beste lore-begi bat. Plok. Buklea.

Hiru juduk kanta gai dute zerbait. Ez naiz diotena entzuteko gai, alboko gizonaren telefono bidezko elkarrizketak belarria pitzatuko baitit. Zigarroari azken zupada eman diot, lurrera jaurti eta zapatilaren zola errautsez zikindu aurretik. Txanponen batek zorua musukatu du eta poztu egin naiz. Eguzkitako betaurrekoak soinean, zorrak kitatuta egin dut hanka haien atzetik.

Hitz gutxikoa naiz, beharrezkoa denean baino ez ditut erabiltzen. Izan ere, errealitatea askoz era bisualagoan pertzibitzen dut; film bat balitz bezala, uneoro protagonista izan eta lehen plano bat egiten ari balira bezala. Imajina ezazu egoera: ingeles trakets eta zeinuez baliatuta eskatu duzu kafe huts bat, begien iluna baino beltzagoa. Hartara, kanpoan eseri zara, aurrean duzun plazan. Hatzamar artean duzun katilu zuria miazkatu eta, jarraian, kafe-baporea bidea egin du sudur-hobietan zehar. Doinu beroa, usain gozoa, sudur gorria berotuko didan baporea gora... zezeilaren biko plazerra.

Hainbat etxez osatutako kale amaigabe batean barneratu naiz. Hori, berde, magenta, urdin... guztiek ate zuria, teila gorrixkak. Bostehun bat metrotara melodia juduak entzun ditut, eta etxaurre gehiago zeharkatzeko prest naiz. Atari bakoitzeko atso bana dut lupaz begira. Askoren begiek atariak zeharkatzearekin batera jarraitzen naute, buruzapi koloretsuak ate-zaindari. Kremlera ahoa estaltzera arte igo eta aurrerantz noa.

Sinagoga zuri bat zeharkatu berri, alboko etxe txiki zikin batek arreta deitu dit. Liburu-azalek leihoak estaltzen dituzte, eta sartzea erabaki dut. Atea zabaldu eta jaka irekitzera abiatu naiz umedade usainak itsas-ondoko etxean eman nuen haurtzarora eramanean nuen artean. Ez dut inor ikusten barruan eta, kontuz, zulo hartan barneratu naiz, zehazki non sartzen ari naizen ongi jakin gabe. Ulertzen ez nituen pare bat hitz bortizki bota berri ditu betaurreko borobil txikidun ilekizkur batek. Ulertu ezin eta ingelesez hasi natzaio hizketan, eta jarraian lasaitu da. Liburuei begirada bat botatzera gonbidatu nau. Komunikatzaile batek nola uka halako aukera bat.

Askotariko grafiek erdi-zoratzera eramanean baino minutu erdi lehenago, gutunez beteriko kutxa bat aurkitu, ahoa soinean neraman zapiarekin estali eta ezkerreko eskuaz mordoa atera dut. Jabeak aspaldi eskaini didan infusioa hotz, lurrean eseri naiz eta kaligrafia deszifratzeko ahaleginean diraut: borobilagoa, zorrotzagoa, etzana, zurruna, tinta askoduna, gutxiagoduna. Datek duela ia mende-bete atzera naramate. Paperen orban gorrixkek atzeko istorioak salatzen dituzte. Ez dut hizkuntza ulertzerik, kaligrafia kostata. Baina ez dut metalezko kutxa-hondoa besarkatzen zuen orria ulertzeko arazorik izan, bizirik baitago. Gizonak radiokasete zahar bat piztu du. Opera ez dut inoiz gogoko izan.

Ixtear dela esan dit gizonak, eta eramateko kutxa lasai barrukoa interpreta dezadan. Edatekoa eskertu eta izena galdetu diot: Amir Koff. Eskuak berotu eta besarkada bat eskaini dit. Nik onartu.

Hotelera bidean motxilako pisuagatik izandako damua ke zupada luze batek ito du. Heldu bezain laster, biluztu, leiho ertzean eseri eta berriz ere atera dut metalezko kutxa. Asko eta asko gerra-garaiko hitzak dira. Mugikorra itzali eta koltxoi azpian ezkutatu dut.

Ez dakit Narkis nor den. Behin eta berriro agertzen da izen bitxi hura kaligrafia hotzean. Izenak, abizenak, letra eta bolaluma klase posible guztiak ikusi ditut, baina ez dut hari buruzko informaziorik aurkitu. Denbora aurrera, *tik-tak-tik-tak*. Koltxoiaren bibrazioa esnatzen du Internetek. Hasperen eginda, jada irakurritakoak alboratu eta oraindik irakurtzeko nituen mezuak zabaldu ditut. *Bz, bz, bz*. Egunak aurrera eta oraindik ez naiz historiak izan duen gizon bihozgabeenetako baten lehen eskuko informaziorik aurkitzeko gai izan. Itxaropena azken testigantzetan jarri dut. 5x7cm inguruko irudi bat agertu da. Zuri-beltza; orbanduna. Neska gazte bat erdian, esne-kantina buruan, gorritz

tindatutako lorea ahoan. Zapi argia buruan, begirada tristea jantzita begiratzen dio argazkilariari. Atzean *Klara #103* dio. *Bz.*

Izaren hotzak esnatu nau. Biluzik ia mende erdiko letrek baino ez naute estaltzen. Txorrota piztu eta bizpahiru minutu itxaron behar izan ditut uraren graduek zainen tenperatura egokitu arte. *Klara.* Nor ote zer *Klara.* E, Klara? Erantzuidazu, Klara. Noizbait ezagutu al zenuen Narkis, Klara? Begiak itxi ditut nire pentsamenduetan murgilduz eta ezin izan ditut berriz ere zabaldu.

Bart erabili ez nuen toalla zuriak atera dizkit lehen mamuak gorputzetik. Iletxoak tente, zuria zuri; gorputza estaltzeko erabili nahi nuke haren epeltasuna. Denbora geldi da; mundua mugimenduan. Orbitazioak etsi eta harritutako giharrek bizia bereganatu dute. Adikzioranzko erromesaldiak, kafetegian kafeinaz beteriko paperezko edalontzi ertain bat eskatzera narama.

Kremailerak ilea harrapatu eta arnas estu batek prozesua errepikatzea eragin dit kafea lurrean segundo erdiz utzita. Hotza eztarrian, edalontzia berogailu, berriz ere bueltatu naiz sinagoga ondoko etxeetara. Ez dut Amirrena ondo errekonozitu, gotorlekua helatasunetik babesten zuten liburu azalak joanak baitira.

Gizonarengana hurbildu eta eskua luzatuta, poltsa lurrean utzi, kremailerari beherantz tiro egin eta *Klara* erakutsi diot. Ezuste-keinu batek zelatatu du. Kutxan oheratuta zeuden hainbat istorio iratzarri eta bistaratu dizkiot. Itaunez itaun zapi gorri batez lehortu du bekokiko izerdia. *Klara #103.* Zenbakiak malko bat atera berri dio. Liburuak gordetzen jarraitu du, eta atera diodan zer bakarra orri-markatzaile txiki batean idatzi didan *Crvena ulica*, 7 izan da.

Teila gorridun etheen kalera itzuli naiz mapa orbandua eskuartean. *Crvena* kalea zapaldu berri eta erosketa-poltsa bat daraman lehen etxeko atsoa begira dut jada. Danborra balitz, haren bihotz-aktibitatea pertzibi nezake. Begira da, pizti batek haren harrapakinari begiratzen dion bezala, zuhur. Ematen dudan pausu bakoitzeko gorputza 15°-tan biratzen du, metrailadora batek jarraituko banindu lez.

Bi, lau, sei. Zazpi etxe kontatu ditut. Urdina egokitu zait. Atera hurbildu naiz. Ez da zapi koloretzurik leihoan. Hortaz, txirrina behin jo dut. Aldabatik eskegitzen den klabelin zuri hila ukitu bezain laster atzera egin dut, 65 bat urteko andre batek ireki baitit atea. Bizpahiru segundoko solasaldia aurrekari, *Klara* erakutsi diot. Eskuetatik kendu eta orria biratu du. *Klara #103.* Barrura gonbidatu nau.

Kafea egiten didan bitartean egongela txiki hartako nondik-norakoei begira diraut. Berokia oraindik soinean, erantzunen bila galtzeko ene erraztasunaz damutzen hasia naiz. Egurrezko erloju luzeak kanta, zoruko lurrak kriskitina balitz dihardu airearen joanarekin. Narkis. Erantzunak usain nitzake; senak ez dit sarritan hutsik egiten.

Leiho ondoko besaulkian eseri eta Klararen irudia estu gordetzen du esku artean. Kafea zurrupatu eta ea ezagutzen duen galdegin diot. Klara errepikatzen du behin eta berriro. Azkenean aitortu du behar nuen erantzuna. Denbora batez 'lagun' izan omen ziren. Sarajevon, berton, ezagutu omen ziren, baina egun batetik bestera arrastoa galdu zion, haizeak eraman izan balu bezala. Urdindu egin da giroa. Begirada tristeak eten du elkarrizketa. Ez du hitzik egin nahi andreak; are gutxiago Narkisik ezagutzen bazuen galdetu diodanean. Haserretu egin da, mindu. Nekatuta zegoela eta beste egun batean bueltatzeko erregutu dit pare bat saiakera ostean. Kafearen beroa gorputzean guztiz dijeritu eta atera naiz, errespetu osoz, amorruek erretzen zizkidan jakinminari aurre egiteko prest. Sarajevoko hotzak are urdinago egin du giroa.

Ostatua gurutzatu berri, besaulki gorrixka batean hartu dut eserleku. Zerbitzariak ardo kopa bat ekarri dit. Sudurrera hurbildu eta zorabiatu egin dut mahatsaren odola. Malko gorrixka batek zikindu dizkit ezpainak. Klara eta ordenagailua atera ditut. *Bz.* Berriz ere Miranda. Bibrazio gutxi batzuk falta zaizkit dei bat jasotzeko, *ultimatuma*. Argindarrak, ordea, lanaren alde ez egitea erabaki du. Ordenagailua haserre itxi dut. Bekokia bortizki laztandu eta denbora galtzearen beldurrez, liburutegian sartu naiz mugikorraren linterna piztuta, gutxienez bitarterako liburu baten bila edo. *Bz.* Miranda berriz, *joder*.

Ez dut interesekorik aurkitu, ez bada Sarajevoren historia lantzen duen liburuxka bat. Eskumako hatz erakusleak, aurretik atera ditudan 12 liburuekin bezala, honako hau ateratzen ere lagundu dit. Ezkerrarekin helduta, eskuineko erpurua orri-bukaeretatik paseatu da, zirikatatu egin ditu. Kaleak, pasarteak, mendeak, buruzagitzak zeharkatu ditut; hamaika gatazka eta gertaeratan sakondu. Etxe koloretsu bateko atsoa elkarrizketatu, kafeztu, sinagoga ondoko denda ez dirudien liburu-denda batetan sartu eta hirurogeita hamabost-bat urteko gizona besarkatu. Eta, behingoz, aurkitu dut Narkisen izena dakarren dokumentu bat. *Bz.* Elektrizitate-fluxua martxan. *Bz.*

Kafetegirako bidean. Zazpi lagun ditut aurretik kafe-makina musukatzeko zain, gogorregia izan baita kafeina bako azken ordu eta erdia. Zainek pozoi gorrixkaren beharra dute. Gauean orri-deskodetzean emandako orduak zoratzeko mugara naramate, eta zirku bat izan zen atzo gauekoa, biktima zerrenda bat barne; 103. orrialdean Klara.

Soinu iraunkor batek zatitu du ezerezaren kantua. *Bz.* Isilune laburra. *Bz.* Isilune laburra. *Bz.* Berriz ere, mugikorraren artxibo barnean ilunpean geratuko diren mezu mordoa.

Bainuetxera jaitsi naiz toalla hartuta. Mugikorra logelan ezkutatu dut berriz ere. Saunan inor ez eta biluztu egin naiz. Baporeak erretinak erre dizkit. Burua beroan baino ez dut. Norbaiten larruak nirea zirikatuko balu bezala, duna baten gainean orduan eman izan banitu

bezala. Beroaz gairi, ur izoztuz josiriko ontzikada bota diot neure buruari gainera. Arnasa hartzeko itota ziren bideak askatu dizkit.

Berriz naiz *Crvena ulica* 7.ean. Zabaldutik atea duela pare bat egun egondako andreak, Marak. Begira atso bakarra beharrian, hiru dira oraingoan. Aldabako lorea beste behin ukituta sartu naiz egongela horira. Neure lekua bereganatu dut sofa zaharrian. Motxila alde batera utzita grabagailua ateratzeko denbora baino ez dit eman Sarajevoko hormek gordetzen zuten sekretu handienetako baten berri entzuteko. *Ezagutzen dut Narkis*- ziurtatu du emakumeak berokia kentzeko denborarik ere izan ez dudanean.

Grabagailua are hurbilago etzan eta boligrafoa kriskitin batez jarri dut martxan. Beldurrez hasi natzaio galdezka, eta ez zitzaion asko falta izan emakumeari hitz jarioaz grabagailua blaitzeko.

Nor zen Klara?- galdetu diot begietara tinko.

Klara... Klara. Ez nago ziur, baina Dominguez zela uste dut haren abizena. Nonbait apuntatu nuen, erregistroan edo -ingurura begiratu du- baina orain ez dut gogoratzen non dauden paperak. Bilbo ondoko herri txiki batekoa zen, sarritan errepikatzen zuen tokiaren izena, baina ez naiz hura errepikatzeko gai; urte asko pasa dira, eta badakizu... Nik Kiev-en ezagutu nuen. Jaiotzez ukrainiarra naiz. Klara Santurtziko portutik atera zen itsasontzi handi batean 1937ko uztailean, erbesteratu behar izan ziren beste milaka umerekin batera. Gero ibilgailu batean egin zuten bidea Kiev-era. Bazen, bada, haurrak jasotzen zituen etxe bat eta ni boluntario jarduten nintzen bertan, Gurutze Gorria erakundearekin. Ezagutzen al duzu? -Buruarekin nik baietz-. Haurrak zaintzen genituen. Hamabost urte besterik ez banituen ere, erizain lanetan ere laguntzen nion noizean behin bisitan zetorren medikuari. Klarak, ordea, pare bat hilabete baino ez zituen egin bertan, beste haur karabana bat etorri eta nagusienak ondoko zelai batean jarritako kanpin-denda batzuetara bidali baitzituzten.

Mututu egin da. Begiak gelaren beste aldean, aurrez aurre, duen lorontzian finkatu du.

Nola ezagutu zenuen Klara?- meditazioa, edo batek daki zer motatako trantze mistikoa, eten diot. Isilunea.

Kanpamendura lagundu nion. Bera eta berarekin zihoan neska taldea. Jakean izen-deiturak zekartzan etiketa oraindik jarrita zuen eta poltsa txiki bat baino ez zeraman esku artean. Kanpamenduan sarritan egin genuen topo, batez ere jana banatzen ari zirela eta horrek estutu zuen gure erlazioa.

Isilunea. Hormako erlojuak bederatziak kantatu ditu. Begiradaz isildu nahi izan dut madarikatua. Grabagailuak erreanimaziorik behar ez zuela baieztatu dut.

Klara lore-saltzailea zen. Beti izan da. Krabelinak saldu ohi zituen. Itsasontzira igo baino lehen amak etxean denbora luzez, gerraostean negozioa berriz zabaltzeko, gordeak zituen haziak kuleroetan gorde zizkion, norbaitek eskuan zeraman poltsatik ebatsiko zizkiolakoan. Klarak ere bazekien hazi urri horiek izan zezaketen garrantzia haren biziraupenaren. Eta hala gorde zituen, amaren ondare.

Zutitu eta familia handi bat eusten duen altzariaren bigarren tiradoretik zapi batek ezkututzen duen plastiko txiki bat atera du. Eskuineko eskuan gorde eta berriz zutitu aurreko jarrerara bueltatu arte ez zuen haren barrukoa erakutsi. Ukabileko giharrak baretu eta atzamarrak pixkanaka zabaldu zituen. Ezkerreko hatzekin zapia baztertu eta plastikoa pixkanaka zabaltzen hasi zen. Hiru tanta beltz erori ziren.

Denbora asko pasa ohi genuen elkarrekin. Behin honelako bi pipeta atera eta bere ohe azpian landatu genituen. Nik ez nukeen esango biziraungo zutenik; berak, ordea, itxaropen guztia jarri zuen bere lanbide izan zitekeen horretan. Antzeko adinak are gehiago lotu gintuen. Ukranieraz hitz batzuk erakutsi nizkion.

Bz. Orain ez, joder. Emakumearen geldiune bat aprobetxatuta mugikorra guztiz itzali dut.

1938ko urtarrilean, igandero ospatzen zen merkaturako bidea egin genuen. Ez zen bertara laguntzen nion lehen aldia, baina gogoko nuen berarekin denbora pasatzea. Kanpamendutik hirira ordubeteko bidea zegoen oinez eta nekez egin genituen lehen kilometroak. Hala ere, jendetzara heltzeko azken metro batzuk besterik falta ez zirenean, kamioi bat gelditu zitzaigun parean.- listua irentsi eta beste mutualdi bat.- Txapeldun batek kamioian sartu gintuen.

Joder, Klara, zorigaiztokoa zu.

Kamioi barruan sartu eta beste hainbat neska zeuden bertan. Pare batek konortea galduta zeramaten pare bat egun, edo hori da besteek esan zigutena. Nire begietan, betirako lokartuak zeuden. Beste pare batek egunak zeramatzen jan gabe eta zulo hartan gorputz usain bortitzak baino ez ziren sumatzen. Haziak kuleroetan ondo gorde zituen Klarak. Orduak joan, orduak etorri, inor ez zen ezer esatera ausartzen. Bagenekien edonoiz aterako gintuztela, gutxien espero genuenean, zulo hartatik. Klarak haziak hagin artean gordetzea erabaki zuen, badaezpada. Beste zenbait gordetzeko eskatu zizkidan era berdintsuan.

Narkis al zen? - galdegin nion, gizonaren berri jakiteko beharra bainuen. Begirada jaitsi du.

Narkisen izena pare bat aldiz baino ez genuen entzun kamioi barruan ginela. Biziki beldurtuta geunden bizirik ziraugun sei arkumeok. Klarak eta biok eskutik gogor heldu genion elkarri kamioiaren motorrak soinua

ateratzeari utzi zionean. Ateratzeko agindu zigun jaka luzedun batek. Guztiok lerrokatu gintuen eta arropa eranzteko agindu. Esku dardartiek estaltzen zuten gure gorputzeko mina begi goseti eta basatien aurrean.- Negarra atera zaio. Nik listua beste behin irentsi behar izan dut-. Etxe barrutik ekarritako mangera luze batekin garbitu gintuzten bortizki. Lauzpabost izara banandu zizkiguten hamaikaren artean zatitzeko eta egokitu zitzaigun zentimetro gutxiko zatiak lepoa justuan estaltzen zigularik sartu gintuzten etxera. Bakoitza gela batean sartu eta norberari bere logela-zenbakia erre zioten azalean.

101 erakutsi dit Marak gona izterrerraino igota. Ni mutu.

Geletan sartu gintuztenerako gizon bana genuen zain. Hala igarotzen genituen gau eta egunak. Zortea bagenuen hain bortitzak ez zirenak egokitzen zitzaizkigun. Besteetan, ordea, amorruek ez zirenak egongo geunden. Soldaduak ziren gehienak, nahiz eta jeneralen batek ere gugana bidea egin. Zortez askok ez zuten luzaroan irauten, hamar bat minutu, ukitu zikinak barne. Behin eta berriz errepikatzen ziren hamar minutu zikin eta amaigabeenak.

Bortxatu al zintuen noizbait?

Narkis gelaz gela paseatzen zen, noiznahi atea ireki eta begiratzera. Berdin zen bortxan harrapatzen bazintuen, sartu, eseri eta begira gelditzen zen. Gau batean leihotik leihora berbetan harrapatu gintuen Klara eta biok. Nik burua berehala sartu nuen Sarajevo atzean utzita, baina Klara izan zen bete-bete harrapatu zuena. Guztia entzun nezakeen izara azpitik, hura baitzen aurkitu nuen ezkutaleku bakarra. - Listua-. Klarak ez zuen zorte bera izan, ez bainuen berriz hari buruz ezertxo ere jakin. Bi egunera bere logelan sartzeko saiakera egin eta jada beste neska errusiar batek haren lekua hartua zuela konprobatu nuen. - Begiak urtu zaidio. Guztia bere oroimenean ikusten ari balitz legez ari zait kontari-. Koltxoi azpian gordetzen zuen krabelina hartzea lortu nuen.

Atea da. Irekitzera altxatu da.

Nola atera zinen hortik?

Sartu berri den Amirri begiratu dio.

Soldadua zen. Baina ez zen besteak bezalakoa. Derrigorlari sartzen zuten logeletara eta ez ninduen inoiz ukitu. Hizketan ematen genuen denbora eta noizean behin libururen bat ekartzen zidan. -Apalategia erakutsi dit-. Liburu horia berak oparitu zidan, eta barruan gorde nuen Klararen argazkia. Abuztuaren 28an, leihotik ihes egitea lortu nuen. Amirrek soldadutzako derrigorrezko urteak bete, etxetxo hau erosi eta hemen bizi izan gara geroztik, Narkisen mina azalean ez ezik barruan ere tatuatuta. Nork ahantzaraziko dit guzti hori?

Ez dut hitzik. Arima hautsi zait. Narkis ez ezik Klara ere ezagutu dut. Grabagailua itzali dut. Joateko ordua omen zait. Eskerrik beroenak eman dizkiot emakumeari. Oraindik sinis ezin nezake bihotz uzkurdura bakoitzak emakumeari barrenetatik atera diona.

Bapore eta nikotina-ke pipa naiz orain. Begiak bortizki laztandu ditut. Logelara itzuli, biluztu eta teklatuari sua atera diot. *On fire* nago. Kafeina zainetan, beste sesio batek lagunduko nau gaur gauean. Mirandak pozik behar luke. Ez diot deirik egin, oraindik mugikorra itzalita baitut. Mara-mara hizkiak orri zurira. Leiho bat ireki zaio historiari.

David Domínguez Sevillano
“Gaur egun dezakezuna biharko ez utzi”

DENBORAKO BIDAIARIAK

Arratsalde batean Dani izeneko mutil bat bere etxeko garajea garbitzen ari zenean, bere zortzigarren urtebetetzearen bideoa aurkitu zuen.

Gaur egun Danik hogei urte ditu eta unibertsitatean ingeniarietza elektronikoa ikasten du. Denbora gehiena liburutegian pasatzen du; ikasten eta denetarik irakurtzen, komikiak, liburuak... Hala ere, gehien gustatzen zaion nobela H.G.Wells-ek idatzitako denborako makina da.



Garajea garbitu ondoren beraren logelara igo zen bideoa ikustera. Bideoa ipintzerakoan, ikusi zuen lehen pertsona bere aita izan zen. Bideoa grabatu eta egun gutxitara bere aita istripu batean hil zen. Bideo hori ikustea berarentzat oso gogorra eta mingarria zen. Ikusten jarraitu zuen, ordea. Danik minutu batzuk beranduago zeozer arraroa ikusi zuen bideoan. Ikusitakoa ez zuen sinisten, horregatik bere lagunei deitu zien.

Daniren betiko lagunak: Janire, Gorka eta Gillermo ziren. Bere lagunak berehala agertu ziren Daniren etxean. Danik bideoa erakutsi zien. Lagunek ikusitakoa ez zuten ulertzen, Daniren txantxa bat zela pentsatzen zuten, agian berak sortutako bideo bat zela.

Hala ere, ez zen hori. Hogei urteko Dani bat agertzen zen ispilu baten erreflexuan. Ordu erdi pasa ondoren, denak garajera jaitsi ziren erantzun baten bila. Zergatik zegoen aitaren tailerra itxita? Bila eta bila ari ziren ezer aurkitu barik. Bat batean Janirek lurrean zeozer arraroa

ikusi zuen. Han txapazko lur zati bat zegoen. Mahaia albo batera mugitu zuten. Txapa kentzerakoan maletin bat aurkitu zuten. Maletina irekitzeko zenbaki bat behar zuten. Zabaltzen saiatu ziren baina ez zen egon sortetik.

Azkenean Gorka agertu zen zizaila batekin, eta kandau biak ebaki zituzten. Maletin barruan makina arraro bat zegoen plano batzuk azpian zeuzkana. Haren planoetan gauza bat agertzen zen letra larriekin jarrita "DENBORAKO MAKINAREN PROTOTIPOA".



Danik eta bere lagunek planoak adierazten zuena jarraitu zuten eta egun batzuk pasa ondoren, azkenean, makina eraikitzea lortu zuten. Lau lagunek makina piztu zuten. Danik makinan data bat sartu zuen, bi mila eta zortzigarreneko apirilaren seia, beraren urtebetetzea orain dela 12 urte, hain zuzen ere.

Danik bakarrik gauza bat buruan zeukan: istripuaren egunean bere aitari autoa ez hartzea. Denboraren makina erabiliz, bere urtebetetzearen egunera heltzerakoan aita bilatu zuen, eta han ikusitakoan ulertu zuen ezin izan zuela pasatutakoa aldatu, horregatik bueltatu ziren denak euren garaira, orain aldira. Danik makina hori oso arriskutsua zela ulertu zuen eta orduan bere lekura bueltatu zuen, mahai azpiko zulora.

Idazlea: Melissa Segade

*“Borroka zenbat eta handiagoa izan,
orduan eta handiagoa da garaipena”*

INSTITUTUKO HILTZAILEA

Bazen behin batean Ibon izeneko mutil bat. Ibon Gernikako taberna batean lanean ari zen betiko lez. Gazte batzuk mugikor bat ahaztu zuten eta taberna ordurako itxita zegoen. Orduan Ibon mugikorra bere etxera eramanean zuen. Bat batean mezu bat iritsi zen. Ibonek ez zekien zer egin eta urduri mezua irakurri zuen.

- Gaizka eginda dago, kabroiak ez gaitu gehiago molestatuko.



Gaizkak mezua eta irudia ikusi zituenean harrিতuta geratu zen, ez zekien zelan erreakzionatu. Argazkian bere laguna (Aritz) lurrean zauritua ikusten zen, korrika batean tabernara itzuli zen hilketaren frogak aurkitzeko.

Ordu erdi eta gero Aritzen etxeko giltzak aurkitu zituen lurrean. Aritzen etxera joan zen ea beste gauza bat aurkitzen zuen baina bidean beste mezu bat iritsi zen Gaizkaren mugikorrera. Oraingoan ez zen beste irudi bat, koordenatuak baizik, mendi isolatu batera joateko. Mendia oso urrun zegoenez poliziarengana joan zen laguntza eskatzera. Komisaldegian

- Kaixo, beraz...badakit berandu dela baina mugikor bat aurkitu dut eta...
- Mugikor bat?! ez da izango Gaizkarena?
- Bai zergatik?? nola dakizu??
- Aste bat daramagu erruduna aurkitzen

Poliziarekin hitz egin ondoren mendi isolatura joan ginen korrika batean ea erruduna hor zegoen eta ez genuen inon ere aurkitu.

- Begira zer da hori??
- Uste dut Aritz dela...

Ikustera joan ginen eta Aritzen gorputza odolez beteta zegoen. Oraindik ez genekien nor zen errudun madarikatua. Autopsia eta gero bere burua akabatu egin zuela ezan zidaten. Harrituta geratu nintzen, ezin nuen sinetsi Aritzek bullying-a sufritzen zuela klaseetan, inoiz ez zidan ezer esan...

Nor izango ote da institutuko hiltzailea??

Ziur guzti honen erruduna Iñaki eta bere lagun makarrak izan zirela, institutuko txulo bakarrak. Heziketa Fisikoko orduan mugikorrak aldageletan uzten genituen beraz Iñakiren mugikorra topatzen hasi nintzen eta bat batean Iñakiren lagun bat sartu zen aldagelara eta harrapatu egin zidan.

- Zertan ari zara Iñakiren motxilan??
- Baa... zera...gauza bat gertatu da Aritzekin.
- Badakit zer gertatu den berarekin...
- Nola dakizu??
- Iñaki da erruduna, beti zirikatzen ibiltzen zen mutila, Aritz, transa zelako
- Benetan?!

Berriz harrituta geratu nintzen, ez nuen ezer ulertzen, zergatik ez zidan ezer kontatu?
zergatik ez zuen ezer esan institutuan??

Oso gaizki sentitzen nintzen. Banekien arazo batzuk zituela, baina ez nekien hainbesterako zenik. Errudun sentitzen nintzen. Baina ni ez nintzen erruduna, Iñaki baizik....

Iñakiren lagunak harrapatu egin ninduen baina denbora eman zidan mugikorra hartzeko, beraz berriz poliziarengana joan nintzen baina ongoan frogekin, hiltzailea iñaki zela baieztatu ondoren lasaiago geunden behintzat justizia egingo zelako eta pentsatu gabe, Iñaki kartzelara eramane zuten. Nire lagun onena galdu nuen... eta hau dena zergatik?? mutil transa zelako??

Badakit Aritz desberdina zela et a horri esker, hain zuzen ere, ikaragarritzko pertsona zen, ez zuen merezi gertatutakoa. Inork ez du merezi horrelako gauzak gertatzea... Horregatik horrelako gauzak gertatzen bazaizkizu ez isildu inoiz.

Babeslea

